



Oñatiko kaleak
plato bihurtuko
dira bihar, film
laburren rallyko
edizio berrian | 30

Ibarreko 500
lagun izango
dira Behobian | 27



GOIENA

GEHIGARRIA, BARRUAN
Osasunaren gaineko orrialde bereziak | 17



Gatzagako San Milixaneko
artisauen azokak 20 urte | 9




Kontzertu ikaragarria iragarri du
Doctor Deseoko Francisek | 32

Kooperatiben Urtea agurtzeko jaia domekan

Ume eta helduendako saioak eta
beste izango dira Durangon | 2

"Ez dugu nahi
greba orokorra
inoren liturgia
bihur
dadin"



Unai Sordo | CC00ko
Euskadiko idazkari nagusia | 8

Hip-hop, funk
elektronika eta
dantza saio
ikusgarria

Brodas Bros taldea
izango da Arrasaten
domekan | 33

Oñatin, duela
4.000 urteko
giza-hezurak
izan
daitezkeenak

Aloña Mendi
Espeleologia Taldeak
aurkitu ditu | 28

SINADURAK



Begiradak | 5
ANDONI URZELAI

16 | Heriotzaz bi hitz
DORLETA KORTAZAR



Justizia sozialetik urrun | 40
AINTZANE OIARBIDE

ASTEKO GAIA 2 | IRITZIA 4 | DEBAGOIENA 6 |
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 9 | KIROLA 26 |
KULTURA 30 | ZURE IRAGARKIAK 35 |
TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36 |
EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38



MUNDUKO TXAPELDUN

Bergarako Beñat Rezusta pilotariak Munduko Txapelketa
irabazi du buruz buruko modalitatean, Frantzian.
Eta Ibai Bolinaga arrasatearrak ere eskuratu du urrezko
domina, eskuz binakakoan, finala ez jokatu arren. | 26

Beñat Rezusta, urrezko domina erakusten, Bergarako Udai Pilotalekuan. | XABIER URTZELAI

Orain PIVE plan berriarekin



FORD FIESTA
8.250€-gatik



FORD FOCUS
12.900€-gatik

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g. ARRASATE



Kooperatiben Urtea jaiarekin bukatuko da, etzi, Durangon

- Denok gonbidatu dituzte, ez soilik kooperatibistak
- Dena doakoa izango da, herri bazkaria izan ezik

LEIRE KORTABARRIA |
ARRASATE

Kooperatibek gauza serioak bakarrik ez, ondo pasatzekoak ere antolatzen gai direla erakutsi nahi dute. Urte osoan jardun dute Euskal Herriko kooperatibek euren urtea ospatzen –Nazio Batuen Erakundeak Kooperatiben Urtea aitortu zuen 2012a–, eta, bukatzen doan honetan, jendearekin batera ospatu nahi dute. Horretarako, kooperatibistak eta haien familiak zein kooperatibista ez direnak gonbidatzen dituzte etzi, domeka, Durangon egingo duten jaialdira. Konfekoop federazioan batzen diren kooperatibek antolatu dute. Ume eta helduendako ikuskizunak, musika eta dantza, jatekoak eta edatekoak... izango dira.

Hiru ekitaldi dira azpimarragarriak: Irrien Lagunen emanaldia; *Hostoak* ikuskizuna; eta nekazaritza eta elikadura kooperatiben azoka, doan dastatzeko produktu batuzekin: Gernikako piperra eta beste produktu batzuk (Barrenetxe), okela (Urkaiko), txakolina (Talleri), Bastidako eta Lapueblako ardoa... Beraz, Deba-



Jaiaren kartela. | KONFEKOOP

goienetik joaten direnendako, aukera ona izan daiteke bailaran hain zabaldua ez dauden kooperatiba mota batzuk ezagutzeko.

Beste ekitaldi garrantzitsu bat, herri bazkaria, kooperatibek ekoizten dituzten produktuekin egingo dute, gehienak Eusko Labeldunak, eta Deba-goieneko Ausolan kooperatibak prestatuko du. Hori da ordaindu beharko den ekintza bakarra, baina krisi garaiko prezioak



Irrien Lagunek kanta eta dantza ekarriko dute. | JOSETXO ARANTZABAL



Hostoak ikuskizunak dantza, musika, txalaparta... batzen ditu. | JULIO CALLEJA

ipini dituzte: 6 euro umeendako eta 12, helduendako. Aurrez izena eman behar da, leku-kopuru mugatua dagoelako: 902 09 58 58.

Denetara, 37 kooperatibak hartuko dute parte domekako jaialdian; tartean daude bailarako koopera-

tiba gehiago, hala nola Garaion, Eroski, Euskadiko Kutxa, Danobat, Fagor, Goiena eta Lagun Aro.

Umeendako armosua
Ekintzak Landakon eta Plateruena aretoan izango dira. Jaia 10:30ean hasiko da: atek ireki-

EGUN OSOKO ESKAINTZA DURANGON

LANDAKO

10:30-15:00 Azoka.

11:00 Ipuin-kontalaria.

11:15 Ludoteka sortzailea.

11:30 Armosua.

12:00 Irrien Lagunak.

12:30 Mus txapelketa.

13:30-15:30 Herri bazkaria.

16:00 *Mediopelo* antzezlanak.

16:00 Mus txapelketa: finala.

18:00 DJ Oihan Vega.

PLATERUENA

17:00 *Hostoak* ikuskizuna.

18:30 Mus txapelketako sari banaketa eta Eroski Bidaiei zozketa.

Sanmilixanak
XX ESKULANGINTZA FERIA
2012



AZAROAK
11
IGANDEA
10:00-14:30

LEINTZ GATZAGA

SAGARRONDOTIK KUPELARA

Ikus ezazue herriko plazan, zuzen zuzenean sagardoa nola egiten den.

UKENDU TAILERRA

11:00etatik aurrera Frontoian.
Nagore Intxausti Zubeldiaren eskutik

Kultur etxean, BASERRISAREA.
COM-en aurkezpena eta informazio-gunea egongo da, DEBAGARAIA Elkartearen eskutik.

ANTOLATZAILEA: LAGUNTZAILEAK:



AUTOBUS ZERBITZUA EGONGO DA ESKORIATZA - LEINTZ GATZAGA
LEINTZ GATZAGA - ESKORIATZA



NEGUKO ORDUTEGIA
(larunbat eta igandeetan)
12:00etan EUSKARAZ
13:00etan GAZTELERAZ
* Ordutegiz kanpoko bisitak:
665 73 95 50 telefonora deituz.



JAVIER GOIENETXEA | KONFEKOOP-EKO PRESIDENTEA

"Kooperatibak zer garen erakutsi nahi genuen aurten, eta pozik gaude"

Nola baloratzen duzue Kooperatiben Urtea?

Oso pozik gaude egin dugun guztiarekin eta jendeak nola hartu duen.

Ez dakit 2012 aurte onena izan den...

2008an izendatu zuten, krisi aurretik.

Ez da egoera txarra;

gu ondo gabiltza aurre egiten, beste enpresa mota batzuk baino hobeto. Aurten tokatu da eta, gauza gutxiagorekin baina irudimen handiagoarekin, egin daitezke gauzak.

Krisia dela eta, kooperatibei beste proiektio bat emango zitzaien...

Zer garen erakustea zen gure helburu handi bat eta, horretarako, urtea oso garrantzitsua izan da, gauza asko zabaldu eta azaldu



ENEKO AZKARATE

direlako. Horretaz, oso kontent gaude.

Munduan, kooperatibismoaren eredu zabaldua dago?

Bai. Gure kooperatiba asko industrialak dira eta sektore hori oso garatuta dauka. Hemendik kanpo halakoak ez daude

gehiegi; aldiz, nekazaritzakoak, kreditukoak, kontsumitzaileenak... izugarri zabaldua daude munduan. Nekazaritzan, Afrikan, badaude kooperatibak herrialdearen BPGaren %40 diren kasuak.

Nolakoa izango da domekako jaia?

Jai irekia, gizarte guztiarendako. Oso ekintza politak eta jatorrak izango dira, eguna lasai pasatzeko eta disfrutatzeko. Ea eguraldiak laguntzen duen!



Ume, gazte eta helduak dantzari ipiniko ditu Oihan Vegak. | MIRARI ALTUBE

DATUA

37

KOOPERATIBA

Etziko jaia 37 kooperatibak antolatu dute aurrera; tartean daude Garaion, Fagor, Eroski, Goiena, Danobat, Lagun Aro, Euskadiko Kutxa...

100

MILIOI LANPOSTU

Konfekoop federazioaren datuen arabera, kooperatibek 100 milioi lanpostu baino gehiago dituzte gaur egun munduan.

tzearekin bat, umeendako taile-rrak eta puzgarriak hasiko dira eta nekazari-elikagaien azoka irekiko dute. Ipuin kontalaria eta gero, Garaion Kooperatiba Elkartea Txikiak ludoteka sortzailea egingo du. Segidan, Kaikuk arrosatzen emango die umei.

12:00etan ailegatuko da beste ekitaldi nagusi bat: *Irrien Lagunak*. Bitartean, helduek urtean zehar jokatu duten mus txapelketaren final-laurdenak eta final-erdiak egingo dituzte. Bikote asko apuntatu ziren, eta zortzi ailegatuko dira domekara. Covi-

la upategiak emango ditu sari batzuk.

16:00etan, Ganso & Cia kooperatiba txikiak *Mediopelo* antzez-lana egingo du; eta mus txapelketako finala jokatu da. 18:00etan, DJ Oihan Vegak denondako dantzaldia girotuko du.

Plateruenean bi ekintza izango dira: 17:00etan, Txalap.Art kooperatibak ekoiztutako *Hostoak* kantut, musika eta dantza ikuskizuna, Kukai, Amaren Alabak eta Oreka Tx taldeekin; eta 18:30ean, mus txapelketako sari banaketa eta Eroski Bidaien zozketa.

Potentzia ekonomikoa

Konfekoopen arabera, 1.000 milioi bazkide eta 100 milioi lanpostu ditu kooperatibismoak munduan. Munduko 300 kooperatiba handienek batera fakturatzen dutena kontuan hartuta, munduko 9. indar ekonomikoa izango lirateke.



ORTUZAL PROMOCIONES S.L.
Tel.: 943 76 11 18 - 943 79 40 00

ARETXABALETA

AUKERA EZIN HOBEA

ETXEBIZITZAK:

2 logela
2 bainugela
Sukalde hornitua
Ganbara bikaina

Azken etxebizitzak!!

ABENDUAREN 31 BAINO LEHENAGO

190.000€

(BEZ barne)

Zero tolerantzia erasoei

Lierni Arregi, Maipi Urteaga, Isa Rebollo, Jasone Elorza eta Lurdes Arregi

(Andraitz Feministak)
Oñati

Emakume batek jasadako eraso bat salatzeraz geroz azaroaren 25a, eraso sexistaren kontrako eguna, gertu dagoenean. Urriaren bigarren asteburuan gertatu zen. Gizonezko batek neska gazte bati Txaketua tabernan eraso egin zion, hitzez esandakoari keinu batekin erantzun ziolako honek. Ez da gizonezko honek eraso egiten duen lehen aldia; aurretik ere emakumeenganako jarrera sexista, matxista eta prepotenteak erakutsi ditu Oñatiko taberna eta kaleetan, inpunitate osoz, eta guztiok jakin arren, isildu egiten gara.

Aski da! Emakumeok ez
ditugu horrelakoak onartu
behar! Askatasun osoz ibili
nahi dugu eremu eta ordu
guztietan. Guk ere ondo
pasatzeko eskubidea dugu,
indarkeriarik gabe! Beldurrik
gabe! Guztion ardura da,
herritarrok horrelakoetan ez
dugu isildu behar,
interpelatzeko eskaera egiten
dugu eta edozein erasuren
aurrean erantzun firme eta
gogorra ematea. Tristeia da
Oñatiko Berdintasun

GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne).
GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otolara Lizenziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

batzordeak jaien hasieran eraso
sexisten inguruan ikastaro bat
antolatzea tabernarientzat,
protokolo bat diseinatzeko
horrelako kasuetarako, eta inor
ez animatu izana.

Oñatin ez dago tokirik
emakumea errespetatzen ez
dutenentzat! Emakumeok
antolatu egin behar dugu, parte
hartu behar dugu erasoak
salatzeko, gizonezkoen
inplikazioa ere ezinbestekoa da.
Auzolanean lortuko dugu!
Denok batera! Baboso eta
erasotzaileak kanpora!

Ikusezinak

Josu Garitaonandia
(Equo Bergara)
Bergara

Inkesta bat eginuz gero zenbat partidur aurkeztu ziren hauteskundeetan, gutxi batzuek esango zuketen bost izen baino

gehiago; ikusirik 20 partidu aurkeztu ginela, ondorio bezala atera dezakegu partidu gehienok *ikusezinak* garena biztanleen aurrean. Arrazoiak asko dira. Legeek –partidu handiek egindakoak– partidu berriak instituzioetan sartzea oztopatzen dute, hedabideek batez ere instituzioetan aurkezpena duten partiduen berri ematen dute, baina arrazoi nagusia dirua da: diru gehien duten partiduek lortzen dituzte ordezkari gehien instituzioetan, ez programa hobe edo demokratikoagoak dituzten partiduek; beraz, diru gehien dutenak dituzte kontrolpean instituzioak.

Equok hauteskundeetan 26.821,92 euro gastatu zituen; zertan gastatu diren *Equo Euskadi* orrialdean dago. Dirua militanteen aportazioetatik dator (bankuei mailegurik eskatu gabe eta multinazionalen dirua onartu barik).

Demokrazia hobetzeko, komeniko litzateke partiduek hauteskunde gastuen nondik norakoak argitaratzea; gure estimazioaren arabera, guztien artean 1,5 milioi euro gastatu ziren; dirutza, krisi garai honetan.

Eskerrik asko!

Joxemiel Uribarren
(Aretxabaletako EAJ-PNV)
Aretxabaleta

Aretxabaletako EAJ-PNVk
eskerrik beroenak eman nahi
dizkie EAJ-PNVrengan
konfiantza jarri duten guztiei
hilaren 21eko
hauteskuendeetan.

Gure konpromisoa
azpimarratu nahi dugu
aukeratu duzuen programa
aurrera eramateko, eta espero
dugu gure/denon konpromisoak
beteko dituztela.

Mila esker, denoi, eta denok
 batera eta gure
 erantzukizunarekin alderdi
 irabazle bezala, aterako dugu
 herri hau aurrera!

Ka-ka-
kapitalismoa

Piter Encinas
(ESK-ko eta Gorripideako kidea)
Arrasate

Unicefek dio Espainian haurren %27, 2.000.000 ume baino gehiago, pobreziaren atarian bizi direla. Espainian, 8.000.000 pobre baino gehiagok laguntza eskatu behar dute, egunero jateko. Espainiako 10 biztanletik seik hilero 1.000 euro baino gutxiago kobratzen dute; aurretik, erosteko ahalmena azken 27 urteetako maila baxuenean dago. Lan egiten duten langileen artean, %35k 641 euro baino gutxiago kobratzen dute (Gutxieneko Soldata Interprofesionala). 500.000 etxetan ez da sartzen soldatarik, 1.737.900 familiatan guztiak langabeak dira.

Europatik iristen den dirua gobernuak jasotzen du, eta banketxe kutsatuei banatzen die, baina herritarrok ordaintzen dugu. 2011n luxuzko kontsumoa %25 igo zen eta fakturazioa 5.000 milioi euro izan zen. Luxuzko auto salmenta %83 igo zen; batez

PREZIO PAREGABEAK

Azken etxebizitzak
%4ko BEZarekin

AUKERA APROBETXATU!

ESKORIATZA
Elorreta Auzoa (erdigunetik oso gertu)

Informa zaitez

www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude.

943 10 95 95

ere, Porsche eta Ferrari
marketakoak. Aurreikusten da
2017rako milioi bat euro
daukaten aberatsak bikoitza
izango direla.

Espainian, egunero 532 etxetatik kaleratzen dituzte, ezarri duten legea 1909koa da, baina %70 kasutan aholku legalik gabe egiten da. Azken 4 urteetan, 350.000 kaleratu baino gehiago izan dira. Urriaren 25ean, 53 urteko gizon batek bere burua hil zuen kaleratua izan baino lehen, egun berean 50eko beste gizon bat saiatu zen, epailearen komisio bat bere etxerantz hurbildu zenean.

Estatu ongizatea tresna bat da, aberatsen eta pobreen artean dagoen desberdintasuna hain handia ez izateko. Estatu ongizatea hondatzen bada, automatikoki desberdintasun hauek handitzen dira, baina aberatsak aberatsagoak dira eta pobreak pobreagoak. Hau guztia heziketa eta osasuna aipatu gabe; nork du gehiagorik?

Ezer aldatu behar da?

Luis Garate eta Mertxe Trojaola
(Arrasate Garbi)
Arrasate

Hauteskundiak izen zientetik egun batzuk pasau ostian, atez atekuaren aurka gaudenontzat, reflexionetia eragin dozkun eta Arrasateko herrixarekin elkarbanatu eta Udal Gobernuari jakinarazi gure deutzagun zerbait pasau da. Gogoratzen dogu alkate jaunarekin irailaren 6xan izan gauen batzarrian zera esan zuzkula: "Atez atekua ezartziaren erabakixa hartuta dau eta berdin dozku zenbat pertsona ez dauen berarekin ados". Ondoren komentau zauen: "Laister hauteskundiak izengo die eta ikusiko dogu erabaki honeik eraginik daukien". Emaizten gure interpretaziñua bai da Arrasateko herrixaren erantzun bat egon dala atez atekuaren inposaketaren kontra. Hortik dator Udal Gobernuak inposaketa hori birpentsatuko dauen gure itxaropena. Baina ez dakigu egingo dauen.

Barriro eskatzen deutzogu
Udal Gobernuari,
hauteskundietako emaitzekin
eta bere garaixan aurkeztu
genittuen ia 7.000 sinadurekin,
gaia replanteatu deixela.

Aldi berian, azpimarratu nahi dogu atez atekuak garestitu egingo dittuela arrasatetarron hileroko gastuak, krisi eta murrizketa garai honeitan.

Atez atekoak jarri
eta gero botoak
ematen ditu

Joxe Lazkanoiturburu
Oñati

Hauteskunde emaitzak direla eta, asko entzuten da Gipuzkoan atez atekoaren eragina. Hernaniko lagun batek aipatu zidan antzeko prozesu bat bizi izan zutela. Atez atekoa jarri aurretik, PNV, PSOE, *El Diario Vasco*, *Noticias de Gipuzkoa* komunikabideek kristoren alarma soziala piztu zutela.

Herritar asko maila ia irrazionalean ixten ziren atez atekoaren aldeko argudioen aurrean. Giroa asko nahastu zen Hernanin. Lagunak esan zidan ziur asko udal hauteskundeak atez atekoa jarri aurretik egin izan balira Bilduk alkatetza galduko zuela. Atez atekoak beldur ikaragarria pizten badu ere, behin jarrita beldurra desagertzen da. Sistema hain erraza eta simplea izanik, gehiengo handi bat berehala egokitzen da. Aurka zeuden asko ohitura aldaketa txiki batekin askoz gehiago birziklatzen dutela konturatzen dira.

Atez atekoak praktikan arazorik ez dakarren adibide dira Hernani, Usurbil, Oiartzun, Antzuolaren emaitzak, oraingo emaitzekin udal hauteskondeen gehiengo absolutuak mantendu eta sendotu dira. Horregatik, atez atekoa jarri nahi dutenak bide horretatik urratsak egitera animatu nahi ditut. Herritarregana hurbiltzen jarraitzea ezinbestekoa da, eta zalantzak eta beldurak uxatu. Ahaleginak merezi du

Goienako
zuzendaritzari
protesta

Jose Migel Uribarren, Victoriano Gallastegi, Arantza Akizu, Basili Ormazabal, Mikel Lete, Juan Karlos Garitano, Aintzane Oiarrbide, Lourdes Idoiaga, Mikel Uribe Etxebarria, Aitor Urrutia eta Patxi Basauri eta Mikel Iturrosp
(Debagoieneko EAJ-PNVren izenean)
Debagoiena

Joan den urriaren 19an, hauteskunde kanpainaren azken egunean, Goienak erabateko protagonismoa portadan aurreratu gabeko gaiari eman zion bi orrialde osorekin: *Atez ateko zabor bilketa sistemaren onurak gure bailaran*. Ukertatutako formatua, erreportajea.

Zabor bilketa sistema berri honen defentsa sutsua egiten zen inoren ahotan ezer jarri gabe. Mankomunitatea aipatzen zen, ingurumen ordezkarriak... Egiten zen kontakizuna publi-erreportaje baten parekoa da: *Zerbitzu berriak, Onura ekonomikoak, Lanpostuen sorrera, Tratamendu gutxiago, Berezko diru-sarrerak, Hiru milioi euro alde, Errauskailua = 400 milioi, Birziklapenerako onurak, Arazoa eta irtenbidea eta Herriarren parte-hartzea*. Hau gutxi izango balitz, lauki batean fitxa agertzen da: *Atez atekoa vs 5. edukiontzia + errauskailua*. Erdi-erdian kontenedore edo edukiontzien argazkia... Non dago zintzilikarioen argazkia? Erreportajea borobiltzeko kalifikatzea zaila den diagrama pareia, eskualdearekiko fluxu ekonomikoez, kostuez... Inork ba al daki nondik atera diren zenbaki eta erlazio hauek? A, eta nola ez! Bideragarritasun ekonomikoari buruzko beste laukitxo bat... Iturria: Mankomunitatea. Erreportaje hau, behin eta berriz, gaur egungo bilketa sistema zapuztuz eta konparatuz aritzen da, baina edukiontzien sistemaren defendatzaileen iturrietara ez da gerturatu ere egiten. Ondo dakigu guztiok atez ateko sistemaren aldeko bandera politikoa Ezker Abertzalearena dela. Herriari

inposatu nahi diotela herriak honen aurka milaka eta milaka sinadura jaso baditu ere. Eta hauteskunde kanpainako azken egunean, erantzuteko ere denborarik gabe, denborak ondo kalkulatuta eta beste iritziekin inolako kontrasterik egin gabe, ez eta ematen diren datu guztien kontrasterik egin gabe ere... Goiena, EH Bilduri kanpaina eginez, kazetaritzan behar den erabateko etika eta praxiaren aurka! Goiena taldea osatzen duen ekimena sortu zenean ez al zen batik bat bailarako informazioa euskaraz emateko jai? Ez al zen behar soziolinguistikoki bati erantzuna emateko jai? Gure iritziz, ez diozue inolako mesederik egin hauteskundeekin nahasten. Gai guztiak inpartzialtasunez jasotzea eskatzen dizuegu, are gehiago, gizarte osoari eguneroko bizitzan eragiten dion zabor bilketa sistema bati buruz ari garenean. Eta ez ahaztu bailara honetan 17.000tik gora sinadura jaso direla jadanik sistema honen aurka. Hauetariko asko Goienaren irakurleak izango dira, zalantzarik gabe. Guk, EAJk, iritzi desberdinak defendatzen ditugu, iritzi askatasunaren alde egongo gara beti. Baina horrelako manipulazio eta alderdikierarik ez dugu inolaz ere onartuko. Nahikoa politizatu da zaborren gaia eta ez diozue mesederik egiten hauteskunde kanpainako azken egunean honelako erreportajea argitaratzearekin. Kanpaina bukatu da, baina zaborren arazoak gure artean jarraitzen du. Iritzi guztien berri ematea eskatzen dizuegu, eta horrelako gertaerak betiko baztertzea.

IRAKURLEEI:

Datorren astean hiri hondakinen beste erreportaje bat aterako dugu atez atekoaren kontra dauden iritziak jasoz. Hori erabaki genuen hiri hondakinen gainean Mankomunitatearen informazioa argitaratu ostean.

Goienako Edukien batzordea

ZABALIK

**ANDONI
URZELAI**

<http://goiena.net/iritzia/>



Begiradak

Lenendakari-gai edo lege-
biltzarkide banintz, aur-
pegia moztortu, kale-
bazerretara abiatu, eta
zabal-zabal irekiko nituzke bi-
begiak, herritarren begiradetan
zer antzematen den jakiteko. Izan
ere, errealitate biluza ez da lotsa-
tia, hor dago, ikusi nahi duenaren
bistan:

Lan egonkorra dutenek dardarka begiratzten diote enpresariari. Lan baldarra daukatenek etsai balira bezala langabeei. Langabeek, errukiz INEMeko funtzionarioei. Funtzionarioek, gaixo terminalari bezala aurrez aurre dutenei. Gaixoeak, itxaropenez medikuei. Medikuek neskameari bezala gaixoei. Sosak dauzkanak mesfidantzaz gutxi daukanari. Gutxi daukanak, beldurrez immigrante zuriari. Immigrante zuriak gorrotoz beltzari. Beltzak, suminduta beste guztien begiradei darien destainari. Inbidiaz begiratzten dio zaharrak gazteari. Gazteak, zama garestiegia direlakoan, amorruez zaharrari. Behetik gora emakumezkoak gizonari. Goitik behera gizonezkoak emakumeari. Tertulianoek adurra dariela krisiari. Ikusleek, amorru bizian haiei zein honi. Lotsatia da erosleak mostradoreko arrainei botatzten dien begirada. Saltzaileak erosleari luzatzen diona, ostera, errukitsua. Gorrotoa ikusten da poliziaren begiradan. Jipoitutako manifestarian, inpotentzia. Emakume astinduak otzan begiratzten dio senar sadikoari. Andre horren begirada izutiaz behatzten du Kataluniak España. Españak, leunki Katalunia (haur bihurriari moduan) eta oldarkor Euskal Herria. Euskal Herriak akonplejatuta luzatzen dio begirada Europari. Eta Europak, elefanteak inurriari bezala begiratzten digu gu guztioi. Agintariek maiteminduean begirada itsuaz behatzten dute finantzieroa. Herritarrek martzianoak balira bezala ikusten dituzte agintariak.

Tamalez, lehendakari-gai eta legebiltzarkide gehientsuenek eguzkitakoak darabilte eta ez dute beraien sudur-puntatik haratago ikusten.

Argitaratzailea Goiena Komunikazio
Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzel
(Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia
Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano,
Kepa Martelo
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano, Ziortza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Bereizibar, Iratxe Benqoa


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
 Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
 Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



CCOO sindikatuko Julian Feo, Arrasaten, herritar bati grebaren berri ematen. | JOKIN BEREZIARTUA

CCOO, UGT eta ESK sindikatuak dei egin dute hilaren 14an greba egiteko

ELAk eta LABek ez dute bat egin; ez da jarraipen handirik espero gure ibarrean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Europako sindikatuak grebarako dei bateratua egin dute lehen aldiz azaroaren 14rako. Deitzaileen arabera, "hainbat arrazoi" daude grebarekin bat egiteko eta Espai-

niako Gobernuaren "norabide aldaketa" lortu behar dela diote. Debagoienean, CCOO, UGT eta ESK sindikatuak izan dira greba deitu dutenak. Hainbat arrazoi eman dituzte greba egiteko. Bes-

teak beste, Europa mailako greba dela eta gizarte ereduak aldatzeko beharra azpimarratu dute: "Finantza sistemak sortu duen krisia gizarteak eta langileok ordaintzea nahi dute finantza sistema salba-

tzeko. Herriak erantzun behar du". CCOO sindikatuko Julian Feok aitortu du Debagoienean eta EAEn grebak ez duela jarraipen handirik izango baina Estatuan jarraipen zabala izango duela deritzo. Bestalde, Feok gogor salatu du ELA sindikatua Europako sindikatuen konfederazioko kide izanik, grebarekin bat ez egitea: "Ez du zentzurik Europa mailako mobilizazioak defendatu eta gero Espainian paso egiteak".

Azaroaren 14an Donostian egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko deia egin dute. Goizeko manifestazioa 12:00etan izango da eta arratsaldekoa 18:30ean; biak Alderdi Eder plazatik irtengo dira. Eguna heldu baino lehenago auto karabanak iragarri dituzte Arrasaten, Bergaran eta Oñatin.

ELA: "Europa ez da koartada"

ELAk, greba ez deitzearen arrazoiaren artean, irailaren 26ko grebaren arrakasta aipatu du eta "orain arte egin moduan" mobilizazioekin jarraitzeko asmoa erakutsi dute. Hori bai, gizarteak eskatzen duenaren arabera mobilizatzen da ELA: "Langabezia, pobrezia, etxe kaleratzeak... Uste dugu Espainian zein Euskal Herrian alderdiek eta erakundeek kapitala lehenesten dutela pertsonaren gainetik". Era berean, ELAk ulertzen du Europa ezin dela koartada edo zurigarri izan gobernuak murrizketak aplikatu dituzten: "Erakunde lokalak modu berean dira erantzule", diote.

Janari bilketa kanpaina Arrasateko Eroskin egongo da gaur eta bihar

Eroski fundazioaren eta Gipuzkoako Janari Bankuaren arteko lankidetzari esker aurten ere janari bilketa kanpaina egingo da Arrasaten, *Zure erosketako pixka bat asko da lelopean*. Familia edo pertsona behartsuendako da ekimena; gaur arratsaldean egingo da bilketa, 16:00etatik 21:30era. Zapatuan, berriz, egun osoz egingo da. Datuak esanguratsuak dira: Arrasateko Eroskik 50.000 kilo elikagai eman dio Gipuzkoako Janari Bankuari azken bederatzi urteetan.

Barneko ziklismo monitoretza ikastaroa Arizmendiren eskutik

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketako Tafyd taldeak barneko ziklismo monitoretza ikastaroa eskainiko du azaroan. Saioak bihar, hilak 10, hilaren 16an eta 24an izango dira Ferixalekuan, 08:30etik 14:30era. Dabid Berezibar izango da irakaslea eta guztira 18 ordu iraungo du. Informazio gehiagorako, honako hiru bide: 943 77 20 25 telefono zenbakia, www.arizmedipiro.com webgunea eta dberezibar@arizmendi.ikastola.net helbide elektronikoa.

Jonan Fernandez | Baketik-eko zuzendaria

"Bizikidetzak kultura berri bat sustatzea bilatzen dugu antolatutako ikastaroekin"

Astelehenean hasiko da Baketik Fundazioaren ikastaroa, eta izena emateko aukera dago oraindik

O.E. / Z.V.D.M. | DEBAGOIENA

Gaur egun jendearen ahotan maiz agertzen den berba da *bizikidetzak*, eta horren inguruan lan egin gura du Baketik Fundazioak. Besteak beste, ikastaro batzuk antolatu ditu; ibarreko hitzorduak Arrasaten egingo dituzte.

Ikastaroaren muina bizikidetzak da, ezta?

Gure ustez, bakea lortzeko gauza asko egin behar dira. Azken hamarkadetan bizi izan dugun esperientzia oso gogorra izan da eta orain landu egin behar dira zenbait kontu. Esaterako, bizikidetzaren gorabehera batzuk aztertu eta sakondu egin behar ditugu, eta, helburu horrekin, formazio programa hau antolatu dugu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera. Gipuzkoa lau zatitan banatu dugu eta ikastaroak Eibar, Arrasate, Donostia eta Tolosan izango dira. Hurrengo hiru astelehenean Eibar eta Arrasaten izango dira, Donostian eta Tolosan azkenak. **Zein helburu dauka ikastaroak?**



Jonan Fernandez. | ARTXIBOA

Bizikidetzak kultura berri bat sustatzea bilatzen dugu. Alde batetik, horrek aspektu soziala dauka; hau da, ahalik eta jende gehienak modu honetako gogoeak eginez gero jendarteak irabazten aterako da. Eta bestaldetik, eragin pertsonala dauka, eguneroko bizitzan horrelako gogoetak aplikatuta ere irabaziko du. Hasieran esaten genuen bezala, bakea kontsolidatzea da helburu nagusia eta ezinbestekoa da bizikidetzak eremu horretan.

Nolakoa izango da ikastaroa?

Arrasateko kasuan, Kulturaren 12an, 19an eta 26an eskainiko dira ikastaroak, 18:30etik 21:00ak arte. Hitzaldiak, mahai inguruak eta beste egingo dituzte orduan. Saio horietan, gai ezberdinetan sakonduko da: pertsonaren figura landuko da, alde batetik; gatazkaren ikuspuntu ezberdinen gainean egingo da berba, bestetik; eta azkenik, berradiskidetzak izango da ardatz nagusia.

Segidan, hiru aste izango dituzte parte-hartzaileek lan bat egin eta aurkezteko. Abenduaren 15ean, berriz, Donostian elkartuko dira lau herrietan aritu diren parte-hartzaile guztiak ikastaroko ondorioak eta ezagutzeko.

Nork emango ditu ikastaroak?

Baketik Fundazioko kideak izango gara ikastaroak emateko arduradunak, ni neu barne.

Eman al daiteke izena oraindik?

Hala da, bai. Oraindik ere interesa duten guztiek aukera daukate formazio programan izena emateko. Arrasaten 18:30ean emango zaio hasiera ikastaroari astelehenean, eta astelehenean bertan 16:00ak arte posible izango da inskribatzea. Ikastaroak doakoak direla azpimarratu nahiko nuke. Eskualdeko edozein pertsona dago gonbidatuta, eta aski da 943 25 10 05 zenbakira deitzea edota info@baketik.org helbidera idaztea.

Euskal identitatea berbagai azaroaren 15ean Arrasaten

Martxelo Otamendik, Julen Arexolaleibak eta Andoni Olariagak hartuko dute hitza Kulturaten

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Euskal identitateari buruzko mahai inguru antolatu dute Bai Euskal Herriari taldeak eta Arrasateko Udalak. Kulturaren izango da, azaroaren 15ean, 19:00etan.

Bertan, Martxelo Otamendi *Berria*-ko zuzendaria, Julen Arexolaleiba soziolinguista eta Huheziko irakaslea eta Andoni Olariaga filosofoak egingo dute berba. Hizkuntza identitateak nazio identitatearen duen eraginaz eta alderantzizko joeraz mintzatuko dira, bai eta Kataluniako ereduaz ere.

Arrasatearren identitateaz

Martitzenean aurkeztu zuten berbaldia Arrasaten, Kulturaten, Bai Euskal Herriari taldeko Eider Roak eta Maite Otxandianok eta baita Arrasateko alkate Inazio Azkarragaurizarrek ere.

Otxandianok adierazi zuenez, euskal identitatea ardatz duen mahai inguru egiteko ideia Bai Euskal Herriari taldeak herritarren artean egindako inkesta baten ondorioz sortu

zen. Inkesta egiteko arrazoia ezinbestekoa ikusten zuten, "bakoitza nondik datorren eta nor den argi edukitzea nora goazen jakiteko". Zalantza ugari zituzten gaiaren gainean: "Zer sentitzen du jendeak?".

Hala, erdiguneko, Musakolako eta San Andresko 260 biztanleri ikur ezberdinak erakutsi zizkieten, eta horietariko zeinekin identifikatzen ziren galdetu zieten. "Arrasateko herensuega eta Musakolako astoa, herriko koloreak, Arrasateko armarrak, ikurrina, Nafarroakoa...". Generoa eta adina kontuan hartu dituzte inkestaren egileek, eta, adierazi dutenez, askotarikoak izan dira emaitzak. Gazteen artean, esaterako, "ikurrina, Nafarroako bandera eta Euskal Herriko armarrak" izan dira ikurrik hautatuena, "eta lauburua ere agertu da".

Behin arrasatearren nortasun kontuak aztertuta, euskal identitateari buruzko mahai inguru interesgarria antolatu dute azaroaren 15erako, eguna, Kulturaten, 19:00etan.

AITOR VELASCO: Zuzendaria

Metapostak bizitza erraztuko dizu

Metapostaren ideia 2005ean hasitzen garatzen Mondragon Taldearen babesarekin eta laguntzarekin; 2011ko otsailean jarri zen abian. Egun, 30.000 erabiltzaile ditu, eta goraka doa. Aitor Velasco zuzendariarekin hitz egin dugu.

Zer da Metaposta?

Metaposta Eusko Jaurilaritzak sortutako zerbitzu berritzailea da. Bertan, herritarrek eskura izango dituzte erakunde ezberdinen jakinarazpenak. Hau da, orain arte etxeko postontzian jasotzen dituzten fakturak, Metapostari esker, modu elektronikoa jasotzeko aukera izango dute. Metaposta Interneteko gordailu elektronikoa da.

Zertarako erabil dezakegu?

Nire kasuan, esaterako, Metapostako kontuan, egun ditudan fakturak jasotzen ditut: Iberdrola, Naturgas, Bilboko Urak eta Euskaltel enpresek. Nire nomina ere bertan jasotzen dut. Orain postontzi birtualean jasotzen dut, eta doan, lehen etxeko postontzian jasotzen nuen.

Segurua da?

Gutiz segurua da. Kontuan izan Osakidetza eta bestelako igorleek informazio konfidentziala bidaltzen dutela. Beraz, erabiltzaileek jakin behar dute jakinarazpen horietarako sarrera eurek bakarrik dutela.

Herritarrendako zein onura du?

Batetik, erakunde eta banketxeen jakinarazpenak on line jasotzea eta norberak kudeatzea. Hala, etxeko postontzian ez da pilaketarik izaten eta herritarrek ez du jakinarazpen guztiak batu eta artxibatzeko lanik hartu behar. Metapostak denbora aurreztu eta bizitza errazagoa egin nahi die herritarrei. Nahi den momentuan eta edonon, ordenagailu, tableta edo mugikorrak bidez dauzka eskura dokumentuak. Bestetik, norberak nahi dituen dokumentuak igotzeko aukera ere badauka, sinadura elektronikoa bermeararekin eta administrazio publikoaren legezkotasunarekin. Esaterako, etxebizitzaren eskriturak igo daitezke. Herritarrendako gutiz doakoa eta segurua dela azpimarratu nahiko nuke.

Eta enpresendako onurak zeintzuk dira?

Enpresendako onura handiena da kostuak asko murrizten zaizkiela. Geroz eta enpresa gehiagok erabiltzen



Aitor Velasco, Metaposta zerbitzu elektronikoaren zuzendaria, bulegoan.

dute eta onurak geroz eta gehiago dira, aldi berean. Posta bidezko bidalketa arruntarekin alderatuta, %80 aurrezten dute. Gainera, ingurumenaren aldeko apustua oso handia da. Esan ere, modu honetan, bezeroekin hartu-eman handiagoa dutela enpresek. Hala, enpresa klik batera dago bezeroari beste produktu asko eskaintzeko. Marketen ikuspegitik abantaila asko ditu.

Metapostak legezko frogabalia dauka?

Legeak Sinadura Elektronikoa Onartuari ematen dizkion abantaila guztiak ditu Metapostak: egiazkotasuna, osotasuna, isilpekoasuna eta ez-gaitzesteko ahalmena, hain zuzen. Horregatik, sistemaren esku utzitako mezuen izaeraren bermea du. Igorlearen eta jasotzailearen nortasunaren egiaztasuna sistemaren esku utzitako mezu edo dokumentu orotan du. Eta noski, egiaztasuna, sistemaren esku utzitako mezu edo dokumentu oro bidaltzerakoan eta jasotzerakoan ere badauka. Horregatik, herritarrek euren legezko dokumentuak lasai igo ditzakete euren ordenagailutik Metapostara. Pasaporteek, etxeko eskriturak edota bestelako dokumentu administratiboek balio legala izango dute, eta, gainera konfidentzialtasuna bermatuta izango dute.

Ze urrats eman behar da izena emateko?

Segurtasuna bermatu gura dugunez, erabiltzaile guztiak identifikatu behar ditugu. Kontuan hartu behar dugu Iberdrola edo Osakidetza moduko enpresek bidaltzen dituzten jakinarazpenak konfidentzialak direla. Izena emateko hiru bide daude: lehena, eta momentuan egin daitekeena, on line bankaren bitartez izena ematea da. Metapostaren barruan dauden bankuak izan behar dute –Kutxa Bank, Bankoa, IparKutxa eta Euskadiko Kutxa–. Bigarren aukera, eta hori ere denbora errealean egin daitekeena, gure sisteman onartutako sinadura elektronikoko ziurtagiriaren bitartez izena ematea da: NA elektronikoa, Izenpe, Ona, Camerfirma, Ceres edo EHU eta Osakidetza ziurtagiri digitalen bitartez eman daiteke alta. Eta hirugarren bidea aukeratuz gero, KZgurena jo beharko genuke. NA arrunta eramatea nahiko da. Kasu horretan, ez da denbora errealean altarik ematen. Izan ere, erabiltzaileak identifikatu behar du sistemak; horren ondoren, mugikorrera iristen den PINaren bitartez kontrastatu eta alta eman behar da.

Debagoienean abian da.

Mondragon Taldea da gure bultzatzaile nagusia. Pack Pyme ekimenari esker 30 kooperatibak erabiltzen dute Meta-

posta –Fagor, Mondragon Lingua, Ikerlan eta Danobat, besteak beste–. Dagoeneko 30.000 herritarrek jasotzen dute nomina Metapostan. Laster, gainera, Lagun Aro eta Osarte ere Metapostaren parte izango dira.

Zein da une honetan egiten duzun balantzea?

Pack Pyme esker, edozein enpresa, handi nahiz txiki, segurtasun osoz Metapostaren parte izatea nahi dugu. Herritarrek modu erraz eta doakoan gure sistemaren abantaila izatea da asmoa. 18 hilabete daramatzagu martxan eta balantzea oso positiboa da. 30.000 biztanlek erabiltzen dute Metaposta, Interneteko gordailu elektronikoa. Gainera, punta-puntako 30 enpresaren babesa daukagu; eta Pack Pyme ekimenari esker, 70 enpresa ertain eta txiki daude integratuta gure zerbitzuan.

EROSOA

"Metapostak bizitza erraztu eta denbora aurreztuko dizu"

30

"Mondragon Taldeko 30 kooperatibak erabiltzen dute"

Unai Sordo | CCOO sindikatuko Euskadiko idazkari nagusia

"Ez dugu nahi greba orokorra liturgia edo inoren justifikaziorako ekimen bihur dadin"

- Erkidego osorako zerga estrategia bakarra beharrezkoa dela dio Unai Sordok
- "Itun fiskal orokor eta bateratua behar dugu, gehien dutenek gehiago ordain dezaten"

ENEKO AZKARATE | BILBO

CCOO eta UGT sindikatuek beste greba orokor baterako dei egin dute, eta, oraingoan, ELAk eta LABek ez dute bat egin. Hirugarren greba orokorra da azaroaren 14koa, ELAren eta LABenetik hilabete eta erdi eskasera. CCOO-ko Euskadiko idazkari nagusi Unai Sordok hitz egin digu grebarako arrazoiez.

Azaroaren 14an beste greba orokor bat...

Batzuk badira, baina ekonomia-
ren hondamenak eta langileen eta herritarren gehiengoaren eskubideetan urraketak horretara behartu gaitu. Greba honek badu balio erantsi bat, gainera: Europa osora zabaltu da.

Oraingoan, ze aldarrikatu nahi duzue, bereziki?

Lehenbizi, eskubide sozial eta laboralen desagitea dakarren doikuntza politika horien aurrean planto egiten dugula. Urte askoko esfortzuarekin lortutakoa deuseztatzen ari dira eta gobernuak darabilten politika ekonomiko honek langabezia eta krisia areagotzea dakar. Beste politika ekonomiko bat aldarrikatzen dugu: errenta handiei eta kapitalekikoei zerga politika bortitza ezartzea eskatzen dugu; enpresaburu eta langileen arteko lan harremanak orekatuagoak izatea eta Europako Iparraldeko herrialdeetako finantza erakunde-
deen interesei erantzuten dieten politikak amaitzea. Hondamen eta suizidio ekonomikora garamatzate politika hauek.

Ze erantzun espero duzue?

Erantzun zabala. Europa mailako deialdia da eta horrek beste perspektiba bat ematen dio greba egunari. Bai Euskadin, bai Estatuan eta baita Europako beste herrialde batzuetan ere, mila-lagunek bat egitea nahiko genuke.

Hego Euskal Herrian, aurten, hirugarrena izango da. Ez dago grebaren eragina, indarra, desagiteko arriskua?

Ez dugu nahi greba orokorra liturgia edo inoren justifikaziorako ekimen bihur dadin. Uste dugu greba deialdiak eszenatoki ezberdinetan kokatu behar direla, eta, testuinguru honetan, non erabaki ekonomiko eta politiko orokorrak esparru globaletan hartzen diren, nahi dugu lokale-
tik globalera erantzun. Herrian hasi eta Europaraino, erantzun zabal eta bateratua eman behar zaio eraso honi.

Herritarrengan zer nabaritzen duzue?

Denetariko erantzunak daude: batetik, haserre, samina, ego-
nezina sumatzen ditugu. Oso injustua da gertatzen ari dena, ze krisi hau ez baitute herritarrek sortu, baina bai ari gara denok ordaintzen. Egia da, bestalde, beldurra ere sumatzen dugula: hainbat enpresa zailtasunekin dabil eta lan barik geratzeko arriskua gertu ikusten dute lan-
gileek. Uste dugu egoera honek bi eratako erantzunak ekar ditzakeela: batetik, barrura, etxekora, gertuko esparrura, begiratzea, ixtea; bestea da elkarrekin, bate-
ra, modu koordinatuan, eta pertsona ezberdinen arteko batura-
rekin, erantzutea. Azken honen aldekoak gara. Alternatibak badira.

Ze alternatiba?

Gertuenetik hasita, zerga poli-
tika ezberdinak bultzatzea, gehi-
go dutenek gehiago ordain deza-
ten. Bestetik, enpresaburuen eta
langileen artean oreka handiagoa
behar da, lan hitzarmen kolekti-
bo duinak sinatzeko. Eta sek-
tore publikoak bultzatu behar
du jarduera ekonomikoa, enpre-
sek finantzazio arazo handiak
dituztelako, une honetan, eta ez
direlako ekonomiaren motor edo
traktore. Bestalde, ezin dugu
ahaztu hondamendira garamatza-
ten politika hauek guztiak
Europa iparraldetik bultzatu
dituztela, eta demokratikoak ez
diren erakundeetatik, gainera.
Merkelek dio bost urtez berdin
jarraitu beharra dugula. Ezin
dugu hori onartu. Beste bost
urtez jarraituz gero, pobrezia,
miseria, lanik eza... jasanezin
bihurtuko dira. Alternatibak
behar ditugu. Arazoak dituzten
herrialdeak ezin dira utzi espe-
kulatzaileen mendean. Ekonomia
eta lana bultzatzeko politikak
behar ditugu eta Europako
herrialde ahaltsuek bultzatu
behar dituzte politika berri
horiek. Demokratizatu egin behar
da espazio europarra; bestela,
diru publikoak beste erakunde
ez demokratikoek baldintzatuko
dute.

Zerga politikak aipatu dituzu. Ze iruditzen zaizu euskal ogasunen zerga politika?

Batzuk egokiak izan daitezke, baina ez dira nahikoa. Estrategia orokorra behar dugu hiru lurralde-
etarako, harmonizazioa beharrezkoa da eta, horretan, Eusko Legebiltzarrak protagonismoa behar du. Ezin dezakegu hiru ogasun ezberdin izan, diru publi-
koak batzeko hiru ikuspegi ezber-
din izan... Are gehiago, Europa



Unai Sordo, Bilboko CCOOren egoitzan, grebarako dei eginez. | GOIENA

"Langile klase izaerari lehentasuna eman behar zaio, batera arituta"

"Giza paradigma aldatzea nahi dute, eta hori ez da onargarria"

"Argi geratu da Raxoiren lan erreformak ez duela lanik sortzen"

"Gizarte ehuna desagiten ari dira, eta hori oso arriskutsua da"

mailan ere harmonizazio edo bateratasun fiskala bultzatu behar da. Itun fiskal orokorra behar dugu, gehien dutenek gehiago ordain dezaten.

Legebiltzarra eta Jaurilaritza aurki berrituko da. Hortik etor daitezke politika berriak?

Lehentasun kontua da. Errealitateak behartuta, politikariak erabaki egokiak hartu beharrean izango dira. Lehenengo, dirua; gero, forua. Estrategia bakarra beharrezkoa da erkidego osora-
ko.

ELAk eta LABek grebari ezetz esan izana zela baloratzen duzu?

Sinestezina da Euskadiko lehen eta hirugarren sindikatuek bat ez egitea Europa mailako mobilizazio honekin. ELAk, gainera, Europako sindikatuen konfederazioan babestu egin zituen mobilizazioak, baina orain atzera egin du. Ulergaitza. Langile klase izaerari lehentasuna eman beharrean, beste arrazoi batzuk lehenetsi dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoa da langabezia gehien hazi den erkidegoa.

Langabezia drama handi bat da. Argi geratu da Raxoiren Lan erreformak ez duela lanik sortu eta lana erraz eta azkar deuseztatzea ekarri duela. Ekonomia pribatuak zailtasun handiak dituenean, sektore publikotik halako murrizketak egiteak dakar langabezia handitzea.

2017ra edo 2018ra arte ez ei gara krisitik aterako...

Hala da. Gauzak aldatu egingo dira, baina ezin jakin zelan. Bidegurutze batean gaude. Norbaitek erabaki du ekonomia globalizatu honetan Europa lehia-
korra izan dadin, gastu soziala eta ongizate estatua murriztu edo deuseztatu egin behar direla. Eta horretan gaude. Orain, erantzun egin behar da. Krisi hau koartada bezala erabiltzen ari dira ekonomia, politika eta giza ereduak goitik behera aldatzeko. Giza paradigma aldatzea nahi dute. Eta ez da onargarria. Horregatik dauka zentzua azaroaren 14koak.

Dagoeneko langabezia dauden langabe askok eta askok ez dute laguntzarik jasotzen. Dramatikoa da egoera...

Eta okertu egin daiteke izugarri beste bost urtez hala segitzen badugu. Gizarte ehuna desagiten ari dira. Giza mugimendu aurrerakoien orde, mugimendu edo talde atzerakoi eta erreakzio-
arioak ugaltzen ari dira eta hori oso arriskutsua da.

HERRIAK

LEINTZ GATZAGA

San Milixanetako eskulangintzen feriak 20 urte beteko ditu domekan

- 14 euskal artisau elkartuko dira pilotalekuan, eta 'sorginek' taloak eskainiko dituzte
- Herritar talde batek sagardoaren gaineko erakustaldia egingo du plazan, iaz legez

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

San Milixan, ardikixa jan eta aketeixan, dio Gatzagako esaerak, San Milixan egunean ardia hil, buzkantzak egin eta ondoren saltoka ospatzen zela. Ardikirik ez, baina sagar zukua, talo goxoak eta artisauen lanak bai, horiek izango dira domekan Gatzagan, San Milixan eguneko 20. eskulangintzen ferian (10:00-14:30).

Gatzagarrek eta Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako artisauak egingo dute bat. Amurrio, Hernani, Errenteria, Pasaia, Donostia, Zarautz, Bikuña (Arab) eta Berbinzanako (Nafarroa) artisauak eta Debagoienekoak –Bergarako E-mendi artelanak eta Arrasateko Imanol Aranburu zeramikagilea eta Felix Barcina egurgilea– elkartuko dira eta erakusmahaietan izango dituzte bitxiak, larruarekin egindako lanak, harrietan egindako labar pinturen erreplikak, eskuz margotutako arropak, terapiarako zakutxoak... Gainera, Eskuz larrugintza herriko artisau denda zabalik egongo da Pilar kalean.

Pilotalekuko egonaldia goxatzeko Sorginak emakume elkar-teko kideek taloak eta edatekoa eskainiko dituzte.

Postuak eta argibide guneak

Herritarrek, oster, iazko erakustaldia errepikatzea erabaki dute, hau da, sagardoaren prozesua: sagarrak pilatu; txikitu; prentsatu; eta sagar zukua atera. Hori guztia plazan izango da.

Eta plazan bi postu ere jarriko dituzte: batetik, Dorletako Txirrindulari Lagun Elkarteko kideek txirrindularitzaren gaineko erakusketatxoak: bizikleta ezberdinak, Dorletako santutegian dauden hainbat kamiseta...; eta bestetik, Antzuolako Anelkar GKEko kideek bidezko merkataritza produktuak saltzeko.

Kultur etxean, oster, Baserri Sarea egitasmoaren gaineko argibideak izango dituzte herritar eta bisitariek. Deba Garaia Debagoieneko landa garapenerako elkartearen erakusketa da, eta horren helburua Baserri Sarea zer den ezagutzea ematea: kontsumo taldeak, zerbitzuak eta beste hainbat kontu.



Hainbat herritar sagarraren gaineko erakustaldia egiten plazan, iazko San Milixan jaietan. | GOIENA

Gatzagako sagardo goxo

Iaz legez aurten ere sagardoa zelan egiten den erakutsiko du herritar talde batek, zazpi bat lagun ibiliko dira lanean. Busturia (Bizkaia) aldeko sagarrak ekarriko dituzte plazara, 500 kilo inguru, eta bertan txikitu; prentsatu ondoren ateratako sagar zukua edateko aukera izango da.

Gainerakoa 130 litro dituen kupelean gordeko dute hainbat hilabetetan. Iazkoa San Juan bezperan eta Andramari jaietan edan zuten herritarrek, antolatzaileen esanetan "oso gustura edan ere".

San Milixan eguneko nondik norakoak

14 ARTISAU

Euskal Herriko hainbat herritatik etorritako 14 artisau elkartuko dira pilotalekuan, tartean hiru debagoiendar.

'SORGINAK' TALOGILE

Sorginek talo goxoak eta edatekoa eskainiko dituzte.

TXIRRINDULARI ELKARTEA

Dorleta Txirrindulari Lagun Elkarteko kideek erakusketa egingo dute: 20 bizikleta sasoi ezberdinetakoak, Dorletan dauden kamisetak...

GATZ MUSEOA ZABALIK

Gatz museoa zabalik izango da feriak iraun bitartean; bisita gidatuak egingo dituzte.

BASERRI SAREA

Deba Garaia elkarteak Baserri Sarea egitasmoaren gaineko argibide gunea jarriko du kultur etxean.

ANELKARREK POSTUA

Antzuolako Anelkar gobernuz kanpoko erakundeak bidezko merkataritza produktuen saltokia jarriko du. Bideberri mankomunitateak laguntza eman dio Afrikan abian jarritako bi proiektutarako.

AUTOBUSA JOAN-ETORRI

Eskoriatzatik Gatzagara joan etorrian ibiliko da autobusa 20 minuturo (10:00-14:30). Eskoriatzako geroalekuak: Akeita eta Aranburuzabala.

Ukenduak egin eta eraman

Nafarroako Elbeteko Nagore Intxaustik ukenduak zelan egin irakatsiko du (11:00): belarrak oliotan jarri eta berotu propietateak jasotzeko; eta gero argizariarekin nahastu. Ilena, arnika, erromeroa, zolda belarra eta beste hainbat ekarriko ditu ukenduok egiteko.

Hortzak garbitzeko pasta egiten ere irakatsiko du; batetik, propolia erabilia eta bestetik, menta eta te zuhaitzaren esentziarekin. Norberak egin eta gero norberarentzat izango dira.



Arrasateko azoka biziberritzeko egitasmoaren lehenengo faseko une bat . | JOKIN BEREZIARTUA

rrerandik urruti: "Bidezko merkataritzako denda Eroskin, Emauseko bigarren eskuko denda Nafarroa etorbidean, Jakioneko produktuak denda jakin batzuetan... Guztia toki berean egoteak bideragarri egiten du gure xedea lortzea". Hipotesi izatetik forma hartzen ari zen proiektu izatera igaro zen, modu horretan, azoka biziberritzeko plana.

Prozesu parte-hartzaile berria

Baina galdera sortu zitzaizen lan egiteko moduari dagokionez. "Nola heldu ongizateari jakinda aro berri batera goazela eta ezagututa Udalaren baliabideak ez direla nahikoa izango?" Herritarren inplikazioa funtsezkoa zela jakin bazekiten, eta ez zuten zalantzarik eduki: herri ekimen bidez jardun beharko zuten.

Planak azoka funtzionalagoa egin gura du, askotariko erabilera eman. Hala, eragile ezberdinekin jarri ziren harremanetan, baita herritar ugarirekin ere. "Eta egun azokaren erabiltzaile handienak diren baserritarrak eta postua dutenak ahaztu barik". Ideia zein proposamenak jaso zituzten. 2012ko martxoa ezkerero lau lantalde aritu dira prozesuan lanean: elikadura eta lehen sektorea; kontsumo arduratsua eta produktu eraldatuak; herrigintzarako plaza; eta aisialdia eta jolasa.

"Ekimenean egon behar zuten guztiak egon dira: herri eragileak, udal teknikariak, norbanakoak... guztira, 400 bat pertsona. Emaizta oso politik izan dira eta, gainera, herrigintzari begirako eredu berri bat dagoela iruditzen zaigu. Hau da, proiektu komun bat aurrera ateratzeko orduan, Udalaren eta herritarren baliabideak harreman ez hierarkiko batean jartzen dituen eredu bati eman diogu bidea, eta hori ere garrantzitsua da."

Azoka biziberritzeko plana bigarren fasean sartuko da

Ideietatik proiektuari forma ematera igaroko dira GUreztatuko kideak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Arrasateko azoka birpentsatzeko ekimena da GUREztatu, eta bigarren fasean sartuko da azaroaren 13an, martitzena. Izan ere, iaz hasitakoari jarraipena eman gura diote GUREztatukoek, eta herri-tarrak animatu gura dituzte udal-letxeko osoko bilkuren aretoan 18:30ean egingo duten saio ireki-
ra gerturatzerara.

Proiektuari forma emango
zaio bigarren fase horretan, orain
arte moduan, prozesu parte-har-
tzaileari eutsita. Hainbat helbu-
ri izango dituzte oraingoan:
azokaren kudeaketa ereduak era-
baki beharko dute; finantzazioa;

proiektu arkitektonikoa nola bideratu ikusi beharko da; eta identifikatutako proposamenak planifikatuko dituzte.

Kontsumo arduratsua

Bere egunean, Bagara ekimenak hasierako fasean bederatzi gizar-te arlo detektatu zituen: etxebizitza, kultura, gazteen konpromisoa... Horiatariko bakoitzean ikerketa ekintza sustapen taldeak antolatu ziren, urtebeteko epean diagnosi bana egin zuten eta proiektu zehatzak identifikatu zituzten.

Hala gogoratzén du proiektuan
murgilduta egon den Lankiko

Igor Ortegak: "Nekazaritza eta Kontsumo Arduratsuko taldeetatik ikusi zen arlo bakoitza moduren batean indartu behar zela, eta zenbait ideia garatzen hasi ziren. Kasualitatez, Udalarekin harremanetan ipini eta hark azokaren gainean zeukan kezka azaldu zigun. Hala, bi premia horiek bat egin zuten". Azokan bertan kontsumo arduratsuaren gune nagusi bat sortzeko ideia jaio zen modu horretan.

Orduan, herritarrek zituzten beharrak aztertzen hasi zirela gogoratzen du Bagarako Nagore Iraolak: "Egindako aurre-diagnosiari begiratuta, kontsumo ardu-

ratsua bultzatu gura bagenuela, bideak herritarren eskura ipini behar zirela ikusi genuen". Balia-bideak egon badaudela bazekiten, baina bakoitza toki batean, elka-



Salgai daude zarzuela ikusteko sarrerak Kutxan eta Amaian

Ipini dituzte salgai azaroaren 17an, 18an, 23an eta 24an taularatuko den *Gigantes y Cabezudos* zarzuela ikusteko sarre-rak. Kutxako webgunean edota Amaia antzokiko leiha-tilan eskuratu ahal izango dira 17 euroren truke (Inter-netetik erosiz gero, 0,70 euro gehiago).

Datorren astean ireki gura dute Bizkaia etorbideko igogailua

Itxita jarraitzen du Bizkaia etorbideko igogailuak. Urriaren 28an zenbait apurketa izan zituen. Udalak adierazi duenez, Orona enpresakoek eskatuta daukate beharrezko materiala, eta jasotzeaz batera hasiko dira konponketak. Bada, datoren astean irekitzeko asmoa du Udalak.

'Arrasateko iragana astintzen' hitzaldi zikloa egingo da azaroan eta abenduan

Arrasate Zientzia Elkarteak antolatuta, Kulturaten izango dira, 19:00etan

Z.V.D.M. | ARRASATE

Arrasate Zientzia Elkartek *Arrasateko iragana astintzen* hitzaldi zikloa antolatu du. Arantzeta Otadiuk adierazi duenez, "Arrasateko ondare historikoa ezagutaraztea izango da, batetik, helburua, astronomia herritarrei gerturatzea eta Arrasateko historiaren transmisioaren garrantzia adieraztea".

Historiaurretik gaurdaino

Baita azken tximinoa ere... Arrasateko historiaurrea hitzaldian, Alvaro Arrizabalaga antropologoak hartuko du hitza azaroaren 13an. Urte mordoxka daramatza Labe Koban eta Lezetxikinan industaketak egiten; ongi ezagutzen duen gaiaz egingo du berba.

Bigarren saioa hilaren 20an izango da: *El acero de Mondragón y las espadas de Toledo*. Gerardo Rosado metalurgian aditua ari-



Atzo aurkeztu zuten hitzaldi zikloa Kulturaten. | ZVdM

tuko da bertan. Rosadok urtetan zehar Udalatxeko altzairuaren propietateak ikertu ditu.

Bestalde, abenduaren 4an Anton del Campo ingeniari eta kosmologian adituak euskal artearen eta zeruko gorputzen arteko

erlazioaz egingo du berba: *El cielo desde Mondragón*.

Eta, azkenik, Josemari Velez de Mendizabal abenduaren 11n Miguel de Madinabeitia historialari arrasatearraz arituko da Kulturaten.

A
B
A

Doako ikastaroak bizikidetzari buruz

Azaroak 12, 19 eta 26 (astelehenak)
18.30etik 21.00etara
Kulturaren / ARRASATE

Informazio gehiago eta izen-ematea:
943 25 10 05

Bultzatzailea:


Gipuzkoako
Foru Aldundia

Leizola Nagusia
Leizola Nagusia eta Leizola
Leizola Nagusia eta Leizola

Antolatzailea:




Sonografos izan zen iazko txapelketako irabazlea. | GOIENA

Uste baino talde gutxiago arituko dira Zaldibarren

Hamahiru taldek bakarrik eman dute izena Zaldibarko 51. areto-futbol txapelketan, iaz baino bi gutxiagok

Z.V.D.M. | ARRASATE

Zaldibarko areto-futbol txapelketa 51. ediziora iritsi da aurten; uste baino talde gutxiagok hartuko dute parte 2012-2013 denboraldian. Bihar emango diote hasiera txapelketari, eta asmoa

da 2013ko ekainera bitartean aritzea; 23 jardunaldi egitea. Txapelketako antolatzaile Jose Anjel Tenaren iritziz, belaunaldi aldaketak eragin du parte-hartzaileen kopurua jaistea: "Gabiltzanak beteranoak gara, 16-28 urte bitar-

teko gazterik ez dago. Toki guztietan ari da gertatzen gauza bera, belaunaldi berriei beste gauza batzuk interesatuko zaizkie, ziurrenik".

Azken urteetan, Zaldibarko txapelketako parte-hartzaileen

Hitzorduek

ZAPATUKO PARTIDUAK

10:30 At. Betrayer - Sonografos

11:30 Aston Birra - Fidel & Discipulos

12:30 Iluntz - Iriztu

DOMEKAKO PARTIDUAK

10:30 Lasagabaster - Ostantz

11:30 Haizea's Weah - Iluna Tab.

12:30 Aldatz - Dribling

ESANAK

"Hogeita hiru jardunaldi egingo dira eta asmoa taldeek ahalik eta partidu gehien jokatzeta da"

JOSE ANJEL TENA | ANTOLATZAILEA

kopuruak beheranzko joera hartu du. "Gure asmoa da talde gutxi egonda denok ahalik eta gehien jokatzeta".

Zenbait ideia dituzte buruan antolatzaileek 51. ediziorako: Kopako bi partidu egitea, bi fase-tan banatzea...: "Ikusteke dago nola antolatuko garen". Zapatu eta domeka goizak Zaldibarren igarotzeko unea hasiko da, horrenbestez, bihar.

Santamasetan artisau azokan parte hartzeko epea ireki dute

J.B. / Z.V.D.M. | ARRASATE

Santamas Komisiñoak aditzez eman duenez, zabalik dago abenduaren 22ko artisau azokan parte hartzeko izen-ematea. Berritasunekin dator, gainera; izan ere, lehen aldiz webgune berrian eman ahal izango da izena (www.santamasak.com/), formularioa beteta: "Antolakuntzarendako zein artisauendako izena emateko prozesua erraztu" nahi izan dutela adierazi du Komisiñoak.

Webguenean bertan formularioa betetzeaz gainera, onartua izateko zein protokolo jarraitu behar den ere adierazten duen txostena jaits daiteke. Irizpideek, besteak beste, "Santamasetako artisau azokako lantaldearen egitekoa erraztea eta bertaratutakoei erakusketa ahalik eta erakar-garrien egitea da", bertan jasotzen denez.

Interesatuek azaroaren 16a izango dute izena emateko azken eguna. Bestalde, azaroaren 30ean jasoko dute postua jartzeko eskubidea izango duten antolakuntza-aren erantzuna.

ARRASATE

Etxe bat baino gehiago behe solairuak terrazakin

estudio edota bulegoa, jangela, egongela, trasteleku, umeentzako jolasteko logela... bihurtu daitezkeen gune zabalekin

UTE URIBARRI

GUZTIA BERRIAREKIN: **sukia GEDI**

LKS INFORMAZIOA ETA SALMENTA **943 71 22 59**

PROMOZIOAREN FINANTZAKETA ETA ABAL EMATEA **kutxa**

Goenbulun gasolindegia bat egiteko aukera ireki du Udalak Plan Orokorra moldatuta

- Planari bost moldaketa egin dizkiote eta osoko bilkurara eroango dituzte onartzeko
- Gainerako moldaketek Epele, San Juan, Erregetxo plaza eta teilatupeko leihoei dagozkie

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Hiri Ordenazioko Plan Orokorra-
ren lehen moldaketaren prozedu-
ra amaitzeaz da. Duela hiru urte,
2009ko maiatzaren 25ean onartu
zen indarrean dagoen Plan Oro-
korra, eta Udalak bost aldaketa
gingo dizkio. Hain zuzen, datorren
astelehenean ezohiko osoko bil-
kura egingo dute moldaketok
onartzeko.

Aldaketetako bat herritar tal-
de batek egindako eskariari erant-
zutea dator. Hain zuzen, Urteaga
kalearen amaieran, GI-632 errepide-
arekin lotzen den lekuan, Goen-
bulun, gasolindegia jartzeko auke-
ra helarazi zuten Udalerak. Lehe-
nago, aspalditik hutsik zegoen
ehun enpresa bat zegoen han, eta
baita errota zahar bat ere. Biak
ala biak oso egoera kaskarrean
zeuden eta lantegia bota egin zuten
1994an. Errota zaharraren honda-
rrak oraindik han daude. Udalak
herritarren eskaria aintzat hartu-
ta, moldatu egingo du plana, lur
haiek lurzoru urbano moduan
sailkatzeko, Zerbitzu Azpiegi-
turen Sistema Orokorra kalifikazioarekin,
gasolindegia egin ahal izateko.



Irudiko errota zaharra dagoen orubea da gasolindegirako aukeratutakoa. | M.B.

Bigarren aldaketa teilatupeko
guneen erabilerari dagokio. Zen-
bait irizpide finkatzea izan da
asmoa, teilatuean bizilekuak
egoki daitezkeen edo ez eta teila-
tuetan egin daitezkeen leiho kopu-
ruak zehazteko, besteak beste.

Hirugarren aldaketa Gipuz-
koako Foru Aldundiak 2009ko
uztailaren 21ean onartutako Gipuz-
koako Hiri Hondakinen Azpiegi-
turen Lurralde Sektore Planaren
ondorioa da. Plan horrek konpos-

tatze planta eta transferentzia-gu-
nea aurreikusten ditu Epelen, eta
ondorioz, Bergarako Plan Oroko-
rra Aldundiaren Lurralde Sektore
Planak jasotakora moldatu
beharra izan dute.

Laugarrena Erregetxo plaza
inguruari dagokio, A-24 deritzon
guneari, eta mugak aldatzea izan
da helburua: Bidekurutzetako
eraikin bakoitien ortu zati batzuk
Hirigune Historikoko eremuan
sartu dituzte.

San Juan auzoko lursail batzuei
dagokie bosgarren aldaketa. Base-
rri bateko lursail batzuei sailka-
pena eta kalifikazioa aldatuko
zaie. Torunsa lantegiak aurrei-
kusita zeukan handitzea ez du
gingo, eta ondorioz, lurzoruen
jabeek eskatuta, lurrok deskali-
fikatu egingo dira eta zoru ez
urbanizagarri kalifikaziora itzu-
liko dituzte, plana onartu aurre-
tik zeuden moduan.

Herritarren parte-hartzearekin

Moldaketok egiteko prozesuan,
Plan Orokorrean parte hartu zuen
Aholku Batzorde berak hartu du
parte. Herritarrek, sindikatu eta
alderdi politikoetako ordezkariak
eta elkarteetakoek osatzen dute
batzorde hori. Apirilean egin zuten
lehen batzarra, eta ondoren, Uda-
lak maiatzeko bilkuran lehen
onarpenera eman zion planaren lehen
moldaketari. Jendaurrean ikusgai
egon ostean –bi alegazio egon ziren–
Aholku Batzordea berriz batzartu
zen uztailean, eta, txostena ontzat
emanda, osoko bilkurara eroango
dute astelehenean, behin betiko
onarpenerako.

Probako yoga ikastaroa egongo da astelehenean

Agorrosin Ekintza Gunean
14 urtetik gorakoendako hiru
yoga ikastaro antolatuta dituz-
te: astelehen eta eguaztenetan,
16:00etan (hiru plaza daude
libre); eta martitzen eta egue-
netan, 10:30ean eta 20:00etan
(leku guztiak libre daude). Yoga
zer den probatu nahi dutenenda-
ko, debaldeko saioa egongo da
astelehenean, 18:30ean. Izena emateko
edo informazio gehiagorako, jo
Agorrosin Ekintza Guneareko
edo deitu 943 77 70 95 zenba-
kira.

Bihar estreinatuko dute 'Erlauntzaren sekretua' Zabalotegin

Bergarako Musika Eskola
ikuskizun berriarekin dator,
Erlauntzaren sekretua izeneko
ipuin musikatuarekin. Esko-
lako txikiengan pentsatuta
prestatu dute proiektu berria,
5 eta 9 urte artekoengan, eta
eurek taularatuko dute. David
Azurtza zuzendariarena da
musika eta Jose Mari Iturralk-
dek idatzi du ipuina eta Musi-
ka Eskolakoendako propio
egin dute. Saio bikoitza egin-
go dute Zabalotegin: 18:00etan
eta 19:00etan, hain zuzen ere.
Sarrera doan izango da.



GAZTAINERRE
eguna

San Martin Agirre
herri eskola
BERGARA



"Gaztainerre eguna"

Aspaldiko ohiturarekin jarraituz aurten ere
azaroaren 9an **GAZTAINERRE** ospatuko
dugu eskolan.

Arratsaldeko 15:45ean irakasle eta
ikasleak patioan elkartuko gara
gaztainak jan eta danbolinaren inguruan
abesteko.

16:30ean ospakizunean parte hartzeko
aukera izango dute senitartekoek ere.





Aurkezpenaren ostean talde argazkia egin zuten bertaratutakoek. | ENARA MINGUEZ

Sortu eratzeko prozesua abiarazi dute eta hilaren 24an izango da lehen batzarra

Oinarri ideologikoak zehazteko bilera izango da, 10:00etan, Irizar jauregian

G.A./M.B. | BERGARA

Datorren urteko otsailaren 23an Sortu talde politiko berria sortzeko Lehen Kongresua egingo du Ezker Abertzaleak, eta, horretarako, Eratze Prozesua abiatu du. Lau hilabete iraungo duen prozesu horren helburua da datorren urtetik aurrera Ezker Abertzalearen erreferente politiko berria izango den indar politikoaren ezaugarri nagusiek nola-koak izan behar duten argitzea eta erabakitzea. Horretarako, hiru eztabaida nagusi –eratze

prozesuaren gaineko txostena ere atera dute- eta barne hauteskunde egingo dituzte, eta asteon eman dute horren berri, Irizar jauregian egindako aurkezpenean.

Lehen batzarra azaroaren 24an izango da, 10:00etan, Irizar jauregian, eta hor, oinarri ideologikoak eztabaidatuko dituzte; abenduaren 15ean, ildo politikoa eztabaidatuko dute; eta urtarriaren 26an, antolaketa eta funtzionamendua. Otsailaren 9a, berriz, barne hauteskunde eguna

izango da eta 23an egingo duten kongresuan eratuko da Sortu.

Atzera begirakoa

Irizarren egindako aurkezpenean, Yolanda Juaristik eta Jesus Mari Garitanok ezker abertzalearen ibilbideari erreposoa egin zioten zenbait argazkiz lagunduta. Aurkezpena borobiltzeko, Mikel Zubimendi Ezker Abertzaleko kide eta legebiltzarkide izandakoa ere gonbidatu zuten. Indarrak metatzearen garrantzia egin zuen berba, besteak beste.

Pol-Poleko beteranoek urteko azken irteera egingo dute 18an

Pol-Pol mendizale taldeko
beteranoek urteko azken irtee-
ra egingo dute hilaren 18an,
Goizueta aldera. Egun horretan
08:00etan abiatuko da autobusa
Fraiskozuritik. Añar-
betik Goizuetarako ibilbidea
egin ostean, urteko bazkaria
egingo dute Goizuetan.

Gaztaina-erre Eguna egingo dute gaur San Martin ikastetxean

Urtero egiten duten moduan, Gaztaina-erre Eguna egingo dute San Martin ikastetxekoek gaur. 15:45ean batuko dira eskolako patioan gaztainak jateko eta abesteko. Familia-koei ere 16:30ean bertaratze-ko gonbita egiten diete.

Josu Okinaren erakusketa Aroztegin hilaren 25era arte

Afizio eta Bizio izeneko erakusketa jarri du margolari bergararrak Aroztegin. Santa Ana jauregian egin zuen erakusketatik 11 urte pasa dira, eta eginda zeuzkan lanekin beste erakusketa bat egiteko gogoz zegoen. Askotariko lanak daude.

OHARRAK

1943AN JAIOTAKOEK BAZKARIA EGINGO DUTE

Azaroaren 17an egingo dute, Azpeitxi jatetxean, 14:30ean. Izena emateko deitu zenbaki hauetara: 943 76 16 13 (Aran-tza Askasibar), 697 29 42 67 (Juan A. Fernandez) edo 645 72 27 10 (Carlos Arrondo). Izen-ematea hilaren 15ean bukatuko da.

1972AN JAIOTAKOAK BAZKARIA EGINGO DUTE

Azaroaren 17an egingo dute, Tartufo jatetxean. Etxagi edo Bule tabernetan eman behar da izena, 10 euro aurreratuta. Azaroaren 11 da izena emateko azken eguna.

**1964AN JAIOTAKOEK
KINTADA EGINGO DUTE**

Azaroaren 24an egingo dute, Erreki jatetxean. Ikuz gabitegi-zerbitzuan eman behar da izena –Udal Azokako lehen solairuan dago–, hilaren 17a baino lehen, 10 euro aurre-ratuta.

1939AN JAIOTAKOEK BAZKARIA EGINGO DUTE

Azaroaren 24an egingo dute bazkaria, Pertxa elkarteak, 14:30ean. Bazkarirako izena emateko, deitu 943 76 24 79 (Eulalia Elgarresta) edo 943 76 28 58 telefono zenbakira (Pello Garitano).

Promociones
Erregetxo Plaza
 Bergara

Bergarako hirigune historikoan
 63 etxebizitza, libre, tasatu,
 BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:
 ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18
 LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23

- ✓ KOKAPEN EZINHOBEA
- ✓ 1,2,3,4 LOGELAKO ETXEBIZITZAK
- ✓ LEHENENGO MAILAKO MATERIALAK
- ✓ SUKALDE EKIPATUAK, ARMAIRUAK

Dagoeneko **zintzilikatu dugu**
informazio guztia gure webgunean
 Sartu eta ikusi
www.promocioneserregetxoplaza.com



Ikusi Makusi taldeko lagunak entseatzan. | MIREIA BIKUÑA

Ikusi Makusi taldekoen zortzigarren antzezlan

'¿Dónde está la pierna del alcalde?' estreinatuko dute gaur, egubakoitza, erretiratuendako

M.B. | OÑATI

Pake Leku elkarteko antzerki taldeak lan berria estreinatuko du gaur, egubakoitza, 17:30ean, Santa Ana antzokian. *¿Dónde está la pierna del alcalde?* delako antzezlanaren lehen emanaldia erretiratuendako bakarrik egingo dute, gaztelaraz. Urtea bukatu aurretik, herritar guztienak saioa egingo dute.

Non dago hanka ortopedikoa?

Zortzi pertsonaia igoko dira oholza gainera, helburu bakar batekin: alkatearen hanka ortopedikoa topatzea, jaietako prozesioan parte har dezan. "Jaietako egun batean hanka ortopedikoa galtzen duen alkatearen bizipenak kontatzen ditugu. Parranda gau baten hanka galtzen du, baina ez daki non. Horren bila ibiliko gara ordu eta erdiko emanaldian", esan

digu taldeko zuzendari Asun Artzuagak.

Alkatearen hanka da Villarajada delako herrian kokatzen den antzezlanaren oinarria. Baina alkatea ez da oholztan agertuko. Bai, ordea, haren idazkaria, udaltzaina, emaztea, herritarrak... Guztira, zortzi pertsonaia.

Moldaketa lana

Orain arte Ikusi Makusikoek egindako antzezlanak eurek idatzi eta ekoiztutakoak izan dira. Oraingo hau Pedro Mario Herrero idatzitako lan baten moldaketa da; hain justu ere, *No le busques tres piernas al alcalde* lanarena. "Testuak Herroren lanean oinarritu ditut. Dekoratuak eta bestelakoak gure baliabideen arabera moldatu egin ditugu", esan digu Artzuagak.

Argi-kontsumoa aurreztearen aldeko apustua egin du Udalak

Argiteria publikoko 474 argi-puntu aldatuko dituzte; gehienak, herriguneko kale eta auzuneetan daude

T. MADINA/M.BIKUÑA | OÑATI

Herrigunetan eta industrialdeetan errendimendu txikia eta argi kutsadura handia sortzen duten argi-puntuak aldatzea erabaki du Udalak. Urriko osoko bilkuran, argiztapena hobetu eta kontsumoa aurrezteko erabakia hartu zuten. Udalak argiteria publikoko 474 argi-puntu aldatzea erabaki zuen, eta lanak esleitzeko deialdia hilaren 5eko Gipuzkoako Aldizkarian publikatu zuten. Interesa duten enpresek hilaren 20ra arte dute euren eskaintzak aurkezteko. Udalak zehaztu duen gehienezko aurrekontua ia 426.000 euro da, BEZik gabe.

Argiteriako aldaketekin aurreztuko den dirua argiteria sarea berritzeko erabiltzea proposatu zuen EAJk, eta Udal Gobernuak onartu egin zuen.

Argiztapen hobea

Errendimendu txikia eta kutsadura handia sortzen duten argi-puntuak aldatuko dituzte. Horien orde, led argiak eta argiteriaren kontrolerako sistema adimenduna ipiniko dituzte. Hainbat lekutan detektagailuak ipiniko dituzte, uneen uneko beharren arabera, argi-intentsitatea kon-



Bidaurreta ingurueta farolak aldatuko dituzte. | TXOMIN MADINA

trolatzeko. Hori horrela, pertsona edo ibilgailu baten mugimendua antzematen duenean, hurbiltasunaren arabera, argiak gehiago edo gutxiago piztuko dira. Gainera, egunak duen argi intentsitatearen arabera, argiak lehenago edo beranduago piztuko dira.

Argiteria sistema horrekin, energia-kontsumoa %70 aurreztu gura du Udalak, led teknologiak gutxiago kontsumitzen duelako, mantentze kostua txikiagoa delako eta oraingoek baino argiztapen hobea ematen dutelako.

EEEr dirulaguntza

Udalak aldatuko dituen 474 argi-puntuetatik 398, herri guneko kaleetan eta auzuneetan daude. Osinurdin, Fanderia eta Berezo industrialdeetan 76 argi-puntu aldatuko dituzte.

Hori horrela, Udalak, herri gunea eta hiru industriadetako argiteria hobetzeko egingo duen inbertsioari aurre egin ahal izateko Energiarako Euskal Erakundearen dirulaguntza eskatuko du. EEEtik inbertsioaren % 40 estaltzeko adina diru eskura daitekeela diote udal arduradunek.

Salgai Txantxikuko ikasle ohien bazkarirako txartelak

Gaur jarriko dituzte salgai azaroaren 24an ospatuko den Txantxiku Ikastolako ikasle ohien bazkarirako txartelak. 19 eurotan daude salgai Izarraitz, Ona, Luis, Aker eta Ongi tabernetan. Mountain bike irteera, triki-poteoa eta herri kirolak ere egingo dituzte hilaren 24an.

Fermin Muguruzaren 'Zuloak' dokumentala eta kontzertua gaur

Zuloak taldeak kontzertua emango du gaur gauean gaztelekuan, 22:30ean, On HC talde oñatiarrarekin batera. Horren aurretik, baina, Fermin Muguruzak zuzendutako dokumentala eskainiko dute. *Zuloak* izeneko ikus-entzunezkoa zinema aretoan emango dute, 19:30ean, eta sarre-ra 3,5 euro da.

Arantzazurako autobusen ordutegia aldatu egingo da

Oñati eta Arantzazu arteko autobusek neguko ordutegia izango dute domekatik aurrera. Apirilaren 1era bitartean iraungo du neguko ordutegiak eta tarte horretan ez da autobus zerbitzurik egongo eguerdian. Oñatitik lehena 07:30ean aterako da eta Arantzazutik azkena 18:00etan.



ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

1.181 ikusle 'Lo imposible' filmak

1.181 ikusle izan ditu *Lo imposible* filmak, bailarakoak tartean. 10 aldiz eman dute azaro hasierako zubian; zazpi emanalditan aretoa bete egin zen eta hirutan, ia. J.A. Bayonaren filmaren aurretik, *El intocable* zen aurtengo ikusiena; 400 ikusle izan zituen. Hala ere, Oñatin azken hamar urteetako filmik ikusiena 2003ko *La pelota vasca* dokumentala izan da; 1.249 lagunek ikusi zuten. *Aupa Etxebeste*, 2005ean, 1.118 ikuslek.

www.golenarent.com

- Era guztietako ibilgailuen alokagail.
- Ibilgailuen alokakua nahiz lantokiko etaberrak eraman dugu.
- Autoburuen ibilgailuak talde 90€ (BEZa barne)
- Alaportu-zerbitzu osoa hobetu

Goiena i-rent
ibilgailuen alokagail

943 71 96 02 / 619 44 71 70
Zebillaga auzoa 20 1.a ZM6 (Olasbun zentroa) • Oñati
info.golenarent@i-rent.es • www.golenarent.com

PATXI CASTRO

Era guztietako salgaien konpartekak
+
Tapaketa lekuak
+
Zurkete eta kanestrosak artikuluen menperak
+
Bosketak, inohak, makilak eta
943 71 71 66
639 01 66 66

Inauguratu dute kiroldegia erakundeetako ordezkariekin

Ikerne Badiola —Kirol diputatua— eta Kutzako ordezkariak izan ziren ekitaldian

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Atzo inauguratu zuten Ibarra kiroldegia. Iraila ezkerro zabalik egon arren, ekitaldi ofiziala egiteko zeukaten, eta atzo elkartu ziren Foru Aldundiko, Kutzako eta inguruko herrietako udal ordezkariak.

Dantzariak egin zieten ongie-torria gonbidatuei: Ikerne Badiola, Kirol, Kultura eta Gazteria diputatua; Asier Sarriegi, Aldundiko Kirol zuzendaria; Carlos Ruiz, Kutzako Gizarte Ekintzako zuzendaria; eta eskualdeko hainbat udaletako ordezkariak, tartean Inma Beristain Antzuolako alkatea; Arrasateko Joserra Askasibar eta Inma Larrañaga zinegotziak; eta Aretxabaletako zinegotziak.

Badiola Kirol diputatuak esan zuen "elkarlanaren fruitu" dela Ibarra kiroldegia, eta "harro sentitzeko" ekipamenduak dituztela aretxabaletarrek eta ingurukoak.

Kutzako Carlos Ruizek ere horixe berretsi zuen: "Harrituta geratu naiz zein ederra den eraikina ikusita; arkitektoak zoriondu gura ditut". Eta proiektu horretan kolaboratu izanaz harro sentitzen dela gaineratu zuen.

Dagoeneko 1.600 abonatu

Ana Bolinaga alkatea ere oso gustura agertu zen ekitaldian, eta jakinarazi zuen dagoeneko 1.600 abonatu dituela kiroldegia. "Gainera, abonatu horiek oso gustura daude kiroldegiarekin". Gaineratu zuen "modernitateak, funtzio-



Dantzariak begira Ruiz Kutzakoa, Bolinaga alkatea eta Badiola diputatua. | M.A.



Bisitariak, igerilekuen gunean, arkitektoen azalpenak entzuten. | M.A.

naltasunak eta erosotasunak" bat egin dutela Ibarrian.

Aurkezpenak egindakoan eta plaka erakutsi ostean, bisita gidatua eskaini zieten kiroldegia diseinatu zuten Donostiako Asier Acuriola eta Gasteizko Fernando

Bajo arkitektoek. Bizikleten gela, kantxa, rokodromoa, gimnasioa, igerilekuaren gunea, solariuma... areto guztiak banan-banan ikusi zituzten gonbidatuek, eta aretxabaletarrek "ekipamendu bikaina" dutela berretsi.

Herritarrekin gertatu gura du aurrekontua Udalak

Udala herritarrengana gerturatu eta haien ekarpenak jaso gura dituzte, hiru saio eginda

M.A. | ARETXABALETA

Datorren urteko Udal aurrekontua gertatzen hasiko da Udala eta herritarrekin batera egin gura du aurren: "Urtean hartzen diren erabaki politiko-rik garrantzitsuenetakoa izanik ahalik eta gehienen parte-hartzea beharrezkoa da", jakinarazi du Ana Bolinaga alkatea. Hala, Bagara egitasmoaren laguntzarekin hiru saioko lan dinamika jarriko du abian.

Udalaren egoera ekonomikoa larria dela onartu du eta gaineratu: "Muga izan arren, ez da inolako traba herritarrei informaziorako, elkarlanerako eta ekarpenetarako espazioak zabaltzeko". Eta Bagarak horrekin bat egin du: "Gure helburua ez da 2013ko aurrekontuen azkeneko zenbakia zehaztea, Aretxabaleta elkarlanean marrazteko espazioak zabaltzea baizik".

Herri proiektua egitea

Aretxabaletako aurrekontuen lan dinamika zehaztu du Bagarak, hainbat asmorekin: Udal-gintza eta herrigintza norabide berdinean jarri; parte-hartzearen kultura sustatu; eta herri proiektua aretxabaletar guztien artean garatu.

Hala, Udala herritarrengana gerturatzeko prozesua izango da, Udalaren egoera gizarteratzea helburu duena eta herritarren ekarpenak jasoko dituen. Era berean, "Udal poli-

tika egiteko beste modu batzuk lantzeko" lehenengo pausoa izango da.

Prozesu horrek hiru saio ditu: lehenengoan, aurkeztu egingo dute eta Udalaren funtzionamenduari eta egoeraren gaineko argibideak eman; bigarren, arloka banatutako taldeak osatu eta ekarpenak jasoko dituzte; eta hirugarren, ekintzen plana eta ondorioen dokumentua aurkeztu.

Herritarren parte-hartzea behar beharrezkoa dela berretsi du alkatea, eta zehaztu: "Herri proiektua egitera etor daitezela herritarrek, aretxabaletar pentsaerarekin, eta ez norberaren nahiak asetzeko asmoarekin".

LAN SAIOAK

AZAROAK 15

18:30 Kokapena: Udalaren funtzionamendua, egoera ekonomikoa...

AZAROAK 24

10:30 Arlokako ekarpenak: arlo bakoitzeko mahaia osatu eta ekarpen dinamika.

ABENDUAK 13

18:30 Ondorioen aurkezpena: ekintza plana eta ondorioak.

Sortu alderdiaren eraketaren gaineko batzarra hilaren 17an

Sortu alderdiaren eratze prozesua jarriko du abian ezker abertzaleak eta aretxabaletarrek ere eztabaia horretan parte hartzeko aukera izango dute. Lehenengo bilera azaroaren 17an da, zapatua, Arkupen (09:00). Alderdi berriaren oinarri ideologikoak eztabaidatuko dituzte bertaratutako guztien ahotsa entzunda.

Aretxabaleta kirol elkartearen erakusketa dago Arkupen

Garaikurrak, kamisetak, argazkiak, ereserkia eta beste hainbat kontu jarri ditu ikusgai Aretxabaleta kirol elkarteak Arkupen erakusketa aretoan. Azaro guztian egongo da erakusketa hori, eta argazki gehiago Belar Meta dendako erakusleihoan botako dituztela iragarri dute.

Maitasunezko SMS mezu lehiaketa abian da bigarren

Bigarren antolatu dute gazteei zuzendutako SMS mezu lehiaketa. 12 eta 18 urte bitarteko edozeinek har dezake parte azaroaren 23a bitartean. Maitasunezko SMS mezu bat bidali beharko da: MAITASUNA (tarrea) zure maitasun mezua 215800 zenbakira. Saria da Galaxy Ace S5830 telefonoa.

1975eko kintoak afaltzeko elkartuko dira azaroaren 17an

Azaroaren 17an, zapatua, elkartuko dira 1975ean kinto izandakoak; Taberna Berrin hasita txikiteoan egin (20:00) eta ondoren jatetxean bertan afalduko dute.

Izena emateko Taberna Berrira jo behar da (10 euro ordaindu); azken eguna, azaroaren 12a, astelehena.

Jon Díaz

arakia
 Loramendi 1
 Tel.: 943 79 71 69
 20550 ARETXABALETA

EGUZKIGRAF
 inprimategia
 30 urte baino gehiago zure zerbitzura

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
 Araba ibilbidea
 20550 Aretxabaleta
 Tfnoa: 943 791 844 - faxa: 943 792 941
 E-mail: info@eguzkigraf.com

Udalak kirol kudeatzaile zerbitzua kontratatuko du

- Kontratuak bi urte iraungo du, hasiera batean
- Proposamenak hilaren 30era arte aurkez daitezke

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA
Eskoriatzan kirol instalazioen gaineko kudeaketaren gaineko eztabaida aurreko legealditik datorren kontua da. Udaletik beharrezkoa ikusten zuten kirol aholkulari-kudeatzaile baten figura, nolabait eramango lukeena kiroldegiko ardura, eta, kudeaketaz gain, frontoikoa eta baita

espazio irekitakoa ere. Gainera, Beñat Herce alkatearen hitzetan, ikusten zuten figura hori osagarria izan ahal zela Eskoriatzan ez daukaten aholkularitza edo teknikari batekin, kirola sustatu eta kirol taldeen koordinazioa eramateko.
Hasiera batean, Udaletik nahi izan dute hori enplegu publiko

bat izatea, baina gaur egun indarrean dauden neurriek ez diote uzten, eta horregatik, zerbitzua subkontratatzea proposatu zuten joan den astean egindako ezohiko osoko bilkuran onartutako pleguekin. "Ez dauka zertan izan enpresa handi batek jartzen digun pertsona bat lan horiek aurrera eramateko, baizik eta izan ahal

da gaur egun langabezian dagoen pertsona bat ikusten duena bere burua baldintzak betetzen dituela eta posible duela zerbitzu hori aurrera eramatea", azaldu du Herce.

Kontratua

Kontratuak bi urteko iraupena izango du, eta beste bi alditan luzatu ahal izango da urtebetez, baina, betiere, iraupen osoa, luzapenak barne, ezingo da izan lau urtetik gorakoa. Aipatutako luzapenak egin ahal izateko alde biek adierazi beharko dute luzatzeko nahia.

Proposamenak aurkezteko

Proposamenak aurkeztu ahal izango dira hilaren 30era arte udaletxeko Sarrera Erregistroan, eta Udaletik nahi dutena da 2013. urte hasierarako zerbitzua esleituta izatea.

NIRE USTEZ

DORLETA KORTAZAR

Heriotzaz bi hitz

Batzuetan gertatzen da, idazterako orduan norberak gaixak aukeratu biherrien, gaixak berak aukeratzten zaittuela zu. Heriotzaz inguratuta nabil azkenaldixen, inguruko hainbatek familiarterkuak galdu dittuelako, semiakin horretaz aritu nazelako, lagun arteko berbaldirak...

Aste hontan esku artian hartu dot barriro, lagun batek aipatutako ideia baten hari-xari jarraika, *Jorge Oteiza, profeta y conspirador* liburua. Eta gozatzen ari naz berriakurrixaz heriotzari buruz Oteizak zaukon ikuspegia. Noski! Oso ikuspundu ezberdinetik begiratzen dotzo 92 urteko pertsona batek heriotzari 30 urteko baten aldien, baina zer pentsatua emun duzte artista eta jeinu honen hitzek.

Abenduan 21ien bukatuko omen da mundua; hori geratu omen zan jasota Mayek idatzitako egutegixan. Data gerturatu ahala, interpretaziñuak be aldatuaz doiez; oin adituek ezetz dixue, bukatu ezetz, baina garai barri baten hasiera izango dala, orain arte ezagutu dogunari heriotza emanda.

Ez dakit azkenien zer gertatuko dan, baina politta eta oso emankorra litzake, badaezpada be, abendura arte bizi biher bagare be, egunero azkena izango balitz bezela bizitzia; egin barik dittugunak egin eta pendiente dittugunak beteta, esan gura dittugunak esanda, eta eman biherreko besarkadak eta muxuak emanda.

"Politta izango litzake egunero azkena balitz bezala bizitzia"

Marixol Iparragirrereren epaiketara herritar talde bat joango da Parisera astelehenean

Dei egin dute eskutitzak bidaltzeko zuzenean Iparragirreri, elkartasuna adierazteko

A.T. | ESKORIATZA
Marixol Iparragirre Eskoriatzako euskal presoak berriro ere epaiketa izango du Parisen hilaren 12tik aurrera; hau da, astelehenetik aurrera.

2010eko azaroan egin zioten epaiketaren sententziari erre-kurtsua jarri eta hura onartu ondoren dator beste epaiketa hori.

Lyongo espetxetik Fresnera eraman dute dagoeneko Iparragirre eskoriatzarra, Parisko espetxe horretatik egingo baititu epaitegira joan-etorriak.

Esan bezala, epaiketa astelehenean hasiko da, eta haren lagunek diote beharbada oso motza izango dela, lekukoaren testigantzarik ez dutelako onartu oraingoan.

Herritarrei deia

Herritar talde batek gainontzeko herritarrei dei egin nahi izan die Iparragirreri elkartasuna eta babesak adierazteko. Izan ere, haiek diote ondo lego-

keela Eskoriatzatik Parisera talde bat joatea: "Marixol Iparragirreri gure elkartasuna erakustez gainera, herriak ere bere egoerari buruz ardura baduela erakusteko. Hilaren 12a astelehena da, batzuk edukiko dugu jaiegunen bat hartzeko edo ikasleek jai hartzeko aukera ere edukiko dute".

Bada, hara joan nahi duten herritarrek, horrenbestez, helbide honetara mezu bat bidali beharko dute: izuazabeitia@gmail.com.

Eskutitzak bidaltzeko

Bestalde, beste dei bat ere egin nahi izan diete Eskoriatzako herritarrei, Marixol Iparragirreri elkartasuna adierazteko beste modu bat ere badagoela gogora ekarrita: zuzenean hari eskutitza bidaltzeko aukera dagoela esan dute. Hauxe da helbidea: Marixol Iparragirre Guenetxea 965555, Fresnes-Maison d'arret 3, Allée des Thuyas, 94261 Fesness Cedex, Frantzia.



Ibarraundiko erakusketan ikusgai dauden bi argazki. | ENERITZ ZUBIA

Brasilgo lurrik gabeko langileen erakusketa Ibarraundin ikusgai

A.T. | ESKORIATZA

Mundukide fundazioak MSTkoekin (*Movimiento dos trabalhadores Sem Terra*) lankidetzan dihardu Brasilen, eta sensibilizazio kanpaina egingo dute bertan, Elkarhezitzenen laguntzarekin. Horren harira, MSTren gaineko Sebastiao Salgadoren argazki erakusketa dago ikusgai egunotan Ibarraundi museoan, hilaren 16ra bitartean. Erakusketan, Brasilgo lurrik gabeko langileen mugimenduaren gaineko argazkiak daude eta argazki erakusketa ikusteko ordutegia hauxe da: 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Dokumentala

Bestalde, dokumental bat ere proiektatuko dute datorren astean Ibarraundin. *Gure lurra, gure etorkizuna* izenburua dauka, eta Bizilurrek eta EHNE Bizkaia egindako dokumental horrek elikadura burujabetzaz hausnarketa bultzatzeko balio izango du. Proiektzioaren ostean solasaldia egingo da Bizilurko kide David Lopategirekin. Dokumentala eta solasaldia, biak izango dira euskaraz. Herriko azaroko gidan dokumentala hilaren 13an emitituko dela jarri arren, hilaren 12an, astelehena, izango da proiektzioa, 18:30ean.

OHARRAK

HITZALDIA

Gaur, egubakoitza, Pepa Bojo hizlariak *Violencia de género* izeneko hitzaldia egingo du kultura etxean, 18:00etan.

MENDI IRTEERA

Zapatuan, 09:30ean, mendi irteera egingo dute, perretxikotara.

PERRETXIKOEN SAILKAPENA

Zapatuan, 16:30ean, perretxikoen sailkapena Luis Ezeizan.

PERRETXIKO ERAKUSKETA

Domekan perretxiko erakusketa egongo da ikusgai herriko plazan 12:00etatik 14:00etara bitartean.

ATEZ ATEKOAREN HITZALDIA

Hilak 13, martitzena, 19:00etan, Ibarraundi museoan, atez atekoari buruzko hitzaldia egongo da. Hizlariak izango dira Pedro Iturbe Antzuolako alkate izandakoa eta Beñat Herce Eskoriatzako alkatea.



OSASUNA

Osasun integrala
Edertasuna eta osasuna
Ikusmena garatzea
Gripearen aurkako txertoa





Udalaitz Osasun Zentroaren sarreran dauden harrera eta itxaron-guneak.



Teknologia berrienak erabiltzen dituzte lanerako.



Medikua pazientea artatzen.



Gelmagunean dauzka

Udalaitz Osasun Zentroa: "Zerbitzu guztiak zentro berean"

Orain dela bi urte bulego berrietara lekualdatu zenetik, Udalaitz Osasun Zentroak erronka berriak ditu aurrez aurre, osasun integrala edo osoa lortu guran; eta bide horretan, Arrasateko zentroan diziplina askotariko zerbitzuak eskaintzen dihardu zentroko talde profesionalak

Instalazio berriek duten berritasun handiena da osasun zerbitzu osoa edo integrala eskaintzeko aukera duela, mediku talde handia duelako eta baita azkeneko berrikuntza teknologikoak ere. Horren guztiaren helburua da diagnostikoa hobetzea.

Duela 20 urte zabaldu zuten zentroa, eta ordutik hona pazienteak edo gaixoa da haren plan estrategikoaren ardatz nagusia.

ARLO GUZTIAK INDARTUTA
Udalaitz Osasun Zentroko zerbitzu nagusi-

ko arlo guztiak indartu egin dira: analisi klinikoak, irudi bitarteko diagnostikoa -titietako unitatea-, osteoporosiaren diagnostikoa... Oro har, zerbitzu berriak gehitu egin dira, diagnostiko osoa edo integrala hobetzeko helburuarekin.

ZERBITZUAK

ANALISI KLINIKOAK

Biokimika
Hematologia
Mikrobiologia

ERRADIOLOGIA

Rx orokor digitalizatua
Rx, tele-eskatutakoa
Rx, hortzetakoa
Ikerketa Erradiologikoak

ESKANER TAK-HELIKOIDALA

ERRESONANTZIA MAGNETIKOA

EKOGRAFIA

Ekografia ginekologikoa
Ekografia obstetrikoa
Titietako ekografia
Giharretako ekografia
Ekografia abdominala
Ekografia besikulaprostatikoa
Tiroideetako ekografia
Testikuluetako ekografia
Doppler ekografia

OSTEOPOROSI UNITATEA

Hezurretako dentsitometria
Laborategia

TITIETAKO UNITATEA

Mamografiak
Titietako ekografia

JAIO AURREKO DIAGNOSTIKOA

Amniozentesia
Laborategia

PROBA PNEUMOLOGIKOAK

Espirometria
Loaren azterketa

PROBA NEUROLOGIKOAK

Elektromiograma

ERIZAINTZA ZERBITZUA

Elektrokardiograma
Erizaintza

AZTERKETA MEDIKOAK

Banakako azterketak



Udalaitez Osasun Zentroak instalazio berriak, behe-barruetan.

Profesional medikoak osasunaren zerbitzura

Udalaitez Osasun Zentroaren Plan Estrategikoaren beste ardatzeta-ko bat beti izan da espezialitate mediku berriak gehitzea, dituen zerbitzu medikoen eskaintzan estaldura handiagoa eman guran.

ESPEZIALITATEAK ETA MEDIKUAK

Funtsezko helburu hori betetzeko espezialitate berriak gehitu dituzte, eta baita mediku profesional berriak ere. Bien artean nabarmen osatu dute gaur egungo medikuen lantaldea.

Espezialitate berrien artean daude kirurgia orokorra, medizina estetikoa eta traumatologiako espezialistak, eta baita hazteko faktoreak, elektromiogramak eta halako prestazio berriak ere.

Laster, etorkizun hurbilean, gure helburua da espezialitate mediko eta prestazio gehiago izatea, eta, modu horretan, zerbitzua ematen dugun inguruko behar mediko guztiak asetzea.



Pazientea eskanerrak egiteko makinara sartzen.

ESPEZIALITATEAK

KIRURGIA OROKORRA	Silvio Zamora dk.
DERMATOLOGIA	Gonzalo Serrano dk.
HAZKUNTZA FAKTOREAK	Antzon Gorrotxategi dk.
GINEKOLOGIA	Julio Gonzalez dk.
MEDIKUNTZA OROKORRA	Karmelo Etxeberria dk.
BARNE MEDIKUNTZA	Fernando Gartzia dk.
MEDIKUNTZA ESTETIKOA - OBESITATEA ETA KIRURGIA PLASTIKOA	Rosa Sarabia dk.
PNEUMOLOGIA	Carmen Jaca dk.
OTORRINOLARINGOLOGIA	Julian Igartua dk.
PEDIATRIA	Kenio Kabour dk. Zunilda Santos dk.
GORPUTZEKO KALTEEN BALORAZIOA	Alberto Legorburu dk. Armando Manjarres dk.
PSIKIATRIA	Justo Altzua dk.
TRAUMATOLOGIA	Arsenio Diego dk. Edorta Esnal dk. Eduardo Escobar dk. Emilio Pernaut dk. Jesus Azkarate dk.
UROLOGIA	Alberto Lluch dk.
ERREHABILITAZIOA -FISIOTERAPIA -OSTEOPATIA	
ZORU PELBIKOAREN UNITATEA	



Maite, Itxaso eta Elena, Amagara Estetika Zentroan.

Edertasunean eta osasunean espezialistak

Amagara Estetika Zentroan punta-puntako teknologia erabiltzen dute gorputza eta aurpegia zaindu eta lirain mantentzeko

Gorputza eta aurpegia lirain eta osasuntsu mantentzeko beharrezkoak diren zerbitzu guztiak aurkituko ditugu Arrasateko Amagara Estetika Zentroan.

Estetikan gaur egun ezagutzen diren punta-puntako teknikak eta tramanduak eskaintzen dituzte, baina baita beste zenbait zerbitzu ere; besteak beste, depilazioa, mikropigmentazioa, solariuma edo hidromasajea eta erlaxatzeko masajeak.

Maite Agirre arrasatearra da Amagarako ugazaba; estetika

zentroko ateak ireki eta eskaintzen dituzten zerbitzuetakoz batzuen gainean hitz egin digu; baita horiek eskaintzen dituzten onuren berri eman ere.

DENETARIKO DEPILAZIOAK

Esan bezala, depilazioa da Amagaran aurkituko dugun zerbitzuetakoz bat; argizari beroarekin eta hotzarekin egiten dute lan. "Azken urteetan argizari hotza da bezeroek gehien eskatzen dutena, ilea errazago harrapatzen duelako, errazago garbitzen delako eta eraginkorragoa delako", kontatu digu Maitek. Horrez gain,

depilazio elektrikoa ere egiten dute: "Apur bat desatsegina den arren, oso eraginkorra da eta laser bidezko depilazioarekin tartekatze oso egokia da". Bekainen depilazioan ere gero eta lan gehiago egiten ari dira, Maiten esanetan gero eta bezero gehiagok eskatzen duelako: "Ongi depilatuak bekainek begirada alda dezakete, eta baita begiaren tamaina handitu ere. Pintzak erabiltzen ditugu bekainak depilatzeko, eta ez argizaria, pintzekin hobeto ematen diegu-eta forma".

MIKROPIGMENTAZIOA

Urteekin oso ohikoa da ezpainek kolorea galtzea, baita forma ere. Arazo horri erantzuna emateko, mikropigmentazioa erabiltzen

dute. Mikropigmentazioari esker ezpainen kolorea berreskuratu eta hobeto defini daitezke. Begietan ere erabiltzen da teknika hori. "Betileen gainaldean marra fin bat margotuta edo bekainetan marra iraunkor bat eginda, begiradak indarra berreskuratzea lortuko dugu".

SOLARIUMA

Neguko hilabeteetan kolore apur bat izateko aukera ematen du solariumak, eta Amagara zentroan eskaintzen dute horretarako aukera. "Kolore pixka bat izateak eragin zuzena izaten du gure umorean, horrek dakartzan onura guztiakin. Udazkeneko hila-bete triste hauetan alaitasun pixka bat izaten laguntzen du.

30 urte baino gehiago aurpegia eta gorputza zaintzen

Eslu ile-apaindegiko gelatxoan hamabost urte lanean egin eta gero, Maite Agirre arrasatearrak Amagara Estetika Zentroa irekitzea erabaki zuen. 1991ko urrian ireki zituen ateak zentro berriak, eta, ordutik hona, Itxasorekin eta Elenarekin batera osatutako Amagara zentroko lantaldeak aurpegiko eta gorputzeko estetikaren alde lan asko egin du. Ongizatearekin eta estetikarekin lotutako hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte eta horietan guztietan punta-puntako teknologia eta tratamendu berritzaileak erabiltzen

dituzte. Horrez gain, Arrasateko Amagara Estetika Zentroko langileek etengabeko formazioa jasotzen dute, eta hainbat kongresutan parte hartu. Modu horretan estetika zentroetan gaur egun erabiltzen diren puntako azken teknologia eta tratamenduak ezagutzen dituzte.

Amagara Estetika Zentroa Arrasateko Erdiko kaleko 54. zenbakian dago eta bertako profesionalekin harremanetan ipini nahi duenak 943 79 09 09 telefono zenbakira deitu behar du.

Eguzkia neurrian hartuz gero ez da txarra, eta hezurrendako eta azaleko hainbat arazorendako ona izan daiteke".

ERLAXATZEKO AUKERA

Askotan, kanpoan topatzen saiatzen gara etxean bertan daukaguna. Horixe bera gertatzen da gure herriatik urrun SPA batera joaten garenean. Amagaran, gorputza zaintzearekin batera, erlaxatzeko aukera aparta eskaintzen dute. "Gorputza hidratatzeko eta erlaxatzeko ordu eta erdiko tratamendua eskaintzen dugu. Lehenengo, *peeling*-a edo esfoliazioa egiten dugu. Gero, termosaua; hau da, produktu hidratanteak eman ostean manta beroetan batzen dugu bezeroa. Amaitzeko, hidromasajea egon eta gero, erlaxatzeko gorputzeko masajea ematen dugu. Lanegun gogor baten ostean erlaxatu eta tentsioak kentzeko opari aparta".

ARGALTZEKO ERE BAI

Pisua galtzeko eta argaltzeko ere hainbat aukera eskaintzen dituzten Amagara Estetik Zentroan. Helburu horretarako merkatuan dauden azken aparailuak erabiltzen dituzte: vacunterapia, ultrasoinuak, kabitazioa... Horrelako tratamendu guztiak gainera SPA zerbitzuarekin osatzen dira.

Zeure buruarekin ondo sentitzeko, orain arte aipatutako eskaintza eta tratamenduak eta askoz gehiago aurkituko dituzu Erdiko kalean dagoen Amagara Estetika Zentroan.



Cristina Arruabarrena medikuarekin lan egiten dute Amagara zentroan. | AMAGARA ESTETIKA ZENTROA

Aurpegia zaintzearen garrantzia

Arrasateko Amagara Estetika Zentroan badakite zeinen garrantzitsua den aurpegia behar bezala zaintzea, eta bezeroei horixe bera helarazten ahalegintzen dira beti.

"Beharbada, errepikakorrak izango gara, baina gure bezeroei etortzen diren bakoitzean esaten diegu aurpegia zaintzeko ezinbestekoa dela egunero aurpegia garbitzea, krema garbitzaile batekin eta

toniko egoki batekin. Eta berdin dio makilatzen ez bazara ere. Garbiketa egunero egin behar da", azaldu digu Maite Agirrek.

Aurpegia osasuntsu eta distiratsu mantentzeko hainbat tratamendu eskaintzen dituzte Amagaran, betiere bakoitzaren azal motari eta adinari egokিতuta.

Aurpegiko orbanen arazoa gero eta ohikoago bilakatzen ari da azken urteotan. Bada, orbanak desagerrarazteko hainbat tratamendurekin egiten dute lan Amagaran. Tratamendu despigmentatzailea da horietako bat. IPL moduan ezagutzen den laserrarekin edo tratamendu dermoabrasibo batekin orbanak kentzeaz gain, azala lisatzea lortzen dute. Mesoterapia birtuala litzateke beste aukera bat. Tratamendu horrek ahalbidetzen du azaleko geruza sakonenetan produktuen aktibo kontzentratuak sartzea, azalaren funtzionamendua estimulatzeko. Fotoerreafirmazioa izan daiteke orbanen kontrako beste aukera bat, laserraren bitartez azala leun eta garbi mantentzea lortzen da tentsioa handituta eta fakzioak moldatuta.

Orain arte aipatutako tratamenduez gain, azpimarratu behar da Amagara zentroan Cristina Arruabarrena doktorearekin lan egiten dutela. Arruabarrenak aurpegiko bioplastiari dagokionez punta-puntako teknikak ezagutzen ditu. Hau da, substantzien infiltrazioaren bitartez —azido hialuronikoa, bitaminak eta abar— aurpegiaren gardentasuna berreskuratzea lortzen du, norberaren fisionomia aldatu barik, noski.

Maite Agirreren esanetan, botoxa da gaur egun bezeroek gehien eskatzen duten tratamenduetako bat. "Jende askok uste dute famatuen kontua dela botoxa, baina ez da horrela. Botoxa tratamendu mediko batekin bateratuta, bezero askok aurpegiko itxura asko hobetzea lortu dute. Apurka-apurka emaitzak ikusten hasten direnean, hasierako beldurrak desagertu egiten dira eta behin eta berriz esaten digute zelako ondo sentitu eta ikusten duten euren aurpegia. Horrelako gauzak dira egunero-egunero lanean jarraitzea motibatzen gaituztenak".

Amagara estetika zentroa

ESTETIKA ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK

- Depilazioa (argizaria, elektrikoa...)
- Laser depilazioa (beltzaranentzako ere bai)
- Solariuma
- Manikura, makillaje iraunkorra
- Betileen permanente eta tindatzea
- Hidromasajea

AURPEGI ETA GORPUTZ TRATAMENDUAK

- Aparailuak (vacunterapia, ultrasoinuak, cavitazioa)
- Mikrodermoabrasioa
- Fotogaztetzea eta fotoerreafirmatzea

TERAPIA MEDIKO ESTETIKOAK

- Betetzeak (azido hialuronikoa, Radiesse, etab.)
- Botoxa
- Gorputz mesoterapia

UDAZKEN
NEGUKO
ESKAITZA
%20ko
deskontua

Aurpegi gaztetze programa.

AG
Amagara

Erdiko kalea 54 behean 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09



Arrasate Optikako Leire eta Ainhoa. | ARRASATE OPTIKA

Ikusmena garatzen ikas daiteke

Nola dabilen gure ikusmen sistema, hala izango da gure ikas-prozesua eta portaera

Arrasate Optikan ikusmen sistemari eragiten dioten beste arlo batzuk hartzen dituzte kontuan, sistemak ongi funtzionatu ezean beste arazo batzuegatik izan baitateke.

Ikusmen sisteman arazoak badaude (estrabismoak, begi alferra, fokatzeko arazoak...), ikusmen terapiaren bidez lantzen ditugu. Pertzepzio zailtasunak, lateralitate arazoak, letren inbertsioak eta irakurmen zailtasuna ere tratatzen dituzte.

Gaitzak lantzeaz batera, jatorrizko erreflexuak jorratzea funtsezkoa da; integratuta eduki ezean zenbait sintoma ager daitezke: postura txarrak eta oreka eskasa; begien eta eskuaren arteko koordinazio kaskarra; idazkera desagokia; lateralitate zailtasunak; esfinterren kontrolatzeko arazoak; arreta eta kontzentrazioerik eza; dislexia eta ikasketa arazoak.

ZER DIRA JATORRIZKO ERREFLEXUAK?

Jatorrizko erreflexuak fetua umetokian dagoenean agertzen diren bizi-senak dira. Hauek umeari laguntzen diote erditze kanalean kokatu, bira egin eta ostan jaisten. Jaiotzerakoan,

amaren titia xurgatzeko ahalmena eragiten dio, baita edonoren atzamarra heltzeko gaitasuna ere. Denborarekin, jatorrizko erreflexuak lekua utziko diete jarrera erreflexuei. Jarrera erreflexuak beharrezkoak dira egonkortasunerako eta oreka mantentzeko. Mugitzen lagunduko diote, katamarean dabilenean, oinez eta korrika egin arte. Erreflexuak mantenduz gero, burmuin ahultasun edo heldutasun eza egongo da. Zenbait mugimendu modu ez automatizatu egingo dituela igerriko da, eta beharrezkoa duena baino ahalegin handiago egin behar duela.

Adibidez, esku erreflexua ez badago gaitasuna, eskuak erabiltzean, besoa neka dakioke, letra eskasa izan dezake edo ahoarekin mugimenduak egin ditzake. Erreflexuak landu behar direnean TRM (erritmo mugimenduen terapia) erabiltzen dute Leire eta Ainhoa. Jaiotzetik eta oinez hasi arte, berezko moduan egiten dituzten mugimenduetan oinarritzen dira ariketa horiek.

Ikusmen terapiarekin bateratuta, eraginkorragoa izango da ikusmenaren eta beste zailtasun batzuen hobekuntza.

Gripearen aurkako txertoa hartzeko epea luzatu dute

Hilabetez luzatu du Osakidetza griperekin kontrako txertoa hartzeko kanpaina, hain zuzen ere, hilaren 30era arte

Gaixotasun infekziosoa da gripea eta edonork harrapa dezake; dena den, bada, go arrisku talde bat. Bertan, 65 urtetik gorakoak daude, diabetikoak eta azkenik, baita birikietako, bihotzeko, gibelko zein giltzurrunetako gaixotasun kronikoren bat sufritzen dutenak ere.

Irailaren 17an ipini zuen martxan Osakidetza aurtengo gripearen kontrako txertoa hartzeko kanpaina. Ofizialki urriaren 31n amaitzen zen, baina hilabetez luzatuta, azaroaren 30 bitartean joan ahal izango dira herritarrek osasun zentroetara.

Gaixotasunari dagokionez, berriaz, 1 eta 5 egun arteko inkubazioa edukitzen du eta gaixotasuna 3 eta 7 egun bitartean kutsa daiteke. Sintomen artean sukar altua, ondoeza, buruko eta ezta-rriko mina eta eztula daude.

KANPAINAREN HELBURUA

Aurtengo kanpainaren helburua gaixo kronikoen %67k, egoitzetan dauden nagusien %95ak eta osa-



Txertoa hartzen aurtengo kanpainan. | GOIENA

sun arloko profesionalen %30ak hartzea gripearen aurkako txertoa.

Gaixo kronikoen artean %1 handitu da txertoa hartu dutenen kopurua, diabeto mellitus eta arnas gaixotasunak dituzten 65 urtetik beherakoekin. Gai-nontzeko taldeei dagokionez, "portzentajeak iazkoak baino txikixeagoak izaten ari dira", Osakidetza esanetan.

UDAZKEN AMAIERAN GOGOR

Adituen esanetan momentuz ia ez du eraginik izan gripeak, udazkenaren lehen zatian egindako eguraldi onari esker. Halere, gogoraziti dute gogorrago jotzen duela udazken amaiera aldera eta udaberri hasierara bitartean.

Txertoa hartzeko nork bere herriko osasun zentrori edo ambulatoriora jo beharko du.



JUAN JOSE SAENZ
ARRASATE

"Ez, ez dut hartzen. Medikamentuak hartzen hasten zarenean, gero eta gehiago hartzen dituzu denborarekin, ez du etenik, eta ez naiz horren aldekoa".



LUCIO PUENTE
ARRASATE

"Ez. Ez dut inoiz hartu, ez dut ohiturarik. Trankil bizi naiz ni txerto hori hartu gabe ere, eta horrelaxe jarraitzen dut, gripearen aurkako hartu barik".



FRANCISCO LAG
GASTEIZ

"Ez. Egia esan ez dut ohiturarik, ez dut sekula hartu gripearen aurkako txertoa. Orain arte oso ondo ibili naiz eta ez dut sentitu txerto hori hartzeko beharrik".



SOCORRO AMIROLA
GASTEIZ

"Bai. Ez dut urtero hartzen, baina aurten hartu dut. Egia esan ez nago oso ondo, baina nik uste dut adinagatik dela nire ondoeza, ez txertoa hartzeagatik".

Arrasate
OPTIKA
OPTOMETRIA

Kontzultak lehen 6 ARRASATE
Tel./Fax: 948 79 26 98
www. arrasateoptika.com
arrasateoptika@aufa.net



Optometria konportamentala

Ukipen lente bereziak

Ikusmen terapia

Ainhoe Barrenetxea Lazkano
Elkargokide zk.: 13.959

Leire Telleria Garai
Elkargokide zk.: 18.134



Martitzeneko osoko bilkuran Bildu, EAJ eta PSE-EEko ordezkariak mahaiaren bueltan. | MAIDER ARREGI

Tasen %3ko igoera orokorra onartu da

Zaborraren eta etxebizitza hutsen zergek egingo dute gora, besteak beste

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA
Hilaren 6ko, martitzeneko, osoko bilkuran onartu du Antzuolako udalbatzak 2013ko tasa orokorren igoera; Bilduren aldeko lau boto-ekin eta EAJko bi zinegotzien abstentzioarekin eta PSE-EE alderdiko zinegotziaren abstentzioekin onartu dira 2013ko ordenantza fiskalak.

Hala, Udalak herritarrei kobratzen dizkien tasek eta zergek %3ko igoera izango dute. "EAEn %3,1 igoko dela KPI orokorra aurreikusi dugulako hartu dugu igoera horren erabakia; irailean eta urrian asko igo da-eta, gainera", azaldu digu Ima Beristain Antzuolako alkateak.

Zaborren gaineko zerga igoera izango dutenen artean dago. EAJ alderdiak, ordea, desadostasuna agertu du erabaki horren aurrean. "Mankomunitateak hainbat txosten egin behar izan ditu orain artean eta jakin beharko luke ze kostu izango duen; eta Antzuolako kasuan are gehiago, atez atekoa orain bi urte jarri zelako martxan. Ez dugu ulertzen Antzuolan nola utz daitekeen atea zabalik; hemendik hiru hilabete-

ra, akaso, berriz aldatuko-da eta tasa hori", nabarmendu du Maria Eugenia Arrizabalaga zinegotzi jeltzaleak.

Bilduko zinegotziek azaldu dute zerbitzu horren kostua handiagoa izango dela, baina kostu erreala ez dela Mankomunitateak zerbitzua esleitzen duen arte jakin-gu.

Alkateak, bestetik, azpimarra-tu gura izan du hobariak izango dituztela autokonposta egiten duten herritarrek. "Zerga honi dagokio-nez, 2013an %25eko deskontua izango dute autokonposta egiten duten herritarrek. Baserritarrek ere hobari bera izango dute ekar-pen-gunera eramateagatik", zehaz-tu gura izan du.

Eztabaida sortu du baita ere etxebizitza hutsen %100eko erre-karguak. "Orain arte 100 ordain-tzen dutenek hemendik aurrera 200 ordaindu beharko dute. Hel-burua bada etxebizitza hutsak merkatura ateratzea, ez dugu uste errekargu horren bitartez lortuko denik. Luxuzko zerga dela uste dugu eta kasuistika nahiko injus-tua dela uste dugu", esan du Arri-zabalagak.

Bilduk, aldiz, helburua Antzu-olan dauden etxebizitza eskaerei erantzuna ematea eta alokairua bultzatzea dela azaldu du. "Bizi-gune programan, etxebizitza bat bakarrik dago. Horregatik, erre-kargua erroldatu gabeko etxebi-zitza hutsei soilik jarriko diegu, alokairua sustatu nahi dugu-eta modu honetan".

Hala, 2013ko tasa orokorren %3ko igoera Gipuzkoako Aldiz-kari Ofizialean argitaratu eta 30 eguneko epean, alegazioak aur-kezteko aukera egongo da.

Sozialistaren desadostasuna
Bada, Karlos Urrestarazu sozia-listak abstentzioaren aldeko botoa eman du, euskararen normaliza-ziorako legea urratzen dela argu-diatuta.

"Aldibereko itzulpena izatea osoko bilkuran eta txosten guztiak euskaraz eta gazteleraz jasotzea, bi hizkuntzatan alegia, derrigo-rrezkoa da; legea urratzen ari zarete", esan du Karlos Urresta-razu sozialistak.

Hurrengo osokoetarako eskae-ra horixe egin die udalbatzako gainontzeko kideei.

'Lau emakumeren lau ikuspuntu' erakusketa ikusgai asteburuan

M.A. | ANTZUOLA

Pili Azkarate, Itziar Murgizu, Maite Azkargorta eta Koro Iraegi bergararren lanak ikusgai izango dira datozen bi astebu-ruetan Olaran etxean. "Lau ikuspuntu dira, nor bere kasa gabiltzalako lanean", azaldu digu Pili Azkaratek.

Hala, asteburuan, Bergara-ko lau emakume artistaren lanak ikusgai izango dira: olioak, pastel pinturak, akrilikoz zein arkatzez egindako pinturak; baita altzari dekorazioa eta berritze lanak ere.

"Erakusketa Itziarren ini-ziatibaz jarri dugu abian, eta, momentuz, lehena Antzuolan jarriko duguna da", azaldu digu

Pili Azkaratek. Azkenaldian akuarelekin dihardu lan egiten Azkaratek; gehienetan paisaiak margotzen dituela esan digu. Azkargorta, aldiz, ilustrazioak egiten ari da, baina baita akri-likoan ere. Iraegi eskulanetan eta berreskuratze lanetan ibil-tzen da, gehienbat. Murgizuk marrazketa lantzen du; besteak beste, erretratuak egiten ditu.

Erakusketa zabalik

Azaroko bi asteburutan –azaroak 10, 11 eta 17, 18– izango duzue ikusgai *Lau emakumeren lau ikuspuntu* erakusketa. Arra-tsaldeetan honako ordutegia izango du: 18:30etik 20:30era bitartean.

Antzuola hirugarren astez lider da eta domekan bigarrenaren aurka neurtu beharko ditu indarrak

Antzuola futbol taldeak 3-0 irabazi du etxean jokatu duen azken partidua, Soraluzeren aurka. Golegileak hauexek: Markel Letek bat eta Ander Aranak bi sartu zituzten. Hala, Erregional Prefe-renteko kategorian dagoen Antzuolak hiru astez segidan lortu du sailkapeneko lehen postuan egotea, liderra da. 17 puntu ditu eta bigarren dagoen Getariakon taldeari hiru puntu ateratzen dizkio. Datorren jardunaldian, Getariakonen aurka neurtu beharko dituzte, gainera, indarrak antzuolarrek. Partidu gogo-rra izango da; domekan jokatuko dute, azaroaren 11n, 16:30ean, Orioko Mendibeltz zelaian.

Argazki libre lehiaketako lanak udaletxeko bulegoan entregatzeko azken eguna gaur da

Kultura Sailak antolatutako argazki lehiaketan, Antzuolan jaio edo bizi den edozeinek parte har dezake eta gaia librea da. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira eta epea gaur bukatzen da. Argazki munduko adituek osatuko dute epaimahaia. Lanak baloratzerakoan, kalitate teknikoa eta artistikoa eta adierazteko originaltasuna hartuko dira kontuan. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztuko ditu. Lanak koloretan edo zuri-beltzean aurkez daitezke. Argazki guztiekin erakusketa egingo da azaro bukaeran, Olaranen.

Erretiratuentzako memoria tailerra egingo da azarotik urtarrila bitarteko eguaztenetan

Memoria tailerra garuna aktibo mantentzen eta garapen per-sonala bultzatzen laguntzen duen kurtso dinamikoa da. Erre-tiratuentzako tailerra da eta eguneko zentroko terapeutak gidatuko ditu saioak. Azaroaren 14tik urtarrilaren 23ra bitar-tean, eguaztenero 15:30etik 17:00etara bitartean eskainiko dira saioak. Ikastaroa amaitutakoan, norberak jarrai ditzakeen jarraibideak eskainiko dira, gainera. Izena emateko, deitu udaletxera, 943 76 62 46 telefono zenbakira, edo Gizarte Zerbi-tzuen bulegora: 943 78 71 95 zenbakira. Izena emateko azken eguna azaroaren 12a da. Ikastaroa doakoa da.

OHARRAK

GAZTAINA-ERRE EGUNA
Azaroaren 17an, zapatuan, arra-tsaldeko zazpietan erretiratuak elkartean gaztaina-erre eguna ospatuko dute. Izena emateko epea zabalik: azaroaren 12an, astelehenean, eta 13an, martitze-nean, 16:00etatik 18:00etara. Pre-zioa: 2 euro pertsonako. Eta Gabonetako Loteria leku, egun eta ordu beretan salduko dutela jakinarazi nahi izan dute erreti-ratuen elkarteko kideek.

BEGIRALE DEIALDIA
Gazte txokoan lan egiteko begi-raleak hartuko dituztela jakina-razi du Idolaz elkarteak. Ikastur-te garaian lan egiteko begiraleak behar dituzte, hain zuzen ere. Euskaraz jakitea, 18 urtetik gora-koa izatea eta Antzuolakoa izatea dira bete beharreko baldintzak. Interesa dutenek izena emateko azken eguna domekan dute. Udal webgunearen bitartez egin dai-teke: www.antzuola.com.

GAILUR

taberna eta gozotegia

Buztinsuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

MUJKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Mikel Ruiz de Azua, Aramaio erreka atzean duela. | MIKEL RUIZ DE AZUA

Mikel Ruiz de Azua | Orixol elkarteko zuzendaritzako kidea

"Erreka denona da, denok garbi dezagun!"

J.B. | ARAMAIO

Orixol elkarteko diruzaina da egun Mikel Ruiz de Azua (Aramaio, 1986). Erreka garbitzeko batuko dira bihar plazan (10:30): "Arropa zaharra eta katiuska onak ekartzea komeni da". Euria egiten badu, beste egun batera atzeratuko dute deialdia.

Horren zikina dago Aramaio ibaia?

Bi urtean behin elkartzen gara erreka garbitzeko eta iaz ez zen garbitu. Eta bai, zikinkeria badago. Kanpotik ez du ematen baina garbitzerakoan espero ez den zikinkeria agertzen da: pentsa, labadora eta bizikleta zatiak agertu izan dira...

Nola funtzionatuko duzue?

Zapatuan [bihar] 10:30ean gertatuko gara, plazan. Jende kopuruaren arabera taldeak egingo ditugu, eta basura poltsa zein eskularruekin, behetik gora hasiko gara erreka garbitzen, hau da, Matxin kaletik hasi eta pilotaleku inguraino. Beraz, gero eta jende gehiago, hobeto. Aurrekoetan 20 bat lagun elkar-tu izan gara eta jasotzen dugun

zakar guztia leku batean elkartuko dugu, gero dagokion edukiontzira botatzeko. Lana egin ostean hamarrateko ederra egongo da guztiondako.

Zergatik antolatzen du Orixolek erreka garbitzeko auzolana?

Helburua da erreka garbi mantentzea. Horrez gain, herritarrak naturarekiko errespetuaz sentsibilizatzea ere badu helburu. Askotan plastiko eta bestelakoak samur botatzen ditugu lurrera eta horiek gero errekan bukatzen dute. Aurten herriko beste taldeak ere inplikatzeko gura izan dugu; erreka denona da eta denok parte hartu behar dugu! Udalarekin batera deialdia zabaldu dugu; ahalik eta jende gehien agertu dadila.

Zerbait gaineratzerik nahi?

Eguraldi txarra egiten badu beste egun batera atzeratuko dugu. Bestalde, haurrek ere parte hartzeko aukera izango dute baina helduekin batera etorri beharko dira. Gainerakoei, anima daitezela, denoi gustatzen zaigu-eta herria garbi ikustea.

Xabi Igoa eta Paula Amilburu Bertxoko sariketan hasiko dira gaur, Murgiako gaztetxean (19:30)

Gaur hasiko da Bertxoko, Arabako bertsolari gazteenei plazak eman eta entzulegoari saio dinamiko, fresko eta animatuak eskaintzea helburu duen sariketa. Arabako bertsozale elkarteak eta Hala Bedik elkarlanean antolatzen dute. Aramaioarren artean, Xabi Igoa eta Paula Amilburu gaur hasiko dira lehiatzen, Murgiako gaztetxean jokatu den kanporaketan (19:30). Iker Agirre, bestalde, hilaren 23an lehiatuko da, Laudiko kanporaketan.

DIRULAGUNTZA DEIALDIAK

1.- Euskara ikasteagatik dirulaguntzak: 2011-12 ikasturtean euskara ikastaroa egin dutenentzako euskaltegi homologatuan; ikastaro arrunta zein barnetegi izaerakoa.

2.- Garraio dirulaguntzak: 2011-12 ikasturtean ikasketa hauek egin dituztenentzako: DBH, Batxilergoa, erdi mailako eta goi mailako ikasketak.

Eskaera egiteko lekua: Udaletxea
Azken eguna: 2012/11/30.
Informazioa guztia: www.aramaio.org



Aramaion, 2012ko azaroaren 6an.
Ane Miren Etxebarria, jarduneko alkatea.

San Martin eguna dela-eta hainbat ekintza asteburuan

Trikitilariak, Itur-Zuri elkarteak, Pilota Eskolak eta Txirritolak hartuko dute parte

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Domekan herriko zaindariaren eguna ospatuko dute aramaioarrak, San Martin eguna. Herriko talde ezberdinek hainbat ekintza antolatu dituzte asteburu osorako. Gaur San Martin eskolan gaztaina erreka jateko aukera izango dute ikasleek, 15:00etatik 16:00etara. Kantuan ere egingo dute, trikiti eta pandero doinuaren artean. Eskolako ospakizunen ostean, trikitilariak kalejiran irtengo dira eta, urtero legez, buzkantza eta txorizo pintxoak banatuko dituzte.

Trikitixa eskola, diruz larri

Aurten euro baten salduko dira pintxoak: "Diru arazoekin gabil-tza eta urteroko kuota ez igotzeko aurten pintxoak kobratzea erabaki dugu", adierazi du Yolanda Sillero Trikitixa eskolako kideak. Txartelen zozketa ere egingo dute: sari nagusia nekazal turismo baterako egonaldia izango da, bigarren saria urdaiazpiko bat, eta hirugarrena, azkenik, gazta bat. Zapatuan, Itur-Zuri emakume elkarteak antolatuta *¿Quién dijo que todo está perdido?* ipuin kontaketa saioa egongo da Sastiñan (22:00), Ernesto Agirre-ren eskutik. Zineforumarekin amaitzeko ekitaldia izango da eta antolatzaileen arabera, baikorrendako ekintza izango da.

I. San Martin pilota txapelketa

Domeka goizean pilota izango da protagonista kiroldegian, 11:00etatik aurrera: "Pilota indarra hartzen ari da herrian eta egitaraua osatzeko ideia ona iruditu zitzaigun partidu batzuk antolatzeko", dio Xabier Herrarte Aramaio pilotalekuko kideak. Lehen partidua lagunartekoa



Trikiti doinuek iragarriko dute San Martin eguna. Irudian, iazko kalejira. | J.B.

EGITARAUA

HILAK 9, EGUBAKOITZA

15:00 Gaztaina erreka eskolan.**18:00** Trikitilarien kalejira.**18:30** Buzkantza eta txorizoa, Trikitixa eskolaren eskutik.**19:30** Txartelen zozketa plazan.

HILAK 10, ZAPATUA

22:00 Ernesto Agirre ipuin kontalaria Sastiñan, Itur-Zuri elkarteak antolatuta.

HILAK 11, DOMEKA

11:00 Pilota eskolaren eskutik:

► Herrarte-Ibabe vs Murua-Bengoa (infantilak).

► Ibañez-Isasmendi vs Sainz-Sainz (pala neskak).

► Bideburu-Arregi vs Fernandez-Lopez de Calle (kadeteak, finala).

16:30 Txirritolak antolatuta Txirripartxis lehiaketa osoko bilkuren aretoan.

izango da, infantil mailan: Jon Herrarte eta Mikel Ibabe aramaioarrak Ander Murua eta Iker Bengoa arrasatearrak izango dituzte aurrez aurre. Gero, pilotalekuan emakumeak lekua duela gogora ekartzeko, Euskal Herriko mailarik onenean dauden palistak lehiatuko dira. Amaitzeko, I. San Martin pilota txapelketako kadete mailako finala jokatu dute Bideburu eta Arregi aramaioarrak Fernandez eta Lopez de Calle gas-teiztarren aurka.

XIII. Txirripartxis lehiaketa

Egitarau oparoarekin amaitzeko, Txirritola euskara elkarteak antolatzen duen Txirripartxis lehiaketa egongo da domeka arrasaldean osoko bilkuren aretoan. Lehiaketak 13 urte beteko ditu aurten: 6 urtetik 14 urtera artekoak 16:30ean hasiko dira eta 15 urtetik gorakoak 17:30ean.

Izena egunean bertan eman daiteke, lehiaketa hasi baino 15 minutu lehenago. Sariak euskarazko materiala erosteko abonua izango dira; 315 euro banatuko dira abonutan.

San Melixenak ospatuko dituzte Gantzaga auzoan

J.B. | ARAMAIO

Jai giroa izango da nagusi Gantzaga auzoan asteburu osoan, gantzagarrek San Melixenak ospatuko dituzte-eta. Egitarauan nobedadeak daude aurten: umeendako jolasez gain puzgarriak ere izango dira eta zapatuko erromeriaren ordezkari DJ Nerea arduratuko da gaua girotzeaz.

Txirindularitza probak, 32 urte

Egubakoitzeko kantu afariaren ostean, zapatuan txapel poteoak hartuko du lekukoa. Txapela norberak egin behar du; "edozer" onartuko da. Domekan, txistularien kontzertuan, Arrasateko taldeak hartuko du parte. Amaitzeko, Gantzaga Sariaren 32. txirindularitza proban hiru saritu egongo dira; bertako produktuak-sagardoa, sagar-zukua eta gazta-izango dira saria.

EGITARAUA

HILAK 9, EGUBAKOITZA

20:30 Kanpai errepikak eta etxafuegoak.**21:00** Kantu afaria auzoko elkartearen.

HILAK 10, ZAPATUA

09:00 Kanpai errepikak eta etxafuegoak.**12:00** Meza nagusia Aretxabaletako abesbatzarekin.**13:00** Txapel poteoa.**17:00** Mus txapelketa.**17:30** Patata tortila lehiaketa, bosgarren edizioa.**17:30** Umeendako jolasak eta puzgarriak.**19:30** Patata tortila lehiaketaren sari banaketa.**23:00** Dantzaldia DJ Nerearekin. Ohera joan aurretik txokolate beroa.

HILAK 11, DOMEKA

09:00 Kanpai errepikak eta etxafuegoak.**11:00** Balarako txistularien kontzertua.**12:30** 32. Gantzaga Saria txirindularitza proba. Izen-ematea egunean bertan.**13:00** Bermut dantza Aramaio trikitilariarekin.**17:00** Tute txapelketa.

ELGETA

Domeka honetan jokoan da V. pintxo lehiaketa

'Herrixa dantzan' berezia eta dantza tailerra ere izango dira aste bukaeran

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Pintxo eskaintza berezia izango dugu domekan. Elgetako V. pintxo lehiaketa egongo da jokoan, eta herriko tabernariak bina pintxo aurkeztuko dituzte lehiaketara. 13:00etan aurkeztuko dituzte pintxoak udaletxeko arkupean, eta, epaimahaiak baloratu ostean, antolatzaileek irabazlearen establezimenduan egingo dute sari banaketa, 14:00etan. Jainaga eta Narbaiza trikitilariak ere Elgetan izango dira; eguerdiko txikiteoa girotuko dute.

Aurten lehenengo aldiz herri-tarrek ere izango dute zer esana lehiaketan. Taberna bakoitzeko pintxo onena euro baten truke dastatu ahal izango da azaroko azken bi domeketan, eta gura duenak botoa emateko aukera izango du. Publikoaren saria azaroaren 25ean banatuko dute, eta botoa ematen dutenen artean bi lagunendako afaria zozkatuko du Turismo batzordeak.

'Herrixa dantzan' berezia

Dantzak ere protagonismo berezia izango du aste bukaera honetan. Bihar, zapatua, *Herrixa dantzan* berezia egingo du Patxi Monterok kafe antzokian. Gidatutako saioa izango da, eta zuzeneko musikarekin. Cayetano Amenabarrek, Sergio Cobošek, eta Xandre Outeirot Galiziako, Euskal Herriko eta beste lurralde batzuetako dantzak, balsak eta jotak eskainiko dituzte. Saioa



Iaz, lehiaketara aurkeztutako pintxoei begira . | JULIO CALLEJA

22:30ean hasiko da eta sarrera hamar euro da.

Domekan, bestalde, *Valsas mandadas* izeneko dantza tailerra egingo du Sergio Cobos dantza-

maisua eta dantza-biltzaile gali-ziarrak, 11:00etatik 13:00etara. Prezioa hamar euro da eta izen-emate epea barikura arte dago zabalik.

Perretxikotara irteera eta erakusketa

Urrian egindako jardunaldi mikologikoetan eguraldi txarragatik atzeratutako perretxiko irteera eta erakusketa domekan, hilak 11, egingo dira. 10:00etan abiatuko da plazatik perretxikoak batzeko irteera. Ordubete inguruko txangoa izango da. Antolatzaileek jakinarazi dute adingabeek guraso edo nagusi baten ardurapean har dezaketela parte.

Basoan batutako perretxikoak Herriko Plazan ipiniko dira ikusgai. Erakusketa 12:00etan zabalduko dute, perretxikoak sailkatu eta izendatu ostean. Inork perretxiko gehiago baditu plazara eroan ditzake, eta erakusketara gehituko dituzte.

OHARRAK

ARRAUNLARIAK

Hondarribia Arraun elkarteko 35 bat lagun Elgetan izango dira bihar, zapatua. 11:00 aldera iritsiko dira, eta traineru berdeak herrian dituen 25 jarraitzaileek hamaiketakoa, pilota eta bolo jokoak, txikiteoa eta bazkaria antolatu dituzte. Ama Guadalupekoa A traineruko arraunlari gehienak etorriko dira Elgetara egun-pasa egitera.

MUGURUTZA ANAIAK

Jabier Muguruzak *Bikote bat* diskoa aurkeztuko du domekan, hilak 11, Espaloian. Musikari irundarraren aurretik, soinu akustikoa lantzen duen Lurra taldea izango da oholtza gainean. Lau lagunek osatzen dute Lurra: Iñigo Muguruza, Carlos Zubikoa, Ander Larrañaga eta Ane Gartzia. Sarrera zazpi euro da; bost euro bazkideendako.

GABONETAKO LOTERIA

Elgetako Euzko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) jakinarazi du salgai duela dagoeneko Gabonetako Loteria. Interesatuak Maria Jesus Lete-ekin edo Begoña Ardantzarekin jarri behar dute harremanetan. Loteria hori erosteko azken eguna azaroaren 18a da, domeka. Halaber, herriko beste hainbat elkartek ere badute salgai Gabonetako Loteria.

LEINTZ GATZAGA

Egunotan asfaltatuko dute Goierri auzoko bidea eta beste bide batzuk

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Goierri auzora doan bidea dagoe-neko konponduta dago. Asfaltatze lanak falta dira bakarrik eta egunotan egingo dituztela iragarri dute Udal ordezkariak, "azaroaren 15erako seguru asko".

Goierriko bidearen kargu Aldundia egin da. Bien bitartean Udalak beste bide batzuk berritu

ditu, tartean Olaun aldera doana: "Egoera eskasean zegoen eta berritzeko lan txo batzuk egin ditugu". Hala, konpondutako bide guzti horiek batera asfaltatuko dituzte egunotan.

Egonkortasun falta

Goierri auzoko bideak konpontze lan handia behar zuen. Izan ere,

Gatzagako lurrak ez dira egonkorrak, eta ondorioz beherantz eginda zegoen bide hori. "Lurrak egonkortzeko kostu handiko lanak egin behar izaten dira; gurean merkeago egin dute baina emaitza onak ematen dituen teknika erabilita. Hortaz, lurrak mugitzen jarraitu arren bideak gelditu eutsiko dio", argitu du Asier Ugarte Hirigintza zinegotziak.

Lanak bukatutakoan hesia jartzeko asmoa dauka Udalak bide bazterrean, dirua nondik bideratu erabakitzen duenean.

IX. PILOTA TXAPELKETA

Sei norgehiagoka aste bukaeran

Aurrera segitzen du eskuz binakako txapelketak, eta aste bukaera honetan beste sei norgehiagoka jokatu dira pilotalekuan. Bost partidu bari-ku iluntzean jokatu dira, eta bakar- ra domeka goizean.

AZKEN EMAITZAK

Iban Retolaza-Diego Cantabrana / Ibon Untzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga	22-16
Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta	22-15
Mikel Ormaetxea-Haritz Makarro / Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi	06-22
Sergio Bouzas-Jon Irazabal / Iñaki Olaortua-Oskar Sarasua	22-19

BARIKUKO PARTIDUAK, 19:00ETAN HASITA

Asier Morales-Fernando Zenitagoia / Igor Irazabal-Enrike Elkor

Jabier Bolinaga-Iñaki Izagirre / Pello Larrea-Mikel Elkor

Sergio Bouzas-Jon Irazabal / Iban Retolaza-Diego Cantabrana

Jose Mari Zubiaurre- Iñaki Ugarteburu / Iker Irazabal-Jabier Larrañaga

Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe

DOMEKAKO PARTIDUA, 11:00ETAN HASITA

Luis A. Alkorta-Gorka Bolinaga / Angel Ibarluzea-Alberto Telleria

Zuzeneko salerosketak egiteko tresna berria dute baserritar eta kontsumitzaileak: 'baserrisarea.com'

Elgetarrak ere *baserrisarea.com* ekimenean parte hartzera deitu dituzte. Debagoieneko Landa Garapenerako Deba Garaia agentziako bi ordezkari udaletxean izan ziren astelehenean ekimena aurkezten. *Baserrisarea.com* atarian baserritarrek euren produktuak saltzeko aukera izango dute, eta kontsumitzaileek ere bidea aurkituko dute inguruko ekoizle batekin harremanetan jarri eta bitartekorik gabeko erosketa egiteko. Interesatuak bertan aurkituko dute ekimenaren gaineko informazio gehiago.

Asiako liztorraren erlauntza

Eguaztenean kendu zuten Lapurdi baserri ondoko zuhaitz batean agertutako erlauntza. Hostoak jausi direnean agertu da bistara, eta Asiako liztorraren erlauntz bat zen. Esan daiteke, beraz, liztor hori iritsi dela Elgetara ere. Saiakera bat baino gehiago egon dira erlauntza zegoen tokitik kentzeko. Zapatuan bi kamioierekin ibili ziren suhiltzaileak, baina, leku estua izanik, ezin izan zuten helburua bete.



ELGETAKO UDALA

Broad Peak 2010 bidaiaren berri emango du Josu Bereziartuak gaur

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Broad Peak 2010 espedizioaren gaineko kontuak ekarriko ditu Josu Bereziartua mendizale azpeitiarrak gaur, hilak 9. Kutxa-ko Gizarte Ekintzak antolatutako jarduera da; kultur etxean izango da (19:00).

Eskarmentu handiko mendizaleak hainbat lagunekin batera 2010ean egindako igoera

aurkeztuko du. Zera dio: "Abenturak eta igoerak lagunekin edo euren balioa ondo frogatua daukaten kideekin partekatzea, horrexek motibatzen nau benetan, horrexek bultzatzen nau jarraitzera..."

Ordu erdi inguruko emanaldia izango da (euskaraz), eta ondoren, Bereziartuak berak gidatutako jarduna izango da.

PILOTA

Beñat Rezusta | Pilotaria

"Munduko Txapelketa irabaztea baino zailagoa zen harako aukeratua izatea"

- Bergarakoak buruz buruko modalitatean irabazi zuen txapela
- Ibai Bolinagak ere urrezko domina jantzi du, nahiz eta finala jokatu ez

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Beñat Rezustak (Bergara, 1993) ez du Munduko Txapelketa irabazi ostean atsedean hartzeko asti gehiegirik izan, eguaztenean bertan Mexikoko bidea hartu zuelako. Rezustak buruz buruko modalitatean jantzi zuen txapela, Mexikoko ordezkariari irabazita. Rezustarekin batera Ibarreko beste ordezkari Ibai Bolinagak ere urrezko domina irabazi zuen, baina finala jokatu ez izanagatik penatuta itzuliko zen, seguru. Arrasatekoa kanporaketetan ondo ibili arren, finalera begira Inozentzio Azpiroz hautatzaileak Etxamendi aukeratu zuen atzealderako.

22 urtez azpikoen mailan munduko txapeldun zara; izen handiko titulua dirudi.

Beno, GRAVN tornea jokatzeko dugunon artean erabaki zuen hautatzaileak zeintzuk joan behar ziren txapelketara. Eta egia esan, txapelketa irabaztea baino zailagoa zen aukeratu artean egotea.

Horrenbestez, txapelketak izen handia badu ere, ez da aparteko maila egon.

Azken batean pilotari onenak hemen daude, Euskal Herrian. Txapelketan, esaterako, Mexikoko, Argentinako, Estatu Batuetako edota Frantziako pilotarien kontra jokatu dugu, baina euren lurraldean kirol hau ez dago horren errotuta. Esaterako, AEB-tako ordezkaria Euskal Herrian bizi da. Horregatik diot txapelketa irabaztea baino zailagoa zela aukeratu artean egotea. Han



Beñat Rezusta, martitzenean, Bergaran. | ANDER MONEDERO

"Pilotariek esaten ziguten bi ordu behar zituztela frontoira joateko"

geundela askok aipatzen ziguten pilotalekura joateko bi ordu egin behar zituztela kotxez, eta ez dutela norekin entrenatu; hemen ez dugu halako arazorik.

"Mexikora lasaiago joango gara, esperientziaz gozatzeraz"

Horrenbestez, ze garrantzia ematen diozu lorpen honi?

Esango nuke norberaren curriculumerako balio handiagoa duela Antiguoko edota Diario Vasco

moduko txapelketa irabazteak, bi adibide jartzearen. Baina, niretako sekulako esperientzia izan da, pilotari esker bizi izan dudana, eta horrek ere balio handia du.

Zelan moldatu zarete Tarbesen (Frantzia)?

Oso ondo. Zortzi egun inguru egin ditugu Frantzian, eta lurralde guztietako pilotariok batera egon gara, ikasle zentro batean. Hizkuntza arrazoiengatik frantsesekin baino hartu-eman handiagoa izan dugu, esaterako, argentinarrekin edota mexikarrekin. Oso jende jatorra ezagutu dugu.

Eta orain, Mexikora [Eguaztenean abiatu ziren].

Bai, han esan digute bi egunean behin-edo partiduak jokatu ditugula. Munduko Txapelketa prestatzeko gogor ibili gara entrenatzen, irabazteko helburu garbia genuen, eta Mexikora beste asmo batekin goaz. Gehiago izango da esperientziaz gozatzea. Gainera, Frantzian geundela mexikarrekin oso ondo moldatu ginen, eta pilotari berdinekin egingo dugu topo han.

Txarrena, hilabete honetan galdutako eskolak erreperatu egin beharko dituzula; gabonetan, edo...

[Barre]. Bai, mekanizatu bidezko produkzio ikasketak egiten nabil Bergaran bertan, eta galdutako egun hauek nire kabuz erreperatu beharko ditut. Baina esperientzia honek merezi du, urtero ez dut halakorik bizi izateko aukerarik izango.

ZIKLISMOA

Ivan Velasco: "Hasieratik sinetsi dute nigan"

X.U. | ARRASATE

Caja Rural txirrindularitza taldeak Iban Velasco aurkeztu du aste barruan Donostian. Aurkezpenean, arrasatearrekin batera klubeko presidente Floren Esquisabel eta Eugenio Goikoetxea kirol zuzendaria izan ziren.

Ziklista arrasatearrak talde nafarrarekin urtebeterako kontratua sinatu du eta aurtengoarekin profesional moduan egiten duen zazpigarren denboraldia izango da.

Korritzeko beste modu bat

Velasco Euskaltel-Euskadi taldeetik kanpo hasiko duen ibilbide berrian Caja Rural taldeak lehiatzeko duen era nabarmendu zuen: "Oso pozik nago talde honekin fitxatu izanagatik. Eurekin berba egin nuen lehen momentutik erabateko konfiantza erakutsi didate. Badakit errepidean aukerak izango ditudala, askatasuna izango dudala, eta gauza politak egiteko kalitatea dudala". Hala, Caja Ruralek 2013. denboraldian sei ziklista berri izango ditu: Euskaltel-Euskaditik etorritako Iban Velasco eta Amets Txurruka, Movistar Team-eko David Arroyo, Orbeako Omar Fraile, Androni-Giocattolico Francisco Moreno eta harrobiko Ruben Fernandez.



Velasco, aurkezpenean. | A.SANZ

ESKALADA

Zapatuan boulder eskalatzaile onenak batuko dira Ibarra kiroldegian

Aretxabaletako kiroldegiak hartuko du EMFk antolatzen duen zazpigarren txapelketa

X.U. | ARRASATE

Euskal Herrian boulder espezialitatean dabilen eskalatzaile onenak batuko dira bihar, hilak 10, Aretxabaletako Ibarra kiroldegi berrian. Hango eskalada instalazioak inauguratzeko modu aparta izango da, hain zuzen, halako mailako txapelketa antolatuta. Hala, Euskal Herriko mendi federazioak antolatzen

duen zazpigarren txapelketa izango da Ibarrekoa.

Adinari dagokionez, txapelketan gazte mailatik aurrerakoa izango da, senior mailara arte bai gizonezko eta bai emakumezkoetan -sari ederrekin, gainera; hori bai, txapelketan esku hartzeko derrigorrezkoa izango da federatuta egotea.



EMFk gurean antolatutako aurreko txapelketa Uarkapen (2009). | GOIENA

Eguneko programa

Txapelketa 10:00etan hasiko dute, eta lehenengo orduan eskalatzaile bakoitzari dortsala banatuko zaio. Hala, 11:00etan flash modalitateko txapelketa hasiko dute

(behe-mailako kategorien sailkapena erabakiko da probako emaitzen arabera, ez da finalik egongo.) Eta 17:30ean 20 urte artekoen eta maila absolutuen finalak jokatuko dituzte.

ESKALADA

Mikel Linazisorok Euskadiko txapela jantzi du, boulderrean

Mikel Linazisoro gazte bergararra 12 urterekin Euskadiko txapeldun izan berri da -15 urteko eskalatzaileen kontra lehiatuta- Donostiako Pio Baroja kiroldegian jokatutako txapelketan. Gazteenetakoa izanda ere, txapelketa aurretik Bergarako zen favorito, eta ez zuen hutsik egin. Harkaitzean, Rodellarren Ixeia bidea egin berri du (8b+).

ATLETISMOA

Iazko ikasgaia ondo barneratuta, domekan ibarreko 500 lagun batuko dira Behobian

Irteera ordu erdi aurreratu dute: 10:30ean hasiko dira atletak korrika

XABIER URTZELAI | ARRASATE
Iritsi da bailaratik kanpora Deba-goieneko kirolari gehien erakar-tzen duen kirol hitzordua, Beho-bia Donostia. Iaz 515 debagoien-dar iritsi ziren helmugara –Ritxar Fernandez (01:07:40) eta Kristina Goirizelaia (01:19:21) izan ziren azkarrenak– eta aurten ez dugu bailarako ordezkaritza txikiagoa espero.

Norbaitek esango du gureko ordezkariak iaz egindako markak ez direla ikusgarriak. Eta egia da, izan dira horretarako urte hobeak, marka onak egiteko, alegia; iazko lasterketa askoren-dako *infernua* izan zelako. Izan ere, gureko atleta finenak ere larri ikusi genituen, hego hai-zearen eta tenperatura altuen erruz jota, erabat jota. Domekan, helmugan iazkoak baino aurpe-gi hobeak ikustea izango da las-terketa kubritzera joango diren Goienako lankideen helburueta-ko bat: astelehenean *Harmailatik* saio berezia izango da (22:00) eta paperean eta sarean jasoko ditu-gu ibarreko atleten denborak.

Helburuak moldatu

Iaz lezio galanta ikasi zuen batek baino gehiagok; hau da, jakin egin behar dela helburu zorrotza



Iaz bero eta 2010ean –argazkian–, ostera, euripean. | JOSETXO ARANTZABAL

moldatzen, eguraldia edo beste faktoreren bat kontran badago.

Zapatila berriak, astelehenean

Eta Athloneko kirol mediku Alberto Garaik Arrasate Irratia-ri gogorarazi dionez, "ohiko

entrenamenduetan erabilitako arropak erabili lasterketan, eta pentsatu ere ez egunean bertan zapatila berriak estreinatzea; hobe arropa zaharrekin, norbe-raren gorputzera eginda dauden horiekin".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EMAKUMEZKOEN BIGARREN MAILA
Mondra-Castejon
Domeka. 16:30. Mojategi.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA
Aretxabaleta-Hernani
Domeka. 16:30. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA
Berio-Aretxabaleta
Domeka. 16:00. Berio.
Hernani-Mondra
Zapatua. 18:00. Zubipe.
Bergara-Touring
Zapatua. 15:30. Agorrosin.
Zarautz-Aloña Mendi
Zapatua. 15:45. Asti.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Getariako-Antzuola
Domeka. 16:30. Mendibeltz.

LEHEN ERREGIONALA
Aretxabaleta UDA B-Eibartarrak
Zapatua. 16:30. Ibarra.
Soraluze B-Bergara B
Zapatua. 12:00. Ezozia.

OHOREZKO GAZTEAK
Mondra-Urola
Zapatua. 18:00. Mojategi.
Ordizia-Bergara
Zapatua. 19:00. Altamira.
Aloña Mendi-Burumendi
Domeka. 16:30. Azkoagain.

GAZTEAK
Aloña Mendi-Ilintxa
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

OHOREZKO KADETEAK
Aloña Mendi-Amaikak Bat
Zapatua. 11:15. Azkoagain.
Bergara-Ordizia
Domeka. 12:00. Ipintza.
Urola-Arrasate
Zapatua. 12:00. Argixao.
Aretxabaleta UDA-Lazkao
Zapatua. 10:30. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Eskoriatza-EHU Araba
Zapatua. 17:00. Manuel Muñoz.

LEHENENGO MAILA
Zurt-Aretxabaleta
Zapatua. 17:15. Azkoitia.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Ford Mugarri-Trapagaran
Zapatua. 18:00. Iturripe.
Egia Kata-Soraluze BKE
Zapatua. 18:00. Donostia.

EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKO SENIORRA
Aloña Mendi-Ereintza
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Amenabar-Izarraitz Aloña
Zapatua. 16:00. Zarautz.

GIPUZKOAKO BIG. TXAPELK.
Arrasate-Leizaran
Zapatua. 16:00. Iturripe.
Bergara-Usurbil
Domeka. 10:00. Labegaraleta.

GAZTEAK, GIZONEZKOAK
Bergara-Amenabar
Zapatua. 12:45. Labegaraleta.
Aloña Mendi-Hondarribia
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

KADETEAK, GIZONEZKOAK
Urnieta-Berezao Aloña
Zapatua. 17:00. Urnieta.
Txikixa Pulpo-Soraluze BKE
Domeka. 09:45. Zumaija.

KADETEAK, EMAKUMEZKO.
Urola-Aloña Mendi B
Zapatua. 18:00. Zumarraga.

SASKIBAOIA

EBA
Natra Oriati-Quimisa Labor.
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

LEHEN NAZIONAL MAILA
Tabirako Baque-MU
Zapatua. 17:00. Durango.

SENIOR HIRUGARREN MAILA
Zarautz Sharks-MU B
Zapatua. 16:00. Antonianos.

SENIOR GIZONEZKOAK
Goierri Verkol-Soraluze BKE
Zapatua. 16:00. Urretxu.
Internacional-MU A
Egubakitza. 20:30. Donostia.

SENIOR BIGARREN MAILA
Leihok Zast-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Antonianos.

SENIOR EMAKUMEZKOAK
Bera Bera-Eskoriatza
Zapatua. 20:00. Donostia.

GAZTEAK ERRENDIMENDUA
MU A-Urola
Domeka. 18:00. Iturripe.

ESKALADA

EUSKAL HERRIKO BOULDER TXAPELKETA
Ibarra kiroldegian
Zapatua. 10:00. Saikapenak.
17:00 Finalak.

ERRUGBIA

SENIORRAK
Arrasate-Iruña
Zapatua. 16:00. Mojategi.

GAZTEAK
Ordizia-Durango/Arrasate
Zapatua. 12:00. Ordizia.

KADETEAK
Gernika-Durango/Arrasate
Domeka. 09:30. Gernika.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



2 URTE

1200 b/min
6 Kg

A⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA 3TS-865 E

299 € 



2 URTE

1200 b/min
6 Kg

A⁺⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-6012

340 € 



2 URTE

1200 b/min
7 Kg

A⁺⁺⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-7212X

450 € 



2 URTE

1200 b/min
8 Kg

A⁺⁺⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-8212

430 € 



2 URTE

1200 b/min
8 Kg

A⁺⁺ Sailkapen energetikoa

ONTZI-GARBIGAILUA LVF-13

399 € 




2 URTE

8 Kg

KONDENTSASIOZKO LEHORGAILUA SF 820CE

399 € 



2 URTE

LAPIKOAK OPARI

INDUKZIO PLAKA IF-33BS

430 € 




2 URTE

BARBAKOA OPARI

A⁺⁺ Sailkapen energetikoa

LABEA 6H-760AX

450 € 



2 URTE

INDUKZIO PLAKA HK-633220XB

450 € 



2 URTE

LABEA BP-3313091M

475 €



2 URTE

INDUKZIO PLAKA EH651TK11E

450 € 



2 URTE

INDUKZIO PLAKA PIK651T14E

450 € 

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batatz besteko energia kontsumoaren araberrako energia aurrezteak.

A⁺ >>> 70%
A >> 45%
B > 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



Mendi saileko batzordeko kideak eta hamabostaldia antolatzen ibili diren kideak. | OIHANA ELORTZA

MENDIA

Irudi eta bizipenak Oñatiko mendi hamabostaldian

Aloña Mendiko mendi saileko batzordean kide berriak sartu dira, eta eskalada indartzea da erronketako bat

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Mendi hamabostaldia prestatzen ibili da buru-belarri Aloña Mendiko mendi saila azken asteetan, eta datorren astelehenetik aurrera gozatu ahal izango da prestatu duten egitarauaz.

Hiru gazte berri sartu dira batzordera orain, eta bederatzi lagun daude, baina sei bat lagunek jarraituko dute. Batzordeak prestatzen du urteko egutegia eta lantaldeen laguntza izaten du horretarako. Izan ere, ekintza konkretuen inguruan sortzen diren lantaldeen laguntza izaten du batzordeak urteko ekitaldiak burutzeko, eta hamabostaldiak bere lantaldea du.

Lantalde ezberdinak

Horrela, irteerak, adibidez, beste lantalde batek antolatzen ditu. "Urtean 10 irteera izaten dira, hileko bat, abuztuan eta irailean izan ezik. Horrez gain, bi zeharkaldi ere bai, maila baxukoa bata eta altukoa bestea. Orain, GPSarekin errazagoa da, baina, askotan, bidaia bat baino gehiago egin behar izaten dituzte lantalde horretako kideek irteeraren ibilbidea ezagutzeko", dio Iñaki Idigoras mendi saileko kideak. Argazki lehiaketarako, adibidez, Ilunpetan taldearen laguntza izan dute. "Elkarlan polita sortu da bion artean, eta asko eskertzen diegu hartu duten lana".

Eskalada indartu guran

Bestalde, egun hauetan ari dira mendian federatuta daudenen txartelak tramitatzen. "853 federatu daude. Mendi federatu gehien dituen Gipuzkoako hirugarren herria da Oñati, eta bazkide gehien dituen herriko taldea", azaldu du Juan Maria Ibarrondo mendi saileko kideak.

Eskalada indartzea da batzordekideen erronka berria. Eskalada eskola berreskuratu gura dute eta Araotzeko eskolaren mantenuaz arduratu ere bai, Udalaren laguntzarekin. Bestalde, Araotz ingurua denondako erosoia izateko lanean jarraitzen dute auzotarrekin.

HAMABOSTALDIKO EGITARAUA

Hitzordu guztiak kultura etxean dira, eta doan. Salbuespena dira hilaren 22ko filmak.

AZAROAK 13

19:30 *Estados de animo, mountainbike & ski* bideo emanaldia. Ian Baquerin egilea bertan izango da.

AZAROAK 14

19:30 *Transpirenaika* parapentez. Elorrioko Iñigo Gabiriaren bideoa eta irudiak.

AZAROAK 16

19:30 *Chamonix-Zermatt mendi-eski zeharkaldia*. Udaberrian Aloña Mendiko kideek Alpeetan egindako zeharkaldiaren irudiak.

AZAROAK 20

19:30 *Bugaboos/Kanada. Eskalada eta bidaia*. Ibon Santos eta Iñaki Arenaza bergararrak dira egileak, eta Oñatin izango dira.

AZAROAK 21

19:30 *Juley Ladakh*, Felipe Uriarte mendizaleak India iparraldean zuzendutako ikus-entzunezkoa.

AZAROAK 22

20:00 *Linea continua* eta *Play Gravity* filmak. (Zinekluba)

AZAROAK 12-25

18:00 Mendi sailaren argazki erakusketa. 55 lagunek 234 argazki aurkeztu dituzte lehiaketara eta 44 onenak daude ikusgai erakusketan.

SASKIBALOIA

Natra Oñati hirugarren garaipenaren bila, Zubikoan

M.B. | OÑATI

Natra Oñati EBako A taldeko liderra da, eta horrela jarraitu gura du bihar, zapatua, 18:00etan, jokatu duen partidua ondoan. Zubikoara bisitan dator EBArako igo berri den Salamancako Aquimisa Laboratorios taldea. Helburua hirugarren garaipena lortzea da, eta Salamancakoak igo berriak diren arren, gogor egin beharko dute lan. "Guk dakigun moduan jokatu beharko dugu. Aquimisa lehen partidua irabazi zuen etxean, baina Easo Pastasen kontra jipoia jaso zuen. Dena den, kontu handiz ibili behar dugu. Puntu gutxi sartzen dituen taldea da. Jokoa asko moteltzen duena eta baloiaren jabetza bukaeraraino eramaten duena. Jokaldi landuak egiten dituzte, eta jaurtiketa libreekin puntu asko lortu", esan digu Eneko Blancok.

Kanpoko jaurtiketa

Horren aurrean, Natra Oñatik dakien jokoa egin beharko du: defentsan sendo eta erasoan puntuak sartuta. Oñatiarrek Salamancakoek baino erre-kurtso gehiago dituzte jaurtiketak egiteko. "Santurtziren kontra %60ko portzentajea izan genuen hiruko jaurtiketetan. Aquimisa taldeak hiruko oso gutxi botatzen ditu. Nahiago dute barneraketak egin. Gainera, oso gutxi jokatzen dute kontraerasoan", dio.

Natra Oñatiko jokalariek iaztik duten arantza atera gura dute. Iaz, EBako lehen bi partidua irabazi eta jarraian 12 galdu zituzten. Oraingoan, hirugarren garaipena lortu, eta Zornotzaren kantzara lider joan gura dute.

ESPELEOLOGIA

Eneolitiko edo Brontzezko Garaiko hezurak topatu dituzte Oñatin

Aloña Mendi Espeleologia Taldeak arkeologoek esku utzi ditu aurkikuntzak

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendi Espeleologia Taldekoek ezusteko ederrarekin egin zuten topo aurreko astean: koba batean lanean zihardutela, orain dela 4.000 urteko giza-hezurak izan daitezkeenak aurkitu zituzten; edo beste modu batera esanda, Eneolitiko edo Brontzezko Garaiko hezurak. "Hezurak antzina-ko ehorzketa batekoak izan daitezke", adierazi dute Aloña Mendiko Espeleologia Taldekoek. Hezurak zeuden lekua estua eta iristeko zaila denez, handik atera

eta arkeologoek esku utzi dituzte, egin beharreko ikerketak eta analisiak egiteko.

Buztina kentzen

AMETeko kideak lanean zeuden kobak galeria estu batetik zuten jarraipena. Uda partean sedimentuaren eta sabaiaren artean zegoen tarte txikitik (bost zentimetro) aire korrontea sumatu zuten. Hori horrela, kobara itzuli, eta bi orduz buztina kentzen ibili ziren. Bada, ez zuten kobaren jarraipenik ikusi.

Hurrengo egunean, ontziekin eta sokekin itzuli ziren kobara. Metro batzuk aurreratuta, galeria zabaltzen, etzanda buelta emateko adina, behintzat. Beste bi estugune igaro ondoren, koba bukatu zen.

Galeria zabaltzen zuten bitartean, tarteka giza-hezurak topatu zituzten, euren arteko lotura anatomiko barik, sakabanatuta eta sakonera desberdinetan: batzuk, lurrazalean; eta beste batzuk, berriz, 20 edo 40 zentimetro lur azpian.



AMET taldeko kidea, aurkitutako giza-hezurretako batekin. | AMET

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otarora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Arte kale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behea

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FARMAZIA

AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL

Oñati / Kale zaharra,1 / 943 78 01 22

amaiaigartua1@gmail.com

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Apendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE

Arrasate / Uarkape kalea 14, behea / 657720049

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

KULTURA



lazko film laburren rallyan parte-hartzaile guztiek eta antolatzaileek ateratako argazkia, bukaeran. | OÑATIKO FILM LABURREN RALLYA

Plato erraldoi bihurtuko dira Oñatiko kaleak eta bazterrak bihar, zapatua

- Bihar, zapatua, hirugarrenez egingo da Oñatiko Film Laburren Rallya
- Lehen aldiz, ikuslearen saria ematea erabaki dute OLRko antolatzaileek

MAIDER ARREGI | OÑATI

Lagun artean sortu zela ideia kontatu digu Ruben Idigoras antolatzaileak. "Oñatin film laburren rallyrik ez zen egiten, eta lagun talde batek antolatzea erabaki genuen orain hiru urte". Lehenengo urtean zazpi taldek

hartu zuen parte; bigarrenean, hamaikak; eta aurtun, oraingoz, 15 taldek eman dute izena. "Urte-tik urtera geroz eta jende gehiago hartu du parte, eta pozik gaude harreragatik", dio Idigoras. Guztira, 90 lagun pasatxok parte-hartzaile eta antolatzaileak batuta Oñati zinema-plato erraldoi bilakatuko dute. "Herriari bizia ematen dio lehiaketak, jende asko mugitzen du-eta".

Baina ze jende mota animatzen da horrelako lehiaketa batean parte hartzera? "Askok errepi-katu egiten dute. Beste urte batzuetan parte hartutako taldeak ditugu aurtun ere. Amateurrak bai, baina zinema edota iragarki munduko profesionalak direnak ere animatzen dira; Bilbo aldetik datozenak, esaterako".

Oñatiko hamar txoko

Antolakuntzak Oñatiko hamar txoko proposatuko ditu grabazioa egiteko. Horietatik bat aukeratu beharko dute parte-hartzaileek. "Emango diegun objektu bat ere kontuan izan beharko dute", azpimarratu digu.

"Goizean, zortzietan gaia banatuko dugu gaztelekuan. Ondoren, taldeek gidoia, grabazio lanak egin eta muntaia egin ostean, lanak aurkeztu beharko dituzte arratsaldeko zazpietarako. 19:15ak eta 20:30ak bitartean parte-hartzaileendako luncha egongo da Santa Anako sarreratxoan".

Eta egindako lan guztiak ikusleko aukera ere egongo da: Santa Ana antzokian, 20:45ean. 22:30ean da sari banaketa.

Publikoaren saria

Lehenengoz ikustera joaten direnek gustukoena saritzeko auke-

ra izango dute. "Film labur guztiak eskaini ostean, ikusleak paper baten gustukoaren izena jarri behar du, aurtun Ikuslearen saria emango dugu-eta". Epaimahaia zehazteke dagoela esan digu Idigoras; dena den, zinemaren eta artearen arloan

lanean diharduten debagoiendarrak ere epaile lanetan ikusiko ditugu: "Aitor Mantxola zinema-argazki zuzendaria, Maider Egues kazetaria eta Pake Leku antzerki taldeko bi kide lotu ditugu". Bihar, Oñatiko txokoak protagonista izango dira, beraz.

DATUA

15

TALDE

Momentuz, 15 taldek eman dute izena lehiaketan. Antolatzaileek, gehienez, 20 talderendako lekua dagoela esan digute.

ESANAK

"Herriari bizia ematen dio lehiaketak; jende asko mugitzen du, 90 lagun pasatxo"

RUBEN IDIGORAS | OLR



Hegoaixe talde eskoriatzarra, iaz, *fotocall*-ean. | ORL

"Ondo pasatzeko helburuarekin goaz"

Eskoriatzako Hegoaixe taldeak badu eskarmentua film laburren rallyetan. Oñatikoan hirugarrenez izango dira. "Beti laugarren geratzen garela esaten digute! Ondo pasatzera goaz", diote. "Ikustera joaten direnek barre edarrak botatzen dituzte gure lanekin; irabazteko asmo barik joateak laguntzen digu gure lanak beste faktore umoretsuago bat edukitzean". Izan ere, Eskoriatzako rallyan ikusleek Hegoaixeren umorea saritu zuten.

Garaikur berria sarituendako

Misterioa da sari gisa emango den lana nork egin duen jakitea. Oñatiar baten lana dela bakarrik dakigu; hain zuzen ere, txantxiku bat enkadratua eta mundu bola baten barruan irudikatu gura izan duela jakinarazi nahi izan dute antolatzaileek.



Sarituen garaikurra. | ORL



Su ta Garren bideoklipa gerra aurrean dago girotuta, taldekideen janzkerak erakusten duen moduan. | ARGAZKIAK: ARTEMAN



DIM taldearen grabazioa Udalatx barruko harrobian.



Konfekoop-eko bideoklipa grabatzen; tartean, Jon Sarasua.

Su ta Garren bideoklip berriak Debagoienean du jatorria, Artemanen eskutik

- ▶ Artemanen beste bideoklip batek 143.000 bisitari gainditu ditu Youtuben
- ▶ Konfekoopendako egindako bideoklipa, berriz, domekan aurkeztuko dute

UBANE MADERA | ARRASATE
Mota askoko lanak egiten ditu Arteman Komunikazio kooperatibak; besteak beste, bideogintzan: korporatiboak, dokumentalak, spotak, historikoak...eta iaz bideoklipak egiten ere hasi ziren.
Bada, justu azken adar horrek fruitu emankorrek eman dizkio

azkenaldian Aretxabaletako komunikazio agentziari.
Bideoklip onena
Sari batekin hasi ziren albiste pozgarriak iristen Artemanera, nazioartetik, gainera. "Belgikan urtero Metal Female Voices Fest (MVFM) emakume ahotsa oinarri

du ten nazioarteko metal taldeen jaialdi ospetsua antolatzen dute. Aurten, jaialdiaren 10. edizioan, beste batzuen artean, Iruñeko Diabulus In Musica (DIM) taldeak parte hartu du. Eta Arteman Komunikazioak taldearentzat egindako *Sceneries of hope* kantuaren bideoklipak MVFM jaialdiaren bideoklip

onenaren saria jaso zuen", jakinarazi du Iker Barandiaranek, Arteman kooperatibako kazetariak. "Hori urriaren amaiera aldera izan zen. Bada orain dagoeneko Youtuben 143.000 bisitari baino gehiagok ikusi du guk egindako bideoklipa. Hori astakeria hutsa da!", gaineratu du.

Udalatx barruko harrobia

Bideoklipa bera ikusgarria dela ere kontatu du Barandiaranek. Eta bideokliparen ekoizketa Debagoienean egiteaz aparte, haren zatixo bat Debagoienean bertan grabatuta dagoela ere bai, Arrasaten, hain justu ere; eta gainera, punta-puntako teknologia erabili ta: "Paraje naturaleran grabatuta dago, Añanako Gatz Haranean (Araba), Urederran (Urbasa, Nafarroa) eta Arrasateko Udalatx barruko harrobian. Helicam bat erabili genuen Udalatx barruan, urruneko-agintarekin erabiltzen den kameradun helikoptero txiki bat. Oso irudi ikusgarriak atera genituen".

Su ta Gar gerra aurretik

Eta orain, Diabulus In Musica taldeari egindako bideokliparen oihartzunari esker, beste proiektu entzutetsu batean dihardu Artemanek: Su ta Gar talde heavyaren bideoklipa grabatzen. "DIMen bideokliparen kontura eskatu digu Su ta Garrek berea grabatzea, baina jakin aurretik DIMen bideoklipak saria eskuratu duenik", zehaztu du Artemaneko kazetariak.

Kontuak kontu, egunotan buru-belarri dihardute Eibarko musika taldearen *Zain zure zain* kantua irudiz janzen: "Azpeitiko tren museoan gabiltza. Extra askorekin eta aktore ezagun batzuekin. Adibidez, Leyre Berrocal (Camera Obscura, Extasis... filmak) aktorearekin. Film labur

eta bideokliparen arteko nahas-keta izango da, eta Gerra Zibilaren aurreko sasoiari girotuta dago. Besteak beste, tren baten barruan egin ditugu grabazioak. Azaro-abendurako bukatuko dugu", zehaztu du Barandiaranek.

Kooperatibismoa goraipatzen

Bada hori egiten diharduten bitartean, Arteman Komunikazioak egindako beste lan batek oraingo domekan ikusiko du argia. Hain justu, kooperatiben gaineko bideoklipa egin eta grabatu dute, kooperatiben nazioarteko urtea dela-eta.

Eta kasu horretan ere debagoiendarrak izan dira lanaren egile eta ekoizle: Jon Sarasua aretxabaletarra izan da bideokliparen zuzendari artistikoa eta kantuaren egilea; Oier Sarasua eta Aitor Ziardegi aretxabaletarrak, berriz, izan dira musika-egileak; Oñatiko Ganbara Abesbatzako 15 lagunek jardun dute ahotsa jartzen; eta esandako moduan, Arteman Komunikazio kooperatiba aretxabaletarra arduratu du lana koordinatu eta zuzentzeaz, eta grabazioa eta post-produkzioa egiteaz.

15 hizkuntzatan

Horren guztiaren emaitza, duda barik, oso deigarria izango da, besteak beste, 15 hizkuntzatan egindako kantua landu dutelako bideokliperako. Katarain estudioetan (Azkarate-Nafarroa) grabatu zuten. Konfekoop erakundeak eskatutako lana izan da hau. Helburua da "mundu guztira hedatzea kooperatibismoa balizko eredu gisa, kooperatibismoak mundu hobia eraikitzen laguntzen duela".

Oraingo domekan, azaroaren 11n Durangon ikusi ahal izango da emaitza, Kooperatiben jaiaren Landako gunean.

Kolonbian gertatutako bahiketaren gaineko liburua aurkeztuko dute Bergaran, gaur

U.M. | BERGARA
Bergarako Gaztetxeko Angiolillo liburutegiaren eskutik Asier Huegunek *Kolonbian bahitua* izeneko liburua aurkeztuko du, kartzela zaharrean. Aurkezpenaren ostean solasaldia egingo dute. Hitzordua gaur, egubakoitza, da, 18:00etan.

Egunerokoa liburu

Orain dela bederatzi urte Kolonbiako ELN Nazioa Askatzeko Armadak 74 egunez bahitu zuen

Asier Huegun donostiarraren testigantza biltzen du liburua. Bidaia egunerokoa izan behar zena, bahiketaren eguneroko bihurtu zen: "Inolako pretentsiorik gabe, niretzako testigantza geratu zedin. Denbora pasa gisa hasi ginen idazten egunerokoa idazten, ez genekien-eta idatzitakoa handik ateratzeko aukera izango genuenik". Bahituta zegoela bururatu zitzaion liburua kaleratzearen aukera. Gari Uda-be kazetariak idatzi du.

Poxpolo eta Mokolo pailazoez Osintxun egin behar duten 'Martxa!' ikuskizuna hilaren 18ra atzeratu dute

Poxpolo eta Mokolo pailazoez Osintxun egitekoak ziren *Martxa!* ikuskizuna atzeratu egin dute. Hilaren 11n, oraingo domekan zuten hitzordua. Bada, hilaren 18ra atzeratu dute. Hori bai, ekitaldia hasieran iragarritako lekuan, Osintxuko frontoian egingo dute, 17:30ean, *Azaroa gaztañatan* izeneko programaren barruan. Poxpolo pailazoez lagun berrien bisita jasoko du *Martxa!* ikuskizunean, aspaldikoak ahaztu gabe. Ikuskizunean magia, sentimenduak eta abesti berrientzako lekua izango da.

Bizkaiko ahotsek Euskal Herriko kantuak eta sakroak interpretatuko dituzte Bergaran

Gorlizko Lirain abesbatzak 12 kantuko kontzertua egingo du bihar, zapatua

U.M. | BERGARA
Iazko uztailan Bergarako Aritzeta abesbatzak Gorliz (Bizkaia) kontzertua eman zuen. Bada orain, kontzertu hari "erantzuten", Gorlizko Lirain abesbatzak Bergara bisitatu eta bihar, zapatua, emanaldia egingo du Santa Marina parrokan, 20:00etan.

Denetariko kantuak

12 kantuko errepertorioa prestatu dute Bergarako. Autore batzuek aipatzearren, adibidez, Giuseppe Verdiren *Nabucco* opera interpretatuko dute; Enric Moreraren *L'Empordá*, Abalos anaien *Carnavalito*, J.M. Gonzalez Bastidaren *Saratarra* eta Zapirainen *Euskalherriko*.

Halako trukeak egiten direnean, normalean etxeko taldeak berak ere parte hartzen du kontzertuan, baina oraingoan Bergaran egin berri duten organo zikloa-



Lirain abesbatzako kideak, taldeko argazkian, dotore. | LIRAIN

rekin okupatuta egon dira bergarrak eta ez dute abestuko.

Lirain abesbatzari berari dagokionez, berriz, 1992an sortutakoa da, Juan Manuel Goikoeztearen eskutik. 30 lagun baino gehiagok osatutakoa da eta Loli

Igartuak jarduten du zuzendari lanetan. Saioei dagokienez, berriz, Euskadin zein Euskal Herritik kanpo jardun izan da 90eko hamarkadaz geroztik, besteak beste Vianan, Italian, Pragan, Parisen eta Vaticanon.

Francis Diez | Musikaria

"Kontzertu berezia izango da Bergarakoa; bertan egotea ez zaio inori damutuko"

- 17an joko du Doctor Deseok Udal Pilotalekuan
- Bira bukaerako kontzertua izango da

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Doctor Deseo taldeak Bergarako Udal Pilotalekuan joko du azaroaren 17an. *Al amanecer seguir soñando* diskoarekin dator, baina kontzertu berezia antolatu dutela aurreratu dio Francis Diez abeslariak GOIENARI.

Biraren azkenetan dago Doctor Deseo. Zer-nolako kontzertua eskainiko duzue Bergaran?

Biraren azkenetan gaude, bai, eta, egia esan, oso momentu berezia bizi dugu orain. Agertokian jarri dugu indar guztia eta Bergarako kontzertua berezia izango da, duda barik.

Ze ikusi eta entzungo dugu, ba, Bergarako pilotalekuan?

Bi arrazoiengatik izango da berezia: batetik, berezia izango da tokiagatik. Bergarako kontzertua Udal Pilotalekuan izango da eta aretoek ematen ez dituzten aukerak ematen ditu frontoi batek. Hau da, pilotalekuan eserita zein zutik jarraitu ahal izango du kontzertua jendeak, eta horrek aukera ezberdinak eskaintzen dizkigu. Taldeko teknikariak egon dira dagoeneko pilotalekuan, soinu probak egiten, eta soinu egokia dela baieztatu dute; beraz, alde horretatik ez da arazorik izango.

Bestetik, kontzertu guztiak bereziak izaten ahalegintzen gara, eta Bergarakoa beste erronka bat da guretako. Azken petardo-sorta izango da. Kontzertura joaten denari ez zaio damutuko joan izana.

Azken lanak antzerki kutsu berezia ere badu. Ikusiko da hori Bergarako kontzertuan?

Bai, horixe. Horrek guztiak izango du isla Bergarako emanaldian. Gainera, Gipuzkoako azken-aurrekoa izango da, Andoingoak bakarrik geldituko zaigu; horren ostean, erretiratu egingo gara lanerako eta oholza gainera 2014an bueltatuko gara berriz. Bergara eta ingurukoendako ez ezik, Elorrio eta Durango aldekoendako ere aukera izango da datorren asteko kontzertua.

Kontzertu hauen ostean atseden hartuko duzue, beraz?

Bai, lan berria prestatzeko. Baina orain, gelditzen zaizkigun kontzertuak bakarrik ditugu buruan.

Zuzenekoak ere indarra du, ezta?

Bai, sekulakoa. Lana lana da, bai, eta disko berri bat prestatzeko fasea oso garrantzitsua da guretako ere, baina edozein musikarirendako pisu handia du agertokiak, hortxe erakusten duzula lana. Guk oso serio hartzen dugu lan hori, asko lantzen ditugu zuzeneko kontzertuak. Eta Bergarakoa ez da salbuespena izango, festa polita izango da.

Hamahirugarren lana da *Al amanecer seguir soñando*. Zenbaki esanguratsua da hamahirua.

Zenbaki ona iruditzen zaigu eta indar berezia jarri dugu lan honetan. Antzerki formatua eman gura genion hamahirugarren lanari. Metaformosiaren formula berreskuratu eta beste esparru batera eraman gura genuen lana. Pozik gaude emaitzarekin. Euskal idazle eta margolarien kolaborazioa izan dugu, eta polita izan da.

Jesus Maria Lazkano pintore bergarra da horietako bat.

Benetan pozgarria izan da idazle zein margolari horiekin guztiekin kolaboratzea. Batetik, diskoak izugarritzko arrakasta izan du. Aurrekoak baino hobeto saldu da, ale kopuru gehiago denbora

laburragoan. Gainera, kontuan izan behar da bizi dugun egoera ez dela ona eta disko salmentak ere behera egin duela.

Eta hori guztia posible izan da guztion elkarlanagatik. Diskoa bera guztion artean egin dugu -eta. Kontua ez da idazle eta marrazkigile horiek lana ilustratu bakarrik egin dutela, taldearen ikuspegia zabaltzeko lana egin dute. Bi esaldi jarri genituen abiapuntu moduan: "Maitagarrien ipuinak egiazkoak dira, dragoiak existitzen direla erakutsi ez ezik, garaitu daitezkeela erakusten digutelako"; eta "amestu, desiatu, izorratzen gaituen guztia birmoldatzen saiatu". Hortik aurrera bakoitzak nahi zuena egin zuen.

Berri errepikatzeko moduko formula da, beraz?

Oraingoarekin, behintzat, oso gustura gaude. Oso ondo funtzionatu du eta benetan gozagarria da idatz, margotu edo musika egiten duten artistekin lan egitea. Esperimentatzeko beste bide bat da, duda barik.

Martxoan egin zenuten lehen zuzeneko. Zein da orain arteko bizipena, esperientzia?

Egia esan, esperientzia interesgarria eta arriskugarria izan da. Bizi dugun krisi egoera zein den jakinda, taldekide kopurua edo ikuskizuna murriztu beharrean, bi taldekide berri hartu eta emandaldi berezia prestatzearen alde egin genuen, eta emaitza ona izan dela esan dezakegu, areto handiak betetzea lortu dugu-eta.

Krisia bazter guztietara heldu da, ezta? Baita kulturara ere.

Bai. %13 igo da artistok, aretoek edo kultura munduko eragile ezberdinek ordaindu beharrekoa, eta horrekin egin beharko dugu aurrera, nahiz eta dezente estutu gaituen igoera horrek.

Hamar abesti ditu lan berriak. Horietako bat euskaraz. Bergaran ere entzungo zaitugu euskaraz?

Azken hamar diskoetan saiatu gara abesti bat edo beste euskaraz egiten. Euskararekiko dugun



Francis Diez da Doctor Deseoko abeslaria. | AXIER GARAI / HONTZA PRODUKZIOAK

konpromiso bat da. Euskararen Egunean, esaterako, joan den urtean, euskaraz egin genuen kontzertua, Mendizorrotzan, eta garrantzitsua izan zen guretako. Geurekin dugu euskara, eta konpromisoa dugu harekin.

1987an atera zenuten lehen lana.

Denbora pasatu da ordutik hona. Bilbao Hiria denaren hastapenak izan ziren lehiaketa bat irabazi genuen urte hartan. Sorpresa izan zen denondako, sorpresa ona, noski. Musika egiten hasi berriak ginen gu orduan eta inork ez zuen gure garaipena espero. Dirua zen saria, eta diru harekin lehen lana autoproduzitu genuen.

"Lehen diskoetako entzuleak eta 18-19ko gazteak datoz entzutera"

"Bira honen ostean, 2014an bueltatuko gara zuzeneko kontzertuetara"

Suicidas etxeak ekoiztu zuen ondoren, eta hortxe hasi zen gure ibilbidearen hasiera.

Egia esan, inoiz ez dugu etorkizunarekin pentsatu, orainarekin baizik. Une honetan ere bira bukaerarekin ari gara buru-belarri. Eta, egia esan, modu horretan lan egiteak emaitza onak eman dizkigu orain arte.

Entzuleak aldatu egin dira?

Gure bidea gure garapen pertsonalari lotuta egon da, bilakaera indartsua egon da taldean, ez bakarrik estetikari begira, eta horrek, noski, isla izan du entzuleengan ere. Horregatik, asko poztzen gaitu adin ezberdinetako entzuleak ikusteak. Lehen kontzertuetara etortzen zirenak dira entzuleetako asko, baina badaude oraintxe ezagutu gaituzten 18-19 urteko gazteak ere, eta hori ederra da, benetan. Garrantzitsua da taldea publikoari begira eraberritzea ere. Bakarrik lehen diskoetako entzuleak izateak esan gura du taldea nostalgia fasean sartzen ari dela, eta hori tamalgarria da.

Bergarako kontzertura joateko arrazoi bat?

Berezia izango da, dugun guztia emango dugu, eta jendea gustatu egingo zaio.

Musika eta mugimendu biziz dator Brodas Bros-en 'Concierto Concepto'

Hip-hop doinuak, funka eta elektronika, dantzariekin uztartuta

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Brodas Bros taldeak *Concierto Concepto* ikuskizuna taularatuko du domekan, hilak 11, Amaia antzokian, 19:30ean. Bartzelonan 35.000 ikusle izan ditu ikuskizun horrek. Kultura Sailak antolatutako saioak dantza indartzeko xedea du; hain zuzen, Udala aspalditik ari da dantza bultzatu guran.

Duela sei urte sortu zen taldea Bartzelonan. Bi anaia kalean dantzan hasi eta zerbait serioagoa egitera animatu ziren, Brodas Bros konpainia sortuta. Haiei beste lau lagun gehitu zitzaizkien: bi ahizpa eta bi b-boy.

Karmelo Alberdi Arrasateko Kultura teknikariak ikuskizunaz egin digu berba: "*Concierto Concepto*-k musika kontzertu bat izan gura du, baina dantzariekin. Hip-hop, funka eta elektronika musika, dena dantza biziekin batera". Zuzeneko musikarik ere ez da falta izango eta dantzariekin batera perkusio jolea, DJa eta beatboxean aditua den flautista-saxofonista egongo dira. Estetikak eta teknikak pisu handia duten emanaldia domekakoa.



Concierto Concepto ikuskizunak zuzeneko musika eta dantza uztartzen ditu. | ARRASATEKO UDALA

Hiri guztietako antzerkiak gainezka izan dituzte estreinaldietan

LAIDA BERISTAIN | BERGARA

Joan den asteburuan eta eguaztenean, Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea*-ren egokitzen antzezlanak estreinatu zuten Donostian. Aurretik, Bilbon eta Gasteizen estreinatu zuten. Patxo Telleriak egokitu du.

Aktoreetako bat Mireia Gabilondo bergarra da. Carmenen, soinujolearen amaren, papera antzezten du. Egon diren hirietako antzokiak gainezka izan dituztela dio, eta oso pozgarria dela antzokia beteta ikustea. Horrez gain, jaso dituzten iritziak ere oso onak izan direla dio.

'Barrura begiratzeko leihoak'

Mireia Gabilondo zuzendari lanean ere badabil beste proiektu batean: *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentalean, hain zuzen ere.

Donostiako Zinemaldian dokumentala emititzeko arazoak izan zituzten arren, jendearengan oso harrera ona eta polita izaten ari dela dio Gabilondok, eta jende asko inguratu dela dokumentala ikustera.

Orain herriz herri proiektatuko dute dokumentala. Gabilondok aipatu duenez, urte bukarara arte 30 herritan izango da ikusgai.

Rock-and-rollera, garagea eta bluesa azaroko Kooltur Ostegunetan

Z.V.D.M. | ARRASATE

Atzo eman zioten hasiera Arrasateko Gaztetxean azaroko Koolturko egitarauari. Javier Sun musikari donostiarra izan da hilabete honetako lehenengo gonbidatua. Artista beterranoa The Scooters taldean hasi zen 80ko hamarkadan, eta orduko kantuak interpretatu zituen atzo, bai eta The Beatles, The Who, Neil Young eta bestelako taldeen bertsioak ere.

Rocka, bluesa, punka...

Max Gamuzak hartuko du lekukoa datorren egunean, hilak 15; rock eta garage musika egi-

ten du aspalditik asturiarrak, eta *Los buenos momentos están aquí* diskoa aurkeztuko du, Guanch, Joseba Baleztena, Joseba Irazoki eta Iñigo Ortiz de Zarate alboan dituela.

Fermin Muguruzak azken dokumentalerako propio sorturiko Zuloak hirukotea igoko da gaztetxeko oholtzara azaroaren 22an. Hileko azken hitzordua 29an izango da eta Krissy Mathieus arituko da, blues eta rock doinuekin ikus-entzuleak gozarazten.

Hitzordu guztiak, beti bezala, egunetan, 22:00etan, Arrasateko Gaztetxean.

'Papiroflexia' dantza emanaldia Zabalotegin

L.B. | BERGARA

Circle Of Trust dantza taldeak eta Logela multimediak sortutako musika eta bideoek osatutako *Papiroflexia* dantza emanaldia izango da ikusgai Bergarako Zabalotegi aretoan azaroaren 11n, arratsaldeko zazpitan.

Gazteentzat zuzendutako emanaldia izango da, eta ikusi ahal izateko sarrera lau euro ordaindu beharko dute interesatuek.

Ikuskizunean, dantza indartsua eta denbora errealean sortutako irudien sinkronizazioa uztartzen dituzte. Dantzak breakdance, funka, house eta jazz estiloen arteko nahasketa dira.

Irudiaren abiapuntua, berriz, folio zuria da, tolestuz sormenezko milaka konbinazio erakusten dituen.

'Asaba zaharren oihartzuna' gaur Amaia antzokian

L.B. | ARRASATE

Gaur, egubakoitza, Arizmendi Ikastolako guraso eta irakasle talde batek sortuta, *Asaba zaharren oihartzuna* antzezlanak izango da Arrasateko Amaia antzokian, gaueko hamarretan.

Joxerra Zubizarreta Arizmendi Ikastolako irakaslea izan zen antzezlanak egiteko ideiarekin bultzatzailea. Besteak beste, Txikitxu-Arrostaitz dantza taldearen, Arrasateko dultzaineroen eta Goikobaku-Arizmendi abesbatzaren laguntzarekin atera dute ideia aurrera.

Idea orain dela hiru urte sortu zen, Nabarralde elkar-teak Nafarroako konkistaren 500. urteurrena zetozele-eta, ospakizunaren antolaketan Oñatiko Ikastolak eta Arizmendi Ikastolak parte hartu zuten-eta.

IRABAZLEAK

"ZULOAK" KONTZERTUA
ANA
LOIDI ASTIGARRAGA
(Antzuola)

"CONCEPTO CONCERTO"
DANTZA IKUSKIZUNA
MAITE
ARANA OSINAGA
(Arrasate)

Zorionak!



PENDRIVE
BAT

Bidali KLUBA PENDRIVE
[bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira

goiena



LIBURUA
ETA DVDA

Bidali KLUBA LIBURUAK
[bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira

PAMIELA



DVD
ERREPRODUKTOREA

Bidali KLUBA DVD
[bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

EROSKI



UMEENTZAKO
JOKUA

Bidali KLUBA JOKUA
[bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

Argia

Parte
hartzeko

Telefonoz:
943 25 05 05
E-postaz:
kluba@goiena.com
WhatsApp bidez:
688 69 00 08
Parte-hartzaile
guztien artean
zozketatuko da.

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!



goienakluba[™] 2012

Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
goienakluba.com
Urteko kuota: 50 €.

Endika Ruiz | Irakaslea

"Txapelketak mereziko du, finala festa-egun bihurtu dugu, finalaren aurreko poteo, bazkari eta guzti!"

AMAIA GARATE | OÑATI

Endika Ruiz (Oñati, 1990) Heziketa Fisikoko ikasketak egiten ibili zen EHUn, Gasteizen. Gaur egun, Elkar Hezi Ikastetxean ordezkapen bat ari da egiten Lehen Hezkuntzako bigarren mailako tutore gisa. Urtean zehar Oñatiko kiroldegiko multikirol, psikomotrizitate eta jolasak ematen ditu. Horrez gain, VI. Oñatiko Bertsolari Txapelketan prestatze lanetan ibili den lagun taldean dago.

Nork bultzatu zintuen bertsolaritzan sartzera?

Bertsolaritza txikitatik ezagutzen dudun arren, 13-14 urterekin eman genuen koadrilan eta futboleko batera genbiltzan lagun batzuek bertsotarako jauzia. Kasablan-kako gaztetxean hasi ginen, Ander Lizarralderen gidaritzapean; bertatik Portuko sotora eta ondoren bertso eskolara. Hainbat txapelketatan ere hartu dut parte. Esperientzia ederra izan zen, topera bizi izan nituen. Herrian ere erantzun ederra izan zuen eta ohikoa zen asteburuetan bertsoetan ez zekiten koadrilakoak eta lagunak ere bertsoetan entzutea. Bestalde, ordutik aurrera, bertsolaritzat baino gehiago, bertsoazaleztat daukat nire burua.

Nolatan zaude VI. Bertsolarien Txapelketako antolakuntzan?

Bertso eskolan maisu lanetan aritzen naiz Julen Aranbururekin batera. Irakasteko askorik ez daukagunez, eragitean oinarritzen da gure lana. Koadrila ederra osatzen dugu eta ikasleen jarrera ere izugarri ona da. Txapelketaren antolakuntza talde bat osatu genuen. Sei lagun gaude bertan, eta irailean hasi ginen batzen. Asteaz zehar batzen gara eta lanak zehazten ditugu: datak, lekuak, ideia berriak, sintonia... Ondoren, lan horien ardurak gure artean banatzen ditugu hurrengo bileran dena egunean jartzeko. Antolakuntzan laguntzeko sartu nintzen arren, gogoko ditut horrelako gauzak, eta horrelako ekintzetan laguntzea ederra da benetan.

Anekdotak moduan, txapelketa aurkezteko afaria egin genuen baserritarren elkartean. Bertan, antolatzaile, bertsolari, gai-jar-tzaile, epaile eta laguntzaileak batu ginen. Sintonia aurkeztu ostean, txapelketaren nondik norakoak aurkeztu genizkien

bertsolariei. Ondoren, afaria eta zozketa. Bertsolari bakoitzak zein kanporaketatan abestuko zuen zozketatu behar genuen. Jon Irizar gure bertso eskolako ikasleari Arranon abestea egokitu zitzaion. Ia bi metro dauzka Jonek, eta zalantzak genituen Arranoko taulan sartuko ote zen. Afalostean joan ginen proba egitera... eta, pentsatzen genuen moduan, ez zen sartzen! Horregatik, orain arteko mahai gaineko taula txikiago batengatik aldatu beharko dugu aurten.

Bestalde, aurtengo sintoniaren doinua Agurtzanek eta Ezozik trikiti eta panderoz sortu dute. Ondoren, Iñakitxo Txomingain-en letra ederrak sartu ditugu, eta, amaitzeko, Iñigo Ugartek tronpetak, bateria eta baxua ere sartuko ditu. Txapelketak merezi izango du, finala festa-egun bihurtu dugu, finalaren aurreko poteo eta bazkari eta guzti!

Bertsolaritzaz aparte, baduzu beste zaletasunik?

Futbola txikitatik gustatu izan zait, infantiletan hasi nintzen Jon Aias entrenatzailearekin. Harekin egin nituen gazteen azken urtera arteko denboraldi guztiak. Koadrila bera ere, ia osorik, bertatik sortu genuen eta Aias-ek ikaragarri irakatsi zigun harekin eman genuen 6-7 urteetan.

Orain, laugarren urtea egin behar dut Aloña Mendiko lehen taldean. Giroa bikaina da, eta, Mondraren kontra galdutako derbiak min eman zigun arren, denboraldia oso txukun hasi dugu. Nik neuk lesio bat izan nuen denboraldi hasieran, eta nahiko burukomin ematen dabil. Orain arte ez naiz taldearekin entrenatzen hasi, baina laster egiteko asmoa dut, korrika saio batzuk egiten hasi naiz eta! Kirolariarentzat min hartuta egotea gogorra den arren, lanean ari naiz, eta ea laster jokatzeko aukerak izaten ditudan, gogotsu nago-eta!

MARRA AZKARREZ

Zure herriko txoko maiteena: Aker tabernako terraza.

Gosari gustukoena: Mendi buelta baten ostekoa.

Bidaia gustukoena: Koadrilakoekin Conilera egin nuena.

Kantu gustukoena: Berri Txarrak-en *Iraila*.

Gogoko liburu bat: *Jugar con el corazón*, Xesco Esparrena.

Beldurra, zeri? Bakardadeari.

Bidaiazteko toki bat: Korsika.

Gogoko janari bat: Onddo-nahaskia.



Endika Ruiz, VI. Bertsolari Txapelketako kartelarekin.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaion etxea salgai. 105 metro koadrokoa: hori logela, egongela, sukaldea etabikomun. Sukaldea eta komunak guztiz ekipatuta ditu. 18 metroko garaje itxia atari ondoan. Erabilgarriak diren 15 metroko ganbarrak. 1669 70 39 77 edo 652 72 83 60 (Mariasun)

Arrasate. Zarugalde kalean. Bi logela eder, egongela zabalak, sukaldea eta komuna. Horrez gain, terraza zabalak, balkoia, trastelekua, igogailua eta berokuntza indibiduala. Sukaldea eta komuna guztiz jantzita. 2006ko eraikina da. Interesatuok, deitu 660 20 58 92 edo 653 71 79 03 telefono zenbakira.

Arrasate. Krisira egokituriko prezioa. Etxe eraberritua salgai. Altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bikomun, egongela eta sukaldea. Hiru igogailu eta gas naturala. Interesatuok deitu 650 010 515 telefono zenbakira.

Bergara. Bidekurutzeta kalean etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, bi logela, bainugela eta trastelekua. Guztiz berritua. Aukera oso ona. 114.000 euro. Interesatuok deitu 618 44 38 44 telefono zenbakira.

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan Araba ibilbidean. Hiru logelakoa. Interea-tuok deitu 651 70 79 96 telefono zenbakira.

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan Kurtzibide kalean. Hiru logelakoa. 615 73 29 83

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Ahal bada erdialdean edo gertu. Hiru logelakoa. 679 60 08 48

Arrasate. Etxebizitza txiki edo apartamentu baten bila nabil errentan hartzeko. Deitu 653 72 43 19 telefono zenbakira

Bergara. Familia batentzat etxebizitza behar dugu errentan, prezio ekonomikoan. Marijose. 696 70 55 09

Bergara. Pisua hartuko nuke errentan, pertsona euskalduna. 635 74 61 45

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela bila nabil astean zehar erabiltzeko. Gizonzko langilea naiz. 250 euro inguru ordainduko nituzke hila-betean. Posible bada Zigarola edo erdigunean. 622 00 13 19

Arrasate. 250 euroan Erquinen logela ematen da errentan. Gastuak erdibana. Deitu 610 62 65 04 telefono zenbakira

Arrasate. Kaixo, hiru neska euskaldun gara eta Arrasaten pisukide bila gabiltza gela bat betetzeko; neska zein mutil. Pisua alde zaharrean dago, handia eta argitsua da, lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela handi eta eguzkitsua ditu. Alokairua, wifia, telefonoa eta gastuak, 220-230 euro hilean, pertsonakoa. Animatu eta deitu! 608 57 97 70 edo 665 71 69 10

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 657 55 81 15 telefono zenbakira

Bergara. Lagun bat behar da etxea osatzeko Bolun. Prezioa: 250 euro, dena barne. Deitu 670 85 86 68 telefono zenbakira

Elgoibar. Logela daukat errentan emateko. 699 60 91 90

Logela handia errentan, Arrasaten. Logela handi bat emango nuke errentan, Arrasateko erdialdean. 629 80 77 73

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. 15,5 metro koadroko garaje itxia saldu edo errentan ematen da erdigunean. Kontze-zino Iturbidegoitza artean. 628 14 92 74 edo 943 77 08 02

Bergara. Ibigarrai kalean garaje itxia ematen da errentan. Maniobra egin barik sartzeko modukoa. 679 74 00 61

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Lonja ematen da errentan, San Andres auzoan. Elektronika parean. Deitu 94 467 60 20 telefono zenbakira

304. ERRENTAN HARTU

Arrasaten. Lagun koadrila batendako 50 metro koadro baino gutxiagoko lokal bat nahiko genuke errentan. Deitu 689373143 telefono zenbakira eta Anderrengatik galdetu.

Pabiloia. Pabiloia behar dugu errentan Debagoienean. Deitu 605 76 98 97 zenbakira

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Neska gertu lanerako. Nagusiak edo umeak zaitzen eta garbitasun lanetan. Erreferentziaduna. Deitu 636 47 64 92 telefono zenbakira.

Bergara, Arrasate edo Aretxabaleta. Neska lan bila etxeko lanak egiten edo nagusiak zaintzen. Tabernatan sukaldari. Oso langilea. Deitu 697 20 00 86 telefono zenbakira

Bergara. Arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 665 75 41 32

Bergara. Esperientziadun emakumea lanerako prest. Deitu 617 12 61 44 zenbakira.

Bergara. Mutil arduratsua gertu nagusiak zainteko. Geriatra ikasketak ditut. Deitu 651 09 04 97 telefono zenbakira

Bergara. Neska arduratsua gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Deitu 632 82 87 69 zenbakira

Debagoiena. Neska euskalduna haurrekin esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Pedagogian lizentziatua eta Haur Hezkuntza ikasten. Deitu 669 884 955 zenbakira

Debagoiena. Arrasateko emakumea gertu umeak eta nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko ere bai. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

Debagoiena. Emakume lanerako gertu. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72

Debagoiena. Emakumea gertu, arduratsua eta esperientziaduna, umeak zaintzen, garbiketak orduka egiteko edo nagusiak zaindu edota paseoan laguntzeko. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. 943 76 52 39

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketatik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. - Profesionalen moduluak.

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

Debagoiena. Esperientziadun neska edozein motatako lanak egiteko prest. Interesatuok deitu 639 08 86 33 telefono zenbakira.

Debagoiena. Gaztea lanerako gertu: peoi lanak, gidari&He-lip. 651 55 36 29

Debagoiena. Igeltsari, margoketa zein arotz lanak egingo nituzke. Esperientziaduna. Javid. Interesatuok deitu 632 20 19 41 telefono zenbakira

Debagoiena. Ikasketak eta esperientzia dituen emakumea nagusiak eta gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Interesatuok deitu 672 67 76 26 telefono zenbakira

Debagoiena. Lan bila nabil: garbiketak, banaketak, edo beste edozein lan. Deitu 679 60 08 48 telefonora.

Debagoiena. Mutil gaztea, arduratsua, lanerako gertu. Nagusiak eta ospitalean gaixoak zaintzen edo garbitasun lanetan arituko nintzateke. Etxean bizi izaten edo bestela. Wilber. Interesatuok deitu 618 85 12 85 telefono zenbakira

Debagoiena. Mutila gertu arratsalde eta asteburuetan sukaldean lan egiteko. Pintxo, menu eta abarretan eskarmentu handikoa. Deitu 666 83 21 95 telefono zenbakira

Debagoiena. Mutila gertu harakin laguntzaile lanetarako. Esperientzia daukat hezurrak kentzen eta aurrekozinatutan. Edozein lanetara moldatzen naiz. 610 91 33 40

Debagoiena. Mutila gertu harategian edo sukaldean laguntzaile lanetan aritzeko, baita tabernetan, garbitasun lanetan edo nagusiak zaintzen ere. Esperientzia. Deitu 647 15 18 23 telefonora.

Debagoiena. Mutila gertu lan egiteko: garbiketak, nagusiak zaindu eta abar. Etxean bizi izaten eta orduka ere bai. 633 28 81 24

Debagoiena. Mutila gertu lanerako. Eskarmentua daukat hegazti granjatan, biltegian, eraikuntza zein margoketa lanetan. ORDutegi malgua eta edozein herritan lan egiteko prest nengoke. 631 10 57 91

Debagoiena. Mutila lan bila: peoi, gidari, zaindari eta abar. Deitu 651 55 36 29 telefono zenbakira

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientzia duena lan bila dabil. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, baita garbitasun lanak egiteko ere. Etxean bertan bizi izateko gertu nago edo orduka lan egiteko. Deitu 633 49 62 53 zenbakira

Debagoiena. Neska arduratsua garbiketa lanak egin (etxe, atari eta abarrak) eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 616 62 85 91 telefono zenbakira

Debagoiena. Neska arduratsua gertu ume edo nagusiak zaitzen zein garbitasun lanetan jarduteko. Etxean bizi izaten zein bestela. Interesatuok deitu 632 09 72 93 telefono zenbakira

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila nagusiak eta umeak zaintzen zein garbiketak egiten. Nahiago etxean bertan bizi izaten baina bestela ere bai. Erreferentzia onak eta esperientzia. Deitu 633 34 76 22 zenbakira

Debagoiena. Neska arduratsua ume eta nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Deitu 633 49 62 53 zenbakira

Debagoiena. Neska euskalduna etxeak garbitzeko, ospitaletan gauak egiteko edo umeak zaintzeko gertu. Kotxea daukat. Disponibilitate osoa, esperientzia eta informeak. Interesatuok deitu 671 35 22 60 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska gertu lanerako: nagusiak zaintzen, etxeko lanak egin, garbiketak, sukalde zein tabernatan. 610 99 70 46

Debagoiena. Neska gertu nagusi eta gaixoak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin, egoitza eta abarretan esperientziaduna. Ospitale zein etxean gauak egiteko ere gertu. Deitu 943 25 02 96 edo 662 58 96 11 telefono zenbakira

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, garbitasun lanek egin edo bestelako lanetarako. Etxean bizi izaten zein egunez. 722 14 42 86

Debagoiena. Neskagertu ume eta nagusiak zaintzeko edo garbitasun lanetan jarduteko. Deitu 691 03 25 02 edo 943 54 09 41 telefono zenbakira

Debagoiena. Neskagertu ume eta nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita garbiketa lanak egiten ere, atari eta abarretan. Erreferentziak ditut. 636 41 98 14

Debagoiena. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko, orduka. Baita garbitasun lanetarako ere. 672 70 71 25

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zainduko nituzke, baita garbiketala lanak egin ere. Deitu 679 30 65 28 telefono zenbakira**Debagoiena.** Prest edozein lan egiteko 13:00etatik aurrera: gaixoak edo adineko pertsonak zaintzen zein atari edo elkarateak garbitzen. Tel.632 88 27 92

Debagoiena. Sukaldean laguntzaile lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu nago. Gidatzeko kameta daukat. Interesatuok deitu 663 46 93 60 telefono zenbakira

Debagoiena. Urte askotako esperientzia duen emakumea, arduratsua, lanerako gertu. Umeak zaindu, etxeko edo tabernako lanak eta etxe, jatetxe zein bestelako garbiketak egingo nituzke. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72

Eraikuntzan zein garbitasunean. Eraikuntzako ofiziala eraikuntzan lan egiteko gertu; edozein motako garbitasun lanetan jarduteko prest ere bai. Autoa eta gidabaimenarekin. Debagoiena osorako. 639 41 68 38 (Rolando)

Etxeko lanetarako zein pertsonekin jarduteko gertu. Umeak edo adineko pertsonak zaintzeko gertu. Orduka, etxean bertan bizita edo edonola. Etxeak, atariak.. garbitzeko prest. Debagoiena osorako. 699 14 17 38 (Karen)

Honduraseko neska langile eta arduratsua. Honduraseko 22 urteko neska bat naiz. Berehala lanean hasteko prest nago, langile fina naiz eta arduratsua. Pertsona nagusi zein haurrak zaintzen eta garbiketa lanak egiten esperientzia daukat. 616 84 89 26

Oñati. Neska euskalduna gertu tabernako eta etxeko lanak egiteko. Baita umeak zaintzeko ere. 685 73 06 80

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Euskara eskolak. Kazetari-tzako ikasle bat naiz eta karrerako 1go mailako euskara arloa prestatzeko laguntza behar dut. Interesatuta bazaude deitu mesedez ondorengo telefonora. Iosune. 665 71 10 03

Italiera Oñatin. Italiarako eskolak jasoko genituzke Onatin. Deitu 685 73 06 80 telefono zenbakira

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingeles eskolak ematen ditut, talde txikitan edo bakarka. Adin guztiak (5 urtetik aurrera). Errefortza eta hobe-kuntza. Azterketen prestatuntza ere bai (KET, PET, FCE...). Deitu eta informatu konpromiso barik 606 72 47 10 zenbakira

Bergara. Magisteritzan diplomatua LH eta DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest, ingelesa barne. Esperientziaduna. Deitu 607 36 98 69 telefono zenbakira

802. EROSI

Antzinako gauzak jaso edo erosi. Antzinako gauzak jaso edo erosten dira: bizikiletak, josteko makinak, argazki kamarak, idazteko makina.. Egoeraren arabera ordaintzen da. Emailaz edo whatsapp bidez argazkia bidali edo deitu. 678 47 43 54

Baserritar jantzia. Neskati-lareztat 18 hilabeteko neurriko baserritar jantzia erosiko nuke. 686 21 02 23

Klarinetea. Klarinetea erosi nahiko nuke. Deitu 626 43 25 03 telefono zenbakira

